

Goienkaria

2006ko irailaren 1a > Egubakoitza > VI. urtea > 254. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Tabernetan erretzea debekatuko dutela uste dut"

Antton Elortza
Ostalaria
> 09



G2a

Debagoienarren oporretako postalak > 43

KONTZERTUA

Lordi, Eurovisioneko talde irabazlea, Jamen izango da > 26

ESKORIATZA

Lur azpiko edukiontzia ipini dituzte herriko bi kaletan > 35

MENDIA

Gasherbrum II-ko tontorra egin duten ibarreko lagunak hitzak > 40

TURISMOA > BALORAZIOAK

Oso uda ona turismo aldetik

Bisitari asko etorri dira, leku desberdin askotik, eta hotelak beteta egon dira > 05

BERGARA > HIRIGINTZA

Irala kalea berrizteko lanak aurten hasiko dituzte

Oraindik ez dute erabaki Domingo Irala kalea oinezkoendako soilik izango den baina lanak urte bukaera baino lehen hasiko dira, Victoria-no Gallastegi alkatearen esanetan. Hirigintza proiektu horri behin betiko bultzada eman diote, eta gaur, egubakoitza, ziren beraz aurkeztekoak udaletxean. > 15

POLITIKA > ALDERDIAK

Ezker Batua eta Aralar, hurbiltzen

Koalizioa sortzeko negoziatzen dabiltza bi alderdiak > 06



AURKEZPENA Mankomunitateko presidentea, Ahdun Nagusia eta Lurralde Antolamendu diputatua, prentsaurrekoan.

GOIATZ ARANA

GARRAIOA > AUTOBUS ZERBITZU BERRITUA IRAILAREN 1ETIK AURRERA

Autobus eskaintza berria indarrean dago

HOBKUNTZAK Linea berri batzuk daude, eta beste batzuetan, maizago izango dira autobusak

KANPORA ERE Ibarreko garraioaz gain, Zumarraga eta Donostiarekin lotura hobetu da > 02-03

ELGETA > OSPAKIZUNA

Vespa eta Lambretta zaleen jaia

Kontzentrazioa egingo dute aurki motorzaleek > 37

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Telebista-Irratia > 51
Komunikazioa > 52
Non-zer > 54-55



Omega Elevator, s.a.

- Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
- Gremioen koordinazioa
- Arkitektura-oztopoen kentze lanak

Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxe: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com



MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK

ARRASATE
TEL.: 943 712 425
FAXA: 943 712 298

ARETXABAETA
TEL.: 943 712 411
FAXA: 943 712 004

OÑATE
TEL.: 943 718 080
FAXA: 943 718 045



SEIN
grupotaldea

Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

GARRAIOA > AUTOBUS ESKAINTZA BERRIA INDARREAN GAUR, IRAILAK 1

Autobus zerbitzu indartua dauka Debagoienak gaur, egubakoitza, hasita

LINEA BERRIA Bergara, Oñati eta Antzuola Legazpirekin eta Zumarragarekin lotzeko ibilbide berria aurkeztu dute, berritasun nagusietako bat moduan

MAIZAGO Eibar-Eskoriatza eta Oñati-Arrasate ibilbideetan gehiago izango dira: Bergara-Eskoriatza tartean, 15 minuturo izango da autobus bat

AUTOBIDETIK AP-1etik joango dira autobus batzuk, eta horrek bidaia laburtuko du: Arrasatetik Donostiara 50 minutuan iritsiko da autobusa

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Gaur, egubakoitza, debagoien dar guztiek badute aukera ibarreko autobus zerbitzu berriak probatzeko, edo lehen bazeuden ibilaldiak indartu egin direla ikusteko, bai abiadura, bai maiztasun aldetik.

Berritasun horiek atzo, eguena, aurkeztu zituzten Arrasaten Foru Aldundiak -Diputatu Nagusia han egon zen-, Mankomunitateak eta ibarreko alkateek. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Pesa garraio enpresak eta udalek adostutako plana da, eta milioi bat euroko inbertsioa du. Foru Aldundiak ipini du zati handiena, %60. Gipuzkoa osorako autobus programa berriaren barruan, Debagoienekoa izan da lehen ekintza. Ibarreko alkateen ekimenearekin eta Aldundiaren eta Pesaren elkarlanarekin lortu dira aldaketa hauek.

Berritasun asko daude. Nabarmena da AP-1 autobidea erabiliko dela kasu askotan. Hala, Arinak izeneko linea (Arrasate-Bergara-Donostia) hortik ibiliko da. Arrasatetik irtengo da, ordu erdiro 07:00etatik 08:30era

eta, gero, ordubetero; handik zuzenean Donostiara baldin badao, 50 minutuan egingo du bidea; Bergaran gelditzen denean, ordubete inguru beharko du. Maiztasuna desberdina izango da asteburuetan.

Beste berritasun handi bat linea zirkularra da. 90 minuturo autobus bana irtengo da Bergararik Oñatira eta Antzuolara; hau da, ibilbidea bi norabideetan egingo da batera. Handik Legazpi eta Zumarragara egingo du.

Indartzen diren ibilbideak Eibar-Eskoriatza eta Oñati-Arrasate dira. Lehenengoa 30 minuturo ibiliko da Eibartik Eskoriatzara. Orain arteko zerbitzuak jarraitu egingo du; bien artean, Bergararik Eskoriatzara 15 minuturo izango da autobusen bat. Bigarrenak (Oñati-Arrasate) maiztasun handiagoa izango du: ordu erdiro puntako orduetan, eta ordubetero gainerakoetan.

Leintz Gatzagan eta Elgetan orain gutxi jarri ziren baliabideekin jarraitu egingo da. Hala, Gatzagatik Eskoriatzara taxi-busa egongo da, eta Elgetatik Bergarara ere.

Gipuzkoa osoan, autobus zerbitzua hobetzeko lehen ekintza da Debagoienekoa; gerora, 2007 urte bukaera inguruan, txartel bateratua ezarri nahi dute

Foru Aldundiak, Debagoieneko udal guztiek eta Pesa garraio enpresak adostasun osoz egin dute plan hau; batez ere, udalek egin dute plana ateratzeko ahalegin handia

Orain arte ibili diren linea batzuek jarraitu egingo dute, bereziki Eibar-Eskoriatza lineak eta hiriburuetara doazanak.

Ordutegi berriak kontsulta daitezke www.pesa.net webgunean, eta Foru Aldundiak buzoietan banatuko ditu ordutegiak.

IRITZI ONAK

Debagoieneko alkate guztiak ados jarri dira proiektu hau aurrera eramateko. Ignazio Lakuntzak, Mankomunitateko presidentea, honela dio: "Oso berri ona da ibar osoarendako. Dinamika txar baten sartuta geunden: eskaintza txarra zen, eta gero eta gutxiago erabiltzen zen. Orain, erronka da ohiturak aldatzea, eta hori kosta egingo da".

Oñatik du, betidanik, komunikazio arazo larriena. Hango alkateak, Lourdes Idoiak, pozik hartu du berria: "Diputazioa zoriondu behar dugu proiektu honengatik. Alkate guztiak hori lortu guran ibili gara. Oñatiko zerbitzua asko hobetuko da; espero dut herritarrek hori igartzea, eta dagoena hobetzeko gertu egongo gara", esaten du.



IRTEERA GEHIAGO Bergararik eta Oñatitik Arrasater...

"HOBETO EGONGO GARA"

Eulalia Tartas erretiratu bergararra sarri ibiltzen da autobusean, batez ere Eibarrera eta Donostiara joateko. Semea Arrasaten ikasitakoa da, eta "18 urte zituenetik autoz ibiltzen da", diosku. Aspaldian, autobus zerbitzu hobe eskatzen mobilizatu da

Gatzagaren eta Elgetaren egoera bideratu nahian; Aramaio, berriz, nahiko ondo dago

Gatzagarrak aspaldian ibili dira garraio eske. Ekain eta uztailean autobusa izan dute, egunean bi joan-etorri Gasteizera; baina abuztuan, ez. Rosa Urreta gatzagarrak dioskunez, "abuztuan oso zerbitzu eskasa izan dugu, eta asteburuetan, gautxoria oso ondo dago, baina besterik ez dugu izan". Horregatik, jakin-min handia zegoen atzo, eguena, Foru Aldundiko ordezkariekin egitekoak ziren batzarraren inguruan. Aurrerantzean, bederatzi leku dituen taxi-busa izango dute.

Elgetan, berriz, autobusa kendu ere egin behar izan zuten: ospitalera joateko ipini zuten bat, baina oso gutxi erabiltzen zuten. Bergarara goizeko udal autobusa izango dute, eta taxi-busa ere.

Aramaio nahiko ondo zerbitzatuta dago, Arriaga enpresa arabarraren autobusen eskutik. Egunean, Gasteizera zenbait autobus dituzte, eta, batez ere, Arrasatera: goiz osoan, orduro; eta 15:30ean beste bat.

Debagoieneko hiru errepide egitea proposatzen dute 2007-2017 bitartean

Garraioideak ez ezik, errepideak ere albiste dira. Izan ere, Foru Aldundiak, Lurraldeko Zatik Planaren barnean, Gipuzkoako bigarren mailako errepide sarea hobetzeko proposamen edo gomendio batzuk batu ditu; aurrera irteten badira, 2007-2017 eperako asmoak izango dira.

Debagoieneko hiru ekintza agertzen dira: batetik, Zubillaga-Oñati saihesbidearen bigarren zatia, 1,6 kilometrokoa; gaur bukatzen den lekutik, Fagor Industrial lantegi ingurutik, Belatxara gasolindegira aldera joango litzateke. Oñatiko Udalak eskatu du proiektu hori aurreikustea. Bestetik, Elgetako saihesbidearen bigarren zatia ere egiteko asmoa dago. Lehen zatia joan den abendutik dago zabalik. Azkenik, Olandixoko tunela ere epe horretarako proposatu dute, 38 milioiko aurrekontuarekin.

Orain, proposamen horiek ohiko bidea jarraitu behar dute, aldatu behar diren, onartzen diren... ikusteko.



GOIENKARIA

Ibilbide indartuak edo guztiz berriak

Arinak

Linea bizkorra da, AP-1 autobidetik ibiliko delako. Arrasate-Bergara-Donostia ibilbidea egiten du. Debagoiena Donostiarekin lotuko du 50 minututan edo 60 minututan, geldialdien arabera.

Zirkularra

Bergara-Oñati-Legazpi-Zumarraga-Antzuola ibilbidea da. Zerbitzu guztiz berria da. 90 minuturo, Bergaratik autobus bana irtengo da Oñatira eta Antzuolara. Helburua da ibarra Zumarragarekin lotzea.

Eibar-Eskoriatza

Ibilbide horretako zerbitzua indartu egingo da. Aurrerantzean, autobus batzuk autobidetik joango dira, eta ez dira Soruluzen geldituko. Bergara eta Eskoriatza bitartean ere egongo dira autobusak.

Taxi-busa

Elgetatik Bergara taxi-bus zerbitzua egongo da, eta baita Leintz Gatzagatik Eskoriatzara ere. Hortik beste autobus batzuk hartu ahal izango dira. Taxi-busak oraingo garraio zerbitzuak indartuko ditu.

Oñati-Arrasate

Oñatiren komunikazio arazoa bereziki larria da. Hori saihestu asmoz, Arrasaterako autobus gehiago izango dira: puntako orduetan, ordu erdiro, eta gainera-koetan, orduro.

Hiriburuetara

Eutsi egingo diete Debagoiena hiriburuekin lotzen duten zerbitzuei. Donostiarako egongo den zerbitzu berria gain, Gasteizera, Bilbora eta Iruñera doazen ibilbideak orain arte bezala jarraituko dute.

> MILIOI BAT EURO

Miloi euroko inbertsioa da, eta honela banatzen da: %60 Aldundiak, eta %20na udalek eta Pesak.

> BALIABIDE GEHIAGO

Pesak 16 gidari gehiago hartu ditu, eta sei autobus berri dauka. Denetara, 24 autobus dira orain.

> ERABILIENA

Bergaratik Arrasatera ibiltzen dira bidaia-ri gehien; gero, Eskoriatza eta Aretxabaletatik Arrasatera.

> TRANBIA

Autobus sare berria ez da tranbia-ren ordezkia, osagarria baizik. Tranbia epe luzearako asmoa da.

> OHITURAK ALDATU

Arduradunen esanetan, herritar-rrak garraio publikoa erabiltzen hastea da arrakastaren gakoa.

> TXARTEL BATERATUA

Etorkizuneko asmo bat da txartel bateratua jartzea. 2007 bukaera baino lehen egin nahi dute.

tzak behar, behar zirela diosku. Berak ere txartel bateratua eskatzen du lehenbailehen, bidaia-aren erosotasunerako, eta autobidea erabiltzearen alde dago, bere esanetan, bidaia batzuk luze egiten direlako, Eibarreraino, adibidez. Bestetik, ibilbide batzuek herri gehiagotan gelditu behar-ko lirakeela uste du: autobus batzuk Arrasatetik bai, baina Aretxabaletatik edo Eskoriatzatik ez direla pasatzen kexu da.

Erabiltzaile honen kexa nagusiak beste mota batekoak dira: "Batuetan, autobusa Arrasatetik irten eta Eskoriatzatik edo Aretxabaletatik pasatzen denean, beteta baldin badao, ez da gelditzen edo ez du jendea hartzen; eta, normalean, ez dute bigarren autobus bat ipintzen".

Arazo hori bera Gasteizen dagoela dio: zapatuan, txarteldegia itxita egoten da, eta erabiltzai-

leek ez dute ziurtatuta lekua izango dutela.

TAXI-BUSA BI HERRITAN

Leintz Gatzaga eta Elgeta kasu bereziak dira: bi horiek taxi-bus bideko konexioa izango dute Eskoriatzarekin eta Bergararekin, hurrenez hurren.

Bai batak bai besteak izan dute eguneko autobus zerbitzuekin esperientzia azkenaldian: Elgetan, Bergararako autobusa izan dute, batez ere ikasleendako; eta Gatzagan, Gasteizera autobusa eta gau-txorria. Leintz Gatzagan atzo, eguena, ziren Foru Aldundiarekin batzartekoak, garraioaz hitz egiteko. Rosa Urreta gatzagarraren hitzak Debagoien osora hedatu daitezke: "Orain arteko zerbitzua zabaltea eta osatzea nahi dugu, eta herritarrek motibatu autobusa erabiltzeko".

oateko aukera gehiago dago aurrerantzean. Argazkian, autobusa Bergaran geldiuena egiten.

bera, eta hauxe dio: "Hobeto egongo gara, hori ziur. Batez ere erretratuondako, autobusa oso garrantzitsua da. Orain faltan igartzen dudana da guretako, ikasleendako... tarifa bereziak jartzea".

Tarifa aldaketarik ez da egongo, oraingoz behintzat. Hala ere, batek baino gehiagok eskatzen du merkatea: esate baterako, Esko-

riatzatik Arrasatera joatea euro bat kostatzen da. Alejandro Nayak, Pesako gerenteak esaten duenez, orain hurrengo tarifei eragingo diete. Hori txartel bateratuarekin etorriko da, eta 2007 bukaera baino lehenago egin nahi dute. Nayaren esanetan, "oraindik ez dago zehaztuta zelakoa izango den sistema hori. Lehenengo, esperientzia pilotua egingo

dugu Donostia-Hernani linean". Pesako ordezkaria ere oso baikor dago: "Debagoiena indartu nahi izan da, eta aurrerantzean, maila handiko zerbitzua izango du".

Edurene Iturbe aretxabaletarra Eskoriatzara joaten da egunero lanera autobusez. Arrasatera eta Gasteizera ere autobusez joaten da, eta maiztasunarekin konforme dago, baina hobekun-

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | **KODEA**

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | **AITORMENA**
Aizkolari (Kortatu) | **AIZKO**
Amore amore (Karidadeko benta) | **AMORE**
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | **BEGIATA**
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | **BEGIAK**
Bi Minuturo (Hertzainak) | **BIMINU**
Dub manifest (Fermin Muguruza) | **DUB**
Egunero (Hertzainak) | **EGUNERO**
EH Sukarra (EH Sukarra) | **SUKAR**
Eles dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | **ELLOS**
Enamorado de la muerte (RIP) | **ENAMO**
Entzuidazu (Aterking's) | **ENTZU**
Etorkizuna (Etsaiki) | **ETORKI**
Ezer ez da betiko (Ken7) | **EZER**
Gora Herria (Negu Gorriak) | **GORA**

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+**KODEA**
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+**KODEA**
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+**KODEA**
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+**KODEA**

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko:
1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

LOGOAK (SMS 1) KODEA

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuzko, jar zaitzez zure hornitzailearekin hurremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsera bakarrik ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / * Vodafone: deitu 123-ra. / * Movistar: deitu 609-ra.
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzaitegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin hurremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | **HAIZEA**
Hegal egiten (Itotz) | **HEGAL**
Ikusi (Delirium Tremens) | **IKUSI**
Ilargia (Ken7) | **KEN**
Inpernuen ate joka (Gatibu) | **INPER**
Jokin Urairi Hitzak (Bide Ertzean) | **JOKIN**
Kaixa (Urtz) | **KAIXA**
Lau Teilatuta (Itotz) | **ITOIZLAU**
Laztana (Lazten) | **LAZTA**
Lotuta egon arren (Kokein) | **LOTUTA**
Loreboa (EKKXU) | **LORE**
Marea Gora (Itotz) | **MAREA**
Musturrek sartunde (Gatibu) | **MUSTURREK**
Nicaragua (Kortatu) | **NICA**

No time for love (Hertzainak) | **NOTIME**
Salve (La Polla) | **SALVE**
Sarrri Sarrri (Kortatu) | **SARRI**
Sorginen leizean (Etxiku) | **SORGIN**
Txatxo (Zarama) | **TXATXO1**
Txus (La Polla) | **TXUS**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bate) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantzoa) | **BAI**
Bakezaleak (Añje Duhañel) | **BAKE**
Bizkaia Maite (Berito Leburundi) | **BIZKAIA**
Eperak (Añje Duhañel) | **EPERRAK**
Euskal Herrian Euskaraz (Osakoni) | **EUSKAL**
Euskaldun berriaren balada (Osakoni) | **EUSKALDUN**

Ez da posible (Ruper Ondoñak) | **POSIBLE**
Furra Furra (Osakoni) | **FURRA**
Galziera noa (Osakoni) | **GALZIERA**
Gernikako Arbolak (Gonzalez Mendibil) | **GERNIKA1**
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**
Izarren hautsa (Kaber Leta) | **IZARREN**
Lepoan hartu ta (Pantzoa/Paola) | **LEPOAN**
Marinelaren zai (Sorotan Bate) | **MARINE**
Nere herriko neskatza maite (B.Leburundi) | **NERE**
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarri) | **NON**
O! Ama Euskal Herria (B.Leburundi) | **OJAMA**
Tirakoi (Osakoni) | **TIRA**
Txatxamatxalabatu (Mikel Urdangarri) | **TXATXA**
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
Zaindu maite duzun horri (Ruper Ondoñak) | **ZAINDU**

WEBGUNEAN → www.smsoinu.com

TURISMOA > AURREKO UDAN BAINO TURISTA GEHIAGO AURTEN

Joan den urtean baino kanpotar gehiago etorri dira gurera udako oporretan

Kataluniatik ez ezik, Kaliforniatik eta Kanariar irletatik ere etorri dira

Ekainean hasi ziren ibarreko ostatuak betetzen, eta lepo egon dira abuztuan

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Ibarreko turismo bulego guztiak bat datoz aurtengo udan aurrekoan baino askoz kanpotar gehiago ibili direla esatean. Oñatikoan, adibidez, iaz baino mila lagun gehiagoren bisita izan dute. "Bidaiatzeko gidak edo bidaiei buruz idazten duten kazetari asko ere etorri dira, Japoniako bat eta *El Pais* egunkariko bat, adibidez", dio Oñatiko turismo bulegoko Iñaki Igartuak.

Kanpotar gehienak kataluniarak izan dira, baina Aretxabaletako landetxean, adibidez,



TURISTAK Abuztu bukaeran turista gutxiago badabil ere, oraindik batzuk badabiltza; irudikoak Valladolidekoak eta Frantziakoak dira.

LEIRE KORTABARRIA

Kaliforniako lagunak ere egon dira. Kanariar uharteetatik, Londrestik edo Kanadatik ere etorri dira turistak, besteak beste.

OSTATUAK BETETA

Normalean abuztuko erdiko bi asteetan etortzen dira turista gehienak ibarrera, baina aurten

abuztuko lehen astetik izan dute mugimendu handia turismo bulegoek eta ostatuek. Kostaldean tokirik ez zegoelako ere, turista

askok hartu dute ostatu Debagoienan. Familiak, bikoteak eta taldeak etorri dira eta ohi baino egonaldi luzeagoak egin dituzte.

gasteizon

centro comercial abierto
merkataritzagune irekia

HIRIGUNEKO MERKATARITZAREN 6.FERIA

www.gasteizon.com

Irailaren 7, 8, eta 9an

BEHERAPEN KANPAINAREN ERREMATEA

Tokia: Europa jauregian

Ordutegia: 10etatik 14etara eta 17etatik 21etara

Eskainitako beste zerbitzu batzuk:

- Kafetegia: BATELA taberna

Oharra: Esku diruzko ordainketak onartuko dira soilik.

PARTEHARTZAILEAK:

ALOE VERA ARTESANA
BARBARA'S
BELAKORTU
BOUTIQUE CHICAS
BOUTIQUE EUROPA
BOUTIQUE INFANTIL ELBE
BOUTIQUE PATRICIA
CALZADOS BASOCO
CASTAÑO ALFOMBRAS
CHIFI
DTR MODA
DUBLA
GENERACION X

KIROLAK ZUBIAURRE
LENCERIA YOAR
MARIAN HIERRO OPTIKA
MILORD MODA HOMBRE
PERFUMERIA GIL
PITTY CALZADO Y ROPA
INFANTIL
SASTRERIA GOTXON
SONNY
SOTA
TAKIDA
TAPICERIA CASTAÑO
X-TREME

Antolatzailea

gasteizon

centro comercial abierto
merkataritzagune irekia

Babesleak

Arabako Foru Aldundia

Diputación Foral de Alava

Vitoria-Gasteizko Udala

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Laguntzaileak

Caja Vital Vital Kutxa
www.cajavital.es

Cafés à Brasileira



merkataritza

> ELKARTASUNA

**Saharako umeei
agur esateko martxa
izango da Bilbon**

Euskadiko Sahararen aldeko elkarteek martxa antolatu dute. Irailaren 2an izango da, 12:30ean, Bilboko Areatza plazatik abiatuta. Manifestazio horren helburuak dira gurean uda igaro eta irailaren 9ra arte hemen izango diren Saharako umeak agurtzea; eta saharar herriaren autodeterminazio eskubidea aldarrikatzea. Eta horretarako aukeratu duten leloa da *Sahara: etorkizunik ez autodeterminaziorik gabe*.

> KOOPERATIBAK

**Ikerkuntza eta
hezkuntza plataforma
eratu du MUK**

Mondragon Unibertsitateak plataforma berri bat sortu du, kooperatibismoaren gaineko hezkuntzan eta ikerkuntzan jarduteko. Helburua da kooperatibismoari buruzko informazioa mundura zabaltzea; bai orokorrean eta baita zehazki MCCri buruz ere. Horretarako, foroak, eztabaidak eta bileak antolatuko dituzte. Bi urtean behin mundu mailako kongresua izango da, lehena 2007ko uztailean.

> ENPRESA

**Ikerlanek ekonomia
partzuegoen bost
proiektu egingo ditu**

Cenit programaren barruan 16 proiektu egingo dituzte hainbat ekonomia partzuegok. Horietatik bost Ikerlanek egingo ditu. CAF, Fagor Automation, Fagor Arrasate, Ona-Pres eta Tifell enpresen eskariak jaso ditu, baita Ecotecnia eta Union Fenosarenak ere. Lastertasun handiko tren baten modelo berria, biodiesel, aerogenerado bat, fabrikazio prozesuak eta leku publikoetarako sarbideen kontrola izango dira proiektuok landuko dituzten gaiak. Honek bermatuko du Ikerlan-IK4k elkarlanerako hartutako konpromisoa.

UDA > UR GUTXI ETA EGUZKIA FALTA

Urtegieta ur gutxi eta Debagoieneko igerilekuetan jenderik ez aurtengo udan

Landan eta Garaion bainua ere debekatu dute, ur maila asko jaitsi delako

Uztailean asko joan dira igerilekuetara, baina abuztuan oso gutxi, eguraldiagatik

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Jende gutxi bainatu da aurtengo abuztuan Landa eta Garaioako guneeetan, nahiz ibarreko igerilekuetan. Urtegieta ur maila jaitsi egin da eta bainua kontuz hartzeko aholkuak eta ez bainatzeko aginduak ere eman behar izan dituzte. Igerilekuetara ez joateko arrazoi nagusia, berriz, eguzki falta izan da.

LOKATZA AGERTU ARTE

Igor Etxabe aretxabaletarrak Garaioako informazioan dihardu eta hark kontatu digun moduan, "Landa eta Garaioako hondartzak gizakiak egindakoak dira eta ur maila asko jaitsi delako, hondartzako harriak eta barrualdeko lokatza agerian gelditu dira zenbait gunetan". Bainuak baldintzatzea ekarri du egoera horrek. "Uraren laginak hartzen dituzte teknikariek kalitatea neurtzeko eta egun batzuetan bainatzea debekatuta egon da hondartzan baten edo bestean; beste egun batzuetan, aldiz, 15 minutuko bainua hartzeko eta ondoren dutxatzeko aholkuak eman ditugu", azaldu du Igorrek.

%50EAN

Igor Etxaberen esanetan, uda guztietan jaisten da urtegieta ur maila. "1991. urtean, adibidez, %1eraino jaitsi zen. Uste zuten urteak beharko zirela berriro lehengo ur mailara heltzeko, baina hiruzpalau hilabetez bete zen", kontatu digu. "Aurten, abuztuaren hasieran gelditu zen agerian Landa ur maila jaitsi egin zela; Garaion, berriz, abuztuaren



IGERILEKUA Aurtengo uztailean iazkoan baino jende gehiago joan da Musakolako igerilekura.

GOIENKARIA

23tik aurrera ikusi da ur mailaren jaitsiera", jarraitu du aretxabaletarrak.

Iberdrolako ur saileko teknikari batek emandako datuen arabera, abuztuaren 31n, eguna, Urrunaga %52an zegoen eta Uribarri %55ean.

EGUZKIARI BEGIRA

"Eguzkia badago joaten da bakarrik jendea igerilekura. Bero egin arren eguzkirik ez badago, ez da joaten", dio, argi, Arrasateko igerilekuko Fernando Aguriondok. "Aurtengo abuztuan eguzki egun gutxi izan dira, nahiz eta igeri-

lekura etortzeko moduko egunak egin, baina joan den urtean baino askoz jende gutxiago etorri da uda osoan. Uztailean izan da hilabete jendetsuena, iazko uztailean baino jende gehiago etorri da", jarraitu du Fernandok. Musakolako igerilekura zer-nolako jendea joan den ere azaldu du: "Uztailean, adibidez, emakumeak eta umeak etorri dira eta abuztuan, Aretxabaleta eta Arrasateko familiak".

Oñatiko igerilekuan ere igarri dute aurten jende gutxiago joan dela. "Uztailean jende asko ibili da, baina abuztuan oso jen-

de gutxi, benetan. Joan den urtean kanpotik etortzen diren turistek ere saldu genien sarrerak, baina aurtengoan ez kanpotarrak ezta oñatiarrak ere ez dira etorri. Urte barruan ere igeri egitera sarri etorri direnetako batzuk etorri dira bakarrik", kontatu digu Elvira Lizarralde, Zubikoa kiroldegiko harrerako langileak.

Uda ez da bukatu eta oraindik badago aukera kanpoko igerilekuetara edo eguzkia hartze- ra joateko. Musakolako igerilekua hilaren 10ean itxiko dute eta Oñatin eguraldiaren arabera zabalduko dute zelaia.

DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

**OHARRA**

2006ko Irailaren **11tik aurrera** Arrasate, Bergara eta Oñatiko Garbiguneek ordutegi zabalagoa izango dute:

Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 13:30era
15:00etatik 19:00etara

Larunbatetan: 9:00etatik 13:30era

Igande eta jai egunetan itxita.

Tel. 943 79 33 99

www.debagoiena.com

ITYRRIETA

Sagardotegia – Erretegia



- Sagardotegiko menu ezberdinak
- Karta
- Kazuelatxoak

Ostegunetik igandera zabalik
(gainerako egunetan aurrez deituta)

Arraga auzoa
605 70 64 51 / 945 44 53 85

Gura bezain laster

Aitaitaren oparia ikusteko irrikan nago! Amamak nire plater gustukoena prestatako zuen. Laster batean denok elkarrekin egongo gara.

Lurraldebusk, Debagoieneko autobus zerbitzu berriak, **30 minuturo** eramango zaitu **Eibartik Eskoriatzara**.

LURRALDEBUS



Gipuzkoa hiria
gero eta hurbilago!

gure artekoak

ALMIS > Software garapena da Almis Informatica Financiera enpresaren ardatza. Urteetan gora egin du bai langile kopuruari eta baita lan bolumenari dagokionez ere.

Aitor Biain

"Banketxeendako programa informatikoak egiten ditugu"

IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI
Oñatin du egoitza nagusia Almisek. Banketxe eta aurrezki kuxendako egiten dute lan batez ere, baina Ulmarekin eta Import-Arrasaterekin ere hasi dira proiektu berriak garatzen.

Nolatan Sortu zenuten Almis?

Saiolanen hasi ginen 1992an eta programa informatikoak egin ditugu ordutik.

Zer egiten duzue?

Hasieratik banketxeetarako programak egin ditugu. Finantza balore-zorroak kudeatzeko programak dira.

Jarraipena ere egiten duzue?

Softwarea instalatu ondoren egunero mantenua egitea da gure ardura nagusia. Konexio zuzena dugu bezeroekin eta arazoak unean konpontzen saiatzen gara.

Zein dira zuen bezeroak?

Banketxeak, Espainian, Frantzia eta Ingalaterran. Bezeroen artean daude Calyon, Grupama, Euskadiko Kutxa, Ceca eta BBKrekin ere hastekoak gara.

Zuen jarduna, ordea, handitzen diharduzue, ezta?

Bai, batetik Ulma Handing Systems-ekin programa bat egi-



Aitor Biain (eserita ezkerrean) lankideekin Oñatiko bulegoan.

I.A.

FITXA TEKNIKOA

> EGOITZAK

21 langile ditu Almisek: 13 Oñatiko egoitzan; bi Madril; Kordoban bat eta beste bost bezeroen bulegoetan Parisen eta Londonen.

> PRODUKTUAK

Bi produktu ditugu: FIT (Financial Intelligent Tools) bankuetarako eta Ulmarako WMS (Warehouse Management system).

> WEBGUNEAK

www.almis.com helbidean dago enpresaren gaineko informazioa.

ten dihardugu. Logistikarako sistemak saltzen ditu eta, honen baitan, informatika arloa dago. Euren nahi zuten sistema guztiendako produktu bera eratzea eta hori garatzen dihardugu, instalazioa errazteko.

Bestalde, Import-Arrasaterekin ere ari gara, enpresako ordenagailuak, informatika sarea... antolatzen.

Etorkizunerako asmoak?

Banketxeetarako lanarekin jarraitzea eta beste bi proiektuak ongi ateratzen badira ekoizpena dibertsifikatzeko.

etxeke leihotik



Iban Arantzabal > Goienako Telematika zuzendaria

Santiago bidia: egixa zor jaku turismo-papeletan

Debagoienara, Elgetara behintzat, etorri dira turistak. Daren lo-leku apurrak beteta egon dira eta hori holan izan deien egingo zeben lana mankomunitate-tik-eta. Sevillatik, Bartzelonatik... Zelan Elgetara? Erantzun garbixa emon dabe: "Gabetan mantia botata lo egitte hau gustoko dogu", diñue, "hemen dagon ingurua eta lasaitasuna ezin da pagau!". Pentsau zertara etorri diran!

Horri gehitu biharko gontzakez, hala eta be, Debagoienan daren turismo aukerak eta jende gehixago erakarri.

Horretarako zer? Elgetatik (beti Elgetatik) pasatzen dan Santiago bidia ezagutzera emon, esaterako. Izan be, Santiago bidia kostaldetik zoiala esatia ipuin merkia da, gizur borobilla Elena Barrena eta Jose Antonio Marini kari kaso egin ezker, behintzat.

Eusko Jaurlaritzan moduko erakundiek kolorezko turismo-paper garestirik etartzia ez legoke justifikauta, beraz; ez, ze iruzur-bidia da kostaldekoa; eta ez, ze Debagoieneko bi be badagokigu oker gastautako hori diruoi.

Baiña alperrik! Kontzako barandak txukuntzen gastauko da berriro be dirua, ez Debagoiena ezagutzera emoten.

"Santiago bidia kostaldetik zoiala esatia ipuin merkia da, gizur borobilla"

> **Erdi Aruan, Tarragona-Iruñea-Bidasoa zan Mediterraneotik Atlantikorako galtzadetan galtzada. Iruñea, Beasain, Bergara eta Elgeta gainetik faten zan Bilbora, eta ez asmau barri dan itsaso bidetik.**

> **Akitaniatik Bidasoraino zetorrenak be ez zeban itsaso-biderik jarraitzen. Andatzarretetik zihar Lasartetik Beasainera zihoiian eta hemendik berriro be Elgetara. Halaxe irakurri dotsat Amatiñori.**

begi-bistan



Larrinoko tomate handia (Aretxabaleta)
2006/08/30

Argazkia: Iratxe Bengoa.
Testua: Irati Agirreazaldegia.

Uda izaten da tomateak jaso eta jateko sasoi egokia eta honako tomate handi hau batu zuen Felipe Bengoak Larrinon duen baratzean. 1,200 kilo pisatu zituen eta eta hartu duen handienetakoa da.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxo bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Asun Agiriano

GALTZAGORRIKO
LEHENDAKARIA



Mireia Gabilondo

ZINEMA ZUZENDARIA



Imanol Etxeberria

FUTBOLARIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Axun Agiriano arrasatearra lehendakari duen Galtzagorri elkarteak hitzarmena sinatu dute gaztetxoaren artean irakur zaletasuna bultzatzeko. Bestalde, Agiriano Euskadi Literatur Sariko epaimahai-kidea ere bada.

Irailaren 21ean hasiko da Donostiako Zinemaldia. Zabaltegi-Zuzendari Berriak atalean Mireia Gabilondo bergararrak zuzendutako *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma aurkeztuko dute. Bestalde Elgetan filmatutako *Bosque de sombras* filma ere izango da lehian.

Athletic klubeko jokalaririk ohia Lezamako kirol egituraren sartu da. Bergaran jaiotako arrasatearrrak Eibarren egin zuen aurreko denboraldia atezain modura. Hemendik aurrera Athletic-eko behe mailako atezainak entrenatzeko ardura hartuko du.

Tabakoaren Aurkako Legea urtarilean jarri zuten indarrean, baina zortzi hilabeteko epea eman zieten ostalariei ehun metro koadro baino gehiago duten lokalak erretzaileendako ego- kitzeko. Atzo amaitu zen epea. Ostalari gehienek, ordea, ez dute aldaketarik egin euren negoziotan, legea argi ez dagoelako. Zehaztasun eta berme handiagoa gura dute.

Antton Elortza > Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko presidente-ordea

"Tabakoaren legearekin tabernetan erretzea debekatu gura dutela uste dut"

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Antton Elortza oñatiarra Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko presidente-ordea da eta bere taberna eta jatetxean erre daiteke, Debagoieneko gehienetan bezalaxe. "Hala ere, legea indarrean dagoenetik gutxiago erretzen da", dio berak. Honen ostean erretzea erabat debekatu duen susmoa du.

Hurrengo pausoa tabernetan erretzea debekatuko duten susmoa duzu. Zergatik?

Europa mailan debekatu dutela uste dut, eta hona ere iritsiko dela debeku hori. Kontua da noiz. Horregatik, guk eskatzen dugu gutxienez datozen hamar urteetan ez dezatela debeku hori ezarri. Ez du zentzurik ostalariei obrak eginaraztea, bi urte barru tabernetan erretzen ez uzteko.

Inork bermatu dizue hori?

Orain arte ez. Guk Jaurlaritzarekin ditugu harremanak, ez Madrilgo Gobernuarekin. Belen Bilbaorekin, Droga Gaietarako zuzendariarekin, izan ditugu bizpahiru bilera eta hemendik aurrera gehiago izango ditugula uste dut; izan ere, legea garatu barik du oraindik Jaurlaritzak, eta horretarako kontuan hartuko gaituztela esan digute. Urtea bukatu orduko egingo dutela pentsatzen dut.

Zer ez dago argi legean?

Ehun metro baino gutxiago dutenetan argi dago; jabeak erabakitzen du erre daitekeen edo ez. Ehun metro koadro baino gehiago dutenetan dago arazoa. Legeak dio erretzaile eta ez erretzaileendako guneak bereiztu behar dituztela, baina ez du esate nola egin behar den hori, paretak jasoz, ke xurgagailuak jarritz edo nola. Ezkontza ospakizunetan ere, ez dago argi nork erabaki behar duen erre daitekeen edo ez.

Elkartetik eta federaziotik eskaera batzuk egin dizkiogu Jaurlaritzari. Orain arte guk egin duguna da kartelak jarri, eta bakoitzak erabakiko du sartu edo ez.

Ze kostu dute obrek?

Lokal bakoitza ezberdina da eta ez dago horri erantzuterik. Baina oraindik zer eta nola egin behar den definitzeko dago. Adibidez, gazte batek ezin du pasa erretzaileen gunetik, ezta ez erretzaileen gunera joateko ere. Beste sarrera bat behar du lokalak eta askok ezin dute hori egin.



Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko kidea da Antton; 1.200 bazkide inguru dira.

O.E.

BERMEA

"Datozen hamar urteetan, behintzat, debeku hori ez ezartzea da gure eskaeretako bat"

Zein da lege horren helburua?

Uste dut dela gazteak eta umeak ketik eta erretzetik babestea eta horren irakaspen pedagogikoa egitea. Horregatik diote erretzaileen lokaletan ere 16 urte azpikoak ezin direla sartu. Ikusteko dago oraindik, ordea, zer gehiago ekarriko duen.

JARRERA ALDAKETA

"Orain gutxiago erretzen da eta jendeak galdetu egiten du erre daitekeen ala ez"

Zertan eragingo dizue ostalariotabernetan erretzen debekatzekoak?

Kaltegarria izango da hori, duda barik. Hala ere, legea indarrean jarri zutenetik, nabaria da gutxiago erretzen dela. Eta jendearen jarrera ere aldatu egin da erabat. Orain, tabernako nugu-

UDA

"Uda sasoi tabernak zabalik egoteko laguntzak eman beharko lituzkete"

siari galdetzen diote batzuek ea barruan erre daitekeen eta beste batzuek ondokoari galdetzen diote ea zigarroa erretzeak axola dion. Hori lehen ez zen inoiz gertatzen, gogoia zuenak inori ezer galdetu gabe erretzen zuen.

Guri, berez, komeni zaigu lehengo moduan jarraitzea, bai-

na ikusten dugu ezinezkoa dela hori. Azkenean, poliki-poliki Europa guztian kenduko dutela uste dut.

Urtariletik hona, legea indarrean dagoenetik, ibili da inspektorik?

Nik dakidala ez. Gainera, orain arte erabaki gabe zegoen nork jarriko zituen isunak eta neurriak. Droga Gaietarako Sailaren gain uztea erabaki dute azkenean.

Ehun metro baino gutxiago duten lokaletako jabe gehienek erabaki dute barruan erre daitekeela. Debagoienean ere bai?

Bai. Gainera, Oñatin, behintzat, ez dut uste ehun metro koadro baino gehiago duen lokalik egongo denik, bakarren bat egotekotan. Lokalak berak gehiago izan ditzake, baina legea aplikatzeko, jendea egoten diren esparruak hartzen dira; barra barrua eta sukaldea, adibidez, ez dira kontuan hartzen. Hori garbi dago.

Zer moduzko uda izan duzue eskualdeko ostalariok?

Ni neu kanpoan izan naiz, egia esan, baina jende asko ibili dela esan didate, kanpotar asko. Donostiara eta Getariara ere, adibidez, jende asko etorri ei da aurtengo udan.

Uda oroko eztabaida izaten da tabernak eta jatetxeak zabalik edo itxita egon behar duten. Aurten ere bai?

Urterokoa izaten da hori, bai. Jende gutxi badago tabernek ez dute hurrengo urtean zabalduko, eta itxita baldin badaude kexatu egiten da jendea. Ez da erraza.

Nik uste dut zaila dela sasoi horretan tabernak zabaltea: batetik, seme-alabak dituzten tabernarietara euren pasa gura dituzte oporrak, eta, bestetik, tabernan lan egiten duten gehienek udan hartu gura dituzte oporrak. Gainera, inork ez daki zenbat jende izango duen, ez duzu bermerik eta kanpotik datorren jendeak merke ibili gura du; Oñatin, adibidez, bi menu eskatu izan dituzte hiru lagunendako.

Zein da irtenbidea?

Iruditzen zait tabernak zabalik egotea gura badute, laguntza batzuk eman beharko lituzkeela. Ez dakit zehazki zer, baina adibide batzuk ematearren: urteko argi indarra doan eman edo tasa batzuk kendu.



zabalik

Markos Balentziaga

Ugalketa jopuntu?

Por ostetxo da orain, iraillaren hasiera demonio honetan, baña oraindiko be Euskaltelen publizitatearen oihartzuna entzuten dihardut: "Euskaldunok sexurik ez dugula egiten diote, baina 200.000 film X emanak ditugu". Aitamena buruz egiña dago; hutsen bat egon leike esaldixan, beraz.

Pentsatzen jarritza, beroketa-ariaketan behintzat, eboluzio ederra dago sistema zaharretik Euskaltelen berri honetara; hau da, Azkoitiko Azkarateko neska-mutillak ohe baten txikilixakala egiten zihardutela —afalostian, mutturra bero-bero eginda— kantatzetik, 200.000 pelikula X kontsumitzeko behar dan supermartxara dagoana.

Kontua da Euskaltelen publizitate-kanpaña hori bete-betian egonik, prentsak ekarri zebala (ekainaren 10ean, barbarako) Euskadiko poblaziñuak goranzko bidia hartu dabela, aspaldiko partez, eta hil baño jende gehiago jaiotzen dala orain.

Ez dakit poblaziñuaren igoera horretan Euskaltelen meritua inork aztertu daben. Era berian, ez dakit kanpaña horren beroren ondorio kolateralak izan ote leiken Euskalteleko karreristek aurtengo Tourrean seko jota agertu izana. Enpresaren hain jarraitzaile sutsuak ete dira ba mutillak, karrerara iritsi orduko siku geratzeko?

Flako, benetan be flako, Euskalteleko karrera-mutillak; harroxko, ostera —bai horixe!—, sasoi horretan berorretan danon goguan daren politiko eta juez kakalardo batzuk. Bazterrak nahastiari laga eta txikilixakala egiten —Azkarateko neska-mutillak letxe— gehitxoago entretenitzia ez litzake danon hoberrako izango, hau da, politiko eta juez horrendako eta jente korrientiarendako?

Bittartian, Euskalteli aitortuko ote dotse poblaziñua ugari-tzearen alde egindako lan ordaingaitza.

"Ez dakit poblaziñuaren igoera horretan Euskaltelen meritua inork aztertu daben"

"Flako, benetan be flako, Euskalteleko karrera-mutillak"

herritarrak galdezka

KILOMETROAK 2007

Beste irakurle batek idatzi digu esaten ea badakigun datorren urteko Kilometroak jaiak, Bergaran izango denak, ze ibilbide izango duen.

Bergarako Aranzadi Ikastolak antolatuko du 2007ko Kilometroak jaiak eta oraindik ez dute antolatzaileek ofizial egin ze ibilbide izango duen. Aztertzen dihardute ibilbide bat baino gehiago eta garbi samar dute oraingoa ibilbide lau samarra izango dela. Izan ere, 1991n antolatu zenak ibilbide aldapsua zeukan, paraje ederretatik igarotzen zen, baina oso aldapsua zen. Aztertzen dabilzan ibilbidea lehengo goiko trenbidetik igaroko litzateke zati batean eta ahal izanez gero Mekolalderaino igaroko litzateke, baina hori ez da ziurra oraindik; izan ere, Mekolalden araztegia eraikitzen ari dira eta litekeena da haraino ezin joan izatea.

SAN MARTIN JAIK

"Bergarako San Martin jaietako azoka noiz izango da?", galdetzen digu irakurle batek.

Erantzunaren bila Udalera jo dugu eta handik bidali digute San Martin jaietako egitaraua. Irailaren 8an izango da barazki, fruitu, lore, gazta eta lore moztuen feria. Feriaren inguruan, gainera, hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Esate baterako, Eusko Labela duen hegaluzearen dastatzea izango da Munibe plazan. Egun horretarako ez dute bestelakorik antolatu goizeko feriaz gain. Hori bai, bezperan, hilaren 7an, Kiki, Moko

eta Koko pailazoen emanaldia izango da Muniben eta egunean, hilaren 7an, gazta dastatze ikastaroa kultur etxean.

San Martin jaiak, osterantzean, hurrengo asteburuan ospatuko dira, egubakoitzetik domekara bitartean. Azpimarratzekoa da San Martin egunean, 16an, Agorroren kirol, astialdi eta kultura gunea inauguratuko dutela eguerdian eta bisita gidatuak antolatuko dituzela herritarrendako. Eta, bestetik, hurrengo egunean, domekan, Bergarako Erreileno eta Tostoiaren Kofradiako kapitulua izango dela.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com


DANBAKA

"Noiz hasiko da Danbaka?", galdetzen digu irakurle batek.

Danbaka Debagoieneko Musika Lehiaketak bigarren edizioa izango du aurten eta lehenengo musika emanaldia urriaren 20an izango da, aurten ere Espaloia Kafe Antzokian, Elgetan. Bost zuzeneko kontzertu (hamabostean behin, barikuetan) eta finala jokatuko dira. Azkeneko kontzertua abenduaren 15ean izango da eta finala urtarrilaren 12an.

marraskiz

Mikel Ibe



Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarría Saietako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) Erredaktario Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi Oinarriko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate Publizitatea Mirreia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berebizbar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.155 ale • Difusioa: 18.629 ale.

Goiena

OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Mahats urte eskasa

Mikel Irizar

www.goiena.net/blogak/piperrautsa

az mahatsaren kontakizuna arretaz jarraitu zuenak, honezkerok igarri du aurtan ez dagoela apenas aipamenik. Arrazoi oso simplea da: urte eskasa doa, mahats asko galdu da, dagoeneko. Eta ez Esteñibarraren bakarrik, Bizkaia aldean arazo asko dago, Gipuzkoan ez dakit.

Gorri eguraldia nagusitu da aurtengo udan: hezetasun

handia, sirimiri eta ihintz ugari, sargoria, zeru garbi gutxi...

Berez, apirilean hasita mahastiari egiten diogun tratamenduak nahikoa behar luke horri guztiari aurre egiteko, baina aurtan ikusi da oraindik ez dugula dena ondo egiten.

Galeraren arrazoiak bat baino gehiago izango dira eta badut honetaz kexa puntu bat erakundeekin. Bizkaian, Aldundiak oso kontrolatuta dauka txakolinaren sektorea, eta gainera badugu txakolingileon elkarte bat ere, Bialtxa izenekoa. Ordea, urtea hain txarra joan arren, ez dute ahalegin berezirik egin arazoa

aztertzeo eta akatsak igartzeko, hurrengo urtetan gauzak hobeto egin ditzagun. Bakoi-tzak bere aldetik atera behar izan ditugu ondorioak.

Gabezia horrek eraginda, mahastizaintza liburueta da jodu. Eta uste nuena baino askoz gehiago ikasi dut. Hainbat akats aurkitu ditut nire jardunean, hobeto ezagutu dut mildiu gaitza eragiten duen onddoa, eta hartu ditut hainbat erabaki datorren urterako.

Eta ez dut sufritu. Pena ematen dit mahats galduak, baina lasai hartu dut galera. Uste dut baduela zerikusirik Kutxako lan aldaketak: lehen,

plazara

Bake prozesuaz idatzi du EAJko ordezkariak oraingo asteen. Bizi dugun une erabakigarri honi buruz; Alderdien Mahaiari buruz; akordio transbertsalak; Irlandako bake prozesuarekin egiten dituzten konparaketaz... Baita Ibarretxe lehendakariak aurkeztu zuen Estatu Politiko Berrirako proposamenari buruz ere. Eta kontu hauetan erabakitze-ko euskal gizarteak daukan garrantzia azpimarratu du egileak.

Markel Olano *

Euskal gizarteak erne egon behar du

Abian den bake prozesuak aukera borobila eskaintzen digu bi mende baino gehiago dituen euskal gatazka politikoa konpontzeko. Helburu hori lortzeko, berriz, ezinbestekoa da Euskal Herriaren erabakitze eskubidea onartua izatea.


AKORDIO TRANSBERTSALAK?

Akordio transbertsalak aipatzen dira behin eta berriro (euskal abertzaletasun eta nazionalismo espainiarraren artekoa), eta azken bolada honetan Alderdi Sozialistaren bozeramaleei entzuten zaizkie horrelakoak, batez ere Alderdien Mahaiaren ibilbideari begira.

AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA

Kontzeptu hori Irlandako bake prozesuan erabili zen, errepublikarren eta unionisten arteko akordioak bideratzeko. Baina ez da zilegi Ipar Irlandako prozesutik nor berari interesatzen zaiona soilik hartzea. Ezin dugu ahaztu, 1993an Britainia Handiko gobernuak Irlandako biztanleen autodeterminazio eskubidea onartu zuela Downing Streeteko adierazpenean. Britainia Handiko eta Irlandako Gobernuak sinatu zuten adierazpen hartan erabakitze eskubidea onartzen zen, eta erabaki horren ejertzioa bi tradizioen ordezkari nagusien artean hitzartu behar zela aipatzen zen.

Beraz, euskal arazoa konpontzerakoan, Ipar Irlandako bake prozesuaren oinarrian dauden bi elementu horiek gogoratu behar genituzke, eta ez bietako bakar bat soilik. Jokabide horrekin gatazka konpontzeko auke-



MIKEL ARROJABE

"Zapateroren saiakera da erabakitze eskubide bakarra Espainiako gortean mantentzea"

"Ezinbestekoa da aukera historiko hau ez alferrik galtzea, eta horretarako beharrezkoa da euskal hiritarren inplikazioa"

ra borobil hau alferrik galtzen utziko genuke, nahiz eta bortizkeria desagerrarazi.

ESTATUTU POLITIKO BERRIA

Gainera, ezin dugu ahaztu aipaturiko bi printzipio horiek Ibarretxe lehendakariak Madrilen aurkeztu zuen Estatu Politikoa oinarrian daudela. Alderdi Sozialistaren eta Zapatero presidentearen saiakera da, Katalunian egin duten bezala, erabakitze eskubide bakarra Espainiako gortean mantentzea. Egoera hori mantentzen duen bitartean (eta, beraz, gatazka politikoa mantentzen den bitartean), Estatuak irabazi egiten du. Ibarretxe lehendakaria eta bere egitasmoa, ikuspegi honetatik, Estatuak duen areririk arriskuena da zalantzarik gabe, eta bere amortizazioa lortu nahi dute.

BAKE PROZESUAK BI UBIDE

Abian den bake prozesu honek bi ubide ditu, bata bortizkeriaren eta bere ondorioen amaiera kudeatzeko eta bestea normalizazio politikoa gauzatzeko, eta lehenengoaren ibilbideak bigarrenaren indargabetzeko arrisku handia bizi dugu.

EUSKAL HIRITARREN INPLIKAZIOA

Baina euskal gizarteak ezin du ametitu egoera hori. Ezinbestekoa da aukera historiko hau ez alferrik galtzea, eta horretarako euskal hiritarren inplikazioa beharrezkoa da. Euskal gizarteak izan behar du prozesuaren arrakastaren berme nagusia.

* Markel Olano EAJko Euzkadi Buru Batzarreko kidea da

zer deritzozu?

www.goiena.net

Segurua da, zure iritzi, Internet?

BAI	%80
EZ	%20

> ARRISKUAK BADAUDE

Nik oraingoz ez dut arazorik izan, baina arriskuak egon, badaude, eta, egia esan, asko kostatu zitzaizkidan Interneten erosten hastea eta konfiantza hartzea. Nabigatzaile

> EROSKETAK EZ

Erosketak eta ez ditut egiten Interneten eta gutxi erabiltzen dut diru kontuetarako. Bestela erabiltzen dut: informazioa lortzeko, albisteak irakurtzeko, tokiak ezagutzeko, zalantzak argitzeko...

Patri

> SEGURUA DA

Bai. Internet segurua da, ondo erabiliz gero, eta konfiantzazko guneetan egin ezker erostetako eta. Nik sarri erabili izan dut. Miren

> ARRISKUA UMEEKIN

Arriskua, iruzurrena baino gehiago, haurren inguruko da. Haurrak zaindu egin behar ditugu Interneten dabiltzanean. Arantxa

DATORREN ASTEKOA: EA bakarrik doa hauteskundeetara. Ados zaude?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

haserre nenbilenean, mahatsak eman behar zidan poza eta fallatzen bazuen, akabo munda; orain, han pozik nabil, eta hobeto eraman dezaket mahatsak kale egitea. (...)

Esan ala ez esan

Imanol Murua Uriak
www.berria.info/blogak/imanol

Bitxikeria bat, gure kazetarigitzaren eta politikagintzaren nolako ari buruzko txikikeria.

Begoña Erraztik hitzaldia eman zuen atzo Zarautzen.

Aurretik, hitzaldiaren laburpena bidali zuen EAK hedabideetara, hitzaldia zuzenean entzuterako bertaraino joan beharrik izan gabe artikulua idatzi ahal izateko. Gainera, hitzaldia baino ordulaurden lehenago hedabideak deitu zituen, gero esango zuenari buruz adierazpenak egiteko, irriti eta telebistek hitzaldia entzun beharrik izan gabe informazioa garaiz eman ahal izateko. Eta, azkenik, hiru ordu laurdeneko hitzaldia eman zuen.

Hiru bertsio, beraz, hitzaldi bakarrarentzat. Kontua da hitzaldia ez zuela irakurri, eta prentsara bidalitako laburpen

idatzian komatxo artean agertzen ziren esaldietako asko ez zituela esan, horrela, hitzez hitz. Mezua bera zen noski, baina hitzez hitzeko aipamenak ez zetozen, gehienetan, bat. Paperean agertzen ziren esaldi asko ez zituen esan, eta agertzen ez ziren beste asko esan zituen.

Ondorioa: gaur egunkari gehienen arabera Erraztik esan zituen esaldiak, ez zituen benetan esan. Baina ez dio axola. Dakigunez, benetan zer esan zuen baino garrantzitsuagoa da prentsaren arabera zer esan zuen. Honez gero asmatu duzue. Kazetari gizarajo batek hitzaldia osorik entzun zuen.

koplak

Irati Agirreazaldegi

Oporren ostean, iraileko aldapa

Garraztasunik ere badauka sarri oporren eztiak amesgaiztotan murgiltzen dira irailean amestiak.

Egutegian gailentzen zaio abuztuari iraila egunak orain bizkor joaten izango da oso zaila.

Apalduz doaz opor usaina isilduz festa zarata gora ta gora igoko dugu guk iraileko aldapa.

Erosi behar arropa berri, koaderno zein liburua ta niri zeinek berrituko dit oporretan den burua.

Gogokoa den tokian inoiz aldapa gogorrik ezta irailekoa inon gogoko ote den da nire kezka.

Lanera bueltan lehen egunak zein diren une gogorak berriro ere hartu nahi ditut astelehenean oporrak.

Zalantza

Koldo Altube
Oñati

Beste eguneko derbia, Athleticen eta Realaren artekoa, ez zitzaidan batere gustatu. Normala da derbietan joko gutxi ikustea eta hala gertatu zen domekan ere. Bi taldeak ahul ikusi nituen, baina batez ere bizkaitarrak. Aurten larri ibiliko direla uste dut. Realak ere ez zuen gauza handirik egin Aranzubiaren aurrean, baina, behintzat, etxetik kanpo jokatzeko. Txuri-urdinek ere arazoak izango dituzte golak sartzeko. Eta Osasuna ere makal, emaitzari begiratu, behinik behin. Ligako lehenengo partiduan, etxean, Getaferen aurka eta 0-2 galdu. Ondorioa: euskal taldeek asko sufrituko dute aurten lehen mailari eusteko.

Arrasateko igerilekuak

Mercedes Iñarra
Arrasate

Aurtengo uda bero honek hondartza zein igerilekuek egoteko gonbita egin digu. Hala, ez gara gutxi Arrasateko Udal Igerilekura hurbildu garen bailarako herritarrek. Harritu nau bertako sorosleek beraien lana zein zorrotz betetzen duten ikusteak:

Danbaka, segi horrela!

Maite Larrañaga > Bergara

Badakit ez dela oso normala zerbaiti buruz norbait zoriontzeko gutunak idaztea egunkarietan argitaratzeko, baina uste dut merezi duela eta horregatik ausartu naiz. Baina, nori emateko zorionak? Ba, kasu honetan Danbaka lehiaketako antolatzaileei, hau da, Elgetako Espaloiari eta Goienari. Oso ideia ona iruditzen zait, aspaldiko onenetakoa eta lehenengo edizioa oso arrakastatsua izanenez espero dut bigarren hau ere izatea. Seguru baietz. Gure gazteei sekulako aukera ematen zaie lehiaketa horrekin, musika zuzenean eta ganoraz jotzeko aukera eskaintzen zaielako eta, gainera, jeneralean izaten ez duten oihartzun mediatikoa eskainiz: telebistaz, prentsaz, irratiz eta Internetez, batik bat hemen gure eskualdean, baita guretik kanpo ere bai.

Gauza bat hobetu beharrekoa, hala ere: autobusak. Elgetara ostiral iluntzean igotzeko aukera ez dute denek, 18 urtetik beherakoek batez ere, eta ona litzateke autobusak antolatzea joan-etorria egin ahal izateko. Antolatzaileen eta beste erakunde batzuen artean (erakunde publikoak, Diputazioa edo Mankomunitatea, edo autobus konpainiak..., ez dakit), denon artean, arazo hori konpontzea eskatzen dizuet. Osterantzean, animuak nire partetik eta segi aurrera!

gaztetxoek uretara salto arriskutsurik ez egitea, uretara sartu baino lehen dutzatzea, behar den lekuetan baino ez jatea, belarretan ea inork debekatuta dagoen zigarrorik erretzen duen zaintzea... Eguzki izpietatik babestuko gaituen krema eman dugun edo ez zelatatzea falta izan zaie bakarrik. Ez dauden gerizpetan ezin izan dugu babestu-eta.

Arreta guzti honen arrazoia goitik datorren aginduren bat

izango da ziur aski. Baina nori dagokio igerilekuko instalakuntzak txukun, garbi eta osasun zein higie kondizio minimotan mantentzea? Ez al da igerilekuko goi karguen ardura? Erabiltzaileok badugu noski ardura zatitxo bat, ados. Baina eskubideak ere baditugu. Kuota puntualki ordaintzen dugunok, egun pasa joan eta sarrera zintzo-zintzo ordaintzen dugunok badugu aldagela eta dutxatan lurra garbi aurkitzeko

eskubidea. Zakarrentzietan lekua topatzekoa (neguan dagoen zakarrentzi txiki bakarra dago), komunetan papera egongo den ziurtasuna izateko eskubidea, e.a.

Arratsalde partean instalakuntzak zeri eginda daude. Kanpoaldea zorrotz zaintzen dakitela demostratu digute sorosleek. Nork zaindu eta garbitu behar du barrua han gaudela?

Horretaz gain, txartel mankomunatuak baditu abantailarik, baina duela hogeitaka urteko igerileku berak ezin ditu lau bost herriko erabiltzaileak jaso. Urtean hogeitaka urteko igerileku berak ezin ditu lau bost herriko erabiltzaileak jaso. Urtean hogeitaka urteko igerileku berak ezin ditu lau bost herriko erabiltzaileak jaso.

Urtero bezala noiz arte jarraitu behar dugu?

Katalanen inbidia

Maite Urtzelai
Arrasate

Katalunian egon naiz udan. Primeran igaro ditut han oporrak. Inguru ederrak daude, bai kostaldean, baina baita eta batez ere barrualdean ere: (Pirinioetan, Garrotxan... Hangoekin izan ditudan harremanarengatik, konturatu naiz euskaldunak estima handiko gaituztela katalanek. Hau imajina nezakeen hara joan aurretik ere, politikoa edo

kirolari euskaldun eta katalanen artean sortzen den konplizitatearen berri izan dudalako sarritan hedabideen bitartez.

Uste dut, oro har, jatorrak iruditzen zaizkigula euskaldunoi katalanak eta alderantziz ere hala dela. Kultura ezberdinekoak garen arren, gauza komunak, arazo komunak, ditugu. Eta hori igarri egiten da. Edo guk igarri dugu, behinik behin. Izan ere, euskaldunak ginela ohartzekoan, beti hartu gaituzte bereziago, hobeago, beti egin digute komentario goxo bat, keinu bat.

Bestalde, harritu egin nau, oso jakinekora den arren, toki guztietan katalanek egiten dutela berba, bai haien artean eta baita kanpokoei zuzentzerakoan ere, barrualdeko herri txikietan, baina baita turistikoetan ere, tabernetan, dendetan... edonon. Batzuentzat jarrera hori amorragarri den arren, niretako mirezgarria da. Ze, norberak norberaren hizkuntza egiten ez badu, babesten ez badu, maite ez badu, nork egingo du?

Euskara dakigunok, geure eguneroko bizitzan eta geure zeregin guztietan geure hizkuntza erabiliko bagenu, askoz ere euskaldun gehiago izango ginatke eta askoz ere euskal herriagoa izango litzateke geure ingurua. Geure hizkuntza babesteko modu bakarra erabiltzea da eta horretan katalanak gu baino aurreratua go daude. Haiengandik ikasi beharko genuke.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

12



Egin zaitez harpidedun orain eta urte amaierara arte etxean jasoko duzu Asteleheneko Goienkaria. Dei bat egin eta kitto!



Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30etara.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71
943 76 30 05

GIARTZU GIMNASIOA

2006-2007 denboraldia

Aerobika	Tai-chia
Stepa	Pilatesa
Spinninga	Erditze osteko gimnasia
Sasoian egoteko gimnasia	Easy Line zirkuitua
Infantil mailako karate estola	Galileoa
Helduendako karatea	Fitnessa
	Defentsa pertsonala
	Euskal Dantzak


Ondo bideratutako kirolak zure bizi kalitatea hobe dezake.



EGIZU BIDAIA DENBORAN IRUÑA VELEIArekin


Zure zain gaituzu, Gasteizko Boulevard dendaragunean,
ALAI PLAZAKO LANTEGIETAN, IRAILAREN 8tik 15era.

Ikas ezazu togak egiten, idatz ezazu latinez zeramikari buruz,
eta goza itzazu zuretzat prestatu ditugun jokoak.



Baliozko eskaintza abuztuaren 17tik irailaren 23arte

ESKOOLA



PROZESADOREA
AMD A64 3500+

BIRGRABATZAILEA
DVD DUAL DL

PANTAILA TFT
COMPAQ 17"

Ordenagailua **COMPAQ PRESARIO**

SR1297 mod.

- RAM: 1.024 Mb
- Disko gogorra: 250 Gb
- SVGA ATI 256 Mb SHARED
- Txartel-irakurgailua: 1ean 15
- Windows XP

799

€

12

ALDIZ
INTERESIK*
GABE

132.942 Pta

**FUNTZIO ANITZEKO
HP DJ F380 OPARI**



EROSKI

Erosten jakin

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**
Kolektorea gertu dago, eta aurrera doaz saneamendu sareko lanak > **18**



> **BERGARA**
Jaiak ospatuko dituzte asteburuan Osintxun eta San Lorentzon > **26**



> **ARETXABALETA**
Biatoristen bikario nagusi izendatuko dute Goio Eskibel etzi, domeka > **33**



> **ESKORIATZA**
Datorren astean zabalik egongo da partzuergoko haurreskola > **34**

BERGARA > BI FASE DITU ETA AURTEN HASIKO DIRA LEHENENGOA EGITEN

Domingo Irala kale berria nolakoa izango den erakutsi du Udalak

EPEAK

Aurtan hasiko dituzte lanak baina zehazteke dago iraupena

BERRITASUNAK

Kontzertuak egiteko plazatxo txiki bat eta komunak egingo dituzte

AURREKONTUA

Bi milioi euroko aurrekontua du proiektu osoak


OIHANA ELORTZA > BERGARA

Gaur, egubakoitza, aurkeztu dituzte Bergarako Irala kalea berriztatze proiektuaren planoak. Irizar jauregiko lorategietatik hasi eta San Martin plazatik behera datorren kaleraino berriztuko dute kalea. Oraingoa baino zabalagoa izango da eta herriko alde zaharra eta berria batuko ditu. Oraindik, ordea, erabakitzeke dute oinezkoendako bakarrik izango den edo ez. "Gero ere autoendako bidea egongo da, orain bezala, baina ezingo da aparkatu. Egunen baten, ordea, oinezkoak bakarrik ibiltzeko kalea izango da baina oraindik ez dago erabakita", esan du Victoriano Gallastegi alkateak.

GASPARREKO GARAJEA BOTA

BEB Arkitektoak enpresak egin ditu proiektuaren planoak. "Bi helburu bete nahi izan dugu proiektu honekin: kalea bere osotasunean ikustea eta herriko alde zaharra eta berria batera eta bistan utzea", dio Xabier Berasategi arkitekto bergararrak.

Horregatik, Domingo Irala kale berria erabat ezberdina izango dela aurreratu du: "Kaleko zoru guztia jasoko dugu berria jartzeko. Gaspar jatetxearen ondoko garajea, adibidez, bota egingo dugu eta txikiagoa egin. Sagarpe elkarre gastronomikoko parra ere kendu egingo dugu eta Usoa eta Euxe-



KALEA Domingo Irala kale berriak argazkiko koloreak izango ditu gutxi gorabehera.

BEB ARKITEKTOAK

bio tabernen aurreko terrazatxo berria egingo dugu. Irizar jauregiaren bueltan dauden paretak ere bota egingo ditugu eta hor dauden lorategiek beste itxura bat izango dute gero", zehaztu du Berasategik. Alde zaharra eta

berria lotzeko, hainbat material erabiliko dituzte lanetan, galtzadarría eta granitoa, esaterako.

KOMUN PUBLIKOAK

Domingo Irala kale berrituan 40 zuhaitz baino gehiago landatuko


dituzte gero, palmondoak eta ezkiak tartean, eta lur azpiko edukiontziak jarriko dituzte Ariznoa tabernaren parean egingo duten plazatxoaren ondoan, Gaspar ondoko garajearen ondoan eta Irizar kalean. Plaza txiki berri horre-

tan, argi eta ur hartuneak jarriko dituzte ikuskizunak antolatu ahal izateko, eta iturri berri bat ere jarriko dute inguru horretan. Bestalde, Ormazabal hotelaren atzealdean, komun publikoak egingo dituzte. Gainera, oinezkoak esertzeko parterreak (buelta guztian eserlekua duen lorategi txikia) jarriko dituzte bai kalearen erdi aldean baita Irizar jauregiaren aurrean ere.

AURTEN HASIKO DITUZTE LANAK


Domingo Irala kalea berriztatze asmoa aspaldikoa da. Bergarako BEB Arkitektoak enpresak 2003ko irailean aurkeztu zuen proiektua. "Dena konponduta dago. Kalean terrenoak zituzten Barrenkaleko bizilagunek udalari laga dizkiote eta trukean, euren lokalak lokal komertzial izateko baimena eman die Udalak", azaldu du alkateak. Lanak bi fasetan egingo dituzte eta bitartean kalea ez dutela itxiko aurreratu du Victoriano Gallastegik. "Lehen fasean, Gasparreko garajea eta Sagarpe bota eta kale erdiko plazatxo egingo dute. Bigarrenean, Irizar jauregiaren hormak bota, lorategiak berrantolatu eta Usoa eta Euxebio pareko terraza berria egin, plazatik behera datorrenak, kalea osotasunean ikusteko", azaldu digu Berasategik.

Proiektu osoak bi milioi euroko aurrekontua du gutxi gorabehera. "Hortik %30a Jaurlaritzaren Izartu programan sartzen da. Once erakundeari ere eskatu diogu dirulaguntza baina ez dugu oraindik erantzunik jaso", argitu du alkateak.



PLAZATXOA Plazatxo berria ikuskizunak egiteko prestatuko dute.

BEB ARKITEKTOAK



IRIZAR Irizar kalea ere zabalagoa izango da gero.

BEB ARKITEKTOAK

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 2	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Domeka, 3	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Astelehena, 4	Español	Arabako Etorbidea 14	943 79 18 65
Martitzena, 5	Zabala	Zarugalde 42	943 77 16 30
Eguaztena, 6	Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguena, 7	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Egubakoitza, 8	Español	Arabako Etorbidea 14	943 79 18 65

BERGARA

Zapatua, 2	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Domeka, 3	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Astelehena, 4	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Martitzena, 5	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Eguaztena, 6	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 7	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Egubakoitza, 8	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63

OÑATI

Zapatua, 2	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 3	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 4	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Martitzena, 5	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguaztena, 6	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 7	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 8	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

ARETXABALETA

Zapatua, 2	Iturralde	Belorrieta 1	943 79 21 99
Domeka, 3	Iturralde	Belorrieta 1	943 79 21 99
Astelehena, 4	Iturralde	Belorrieta 1	943 79 21 99
Martitzena, 5	Iturralde	Belorrieta 1	943 79 21 99
Eguaztena, 6	Iturralde	Belorrieta 1	943 79 21 99
Eguena, 7	Iturralde	Belorrieta 1	943 79 21 99
Egubakoitza, 8	Iturralde	Belorrieta 1	943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udaltzaingoa	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67

Kiroldegiak

Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53

Udalak

Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galliza, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietia, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
08:30	09:00	08:05
	10:15	09:15
	11:15	10:30
	13:15	11:30
	13:45	14:10
	16:20	17:00
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezerperan deitu: 629 54 59 23


eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 2

Bolada onak jarraituko du eta lainotuta egongo den arren ostarte zabalak ere egongo dira. Tenperatura maximoak apur bat egingo du gora.




Domeka, 3

Zapatuan baino bero handiagoa egingo du eta uda giroa nabarmenagoa izango da. Orokorrean hoberantz egingo du eguraldiak.

EUSKAL HERRIAN

Giro polita izango da nagusi asteburuan. Hegoaldean tenperatura altua egongo da, baina iparraldean ez da giro itogarririk izango; bai, ordea, hondartzarako moduko giroa. Eta astearren hasiera bera ere polita izango da herrialde guztian, eguzkiarekin.



oharrak eta deialdiak

ARETXABALETA

> Sahararen aldeko agerrialdira joateko deia

Euskadi-Sahara Koordinakundeak antolatuta, Sahararen autodeterminazioa eskatzeko agerraldia egingo dute bihar, zapatua, Bilboko Areatza plazan, eta parte hartzeko dei egiten du Iesbaa taldeak.

OÑATI

> Internet, oinarritzko ikastaroak

Irailako lehen egunetan, Interneten gainera irakatsiko dituzte KZgunean. Irailaren 5ean bi ikastaro hasiko dira, bata 09:00etan eta bestea 18:30ean. Gainera, Informazioaren Teknologien erabiltzaile txartela ateratzeko aukera egongo da hilaren 8an, egubakoitza, 11:00-13:00.

ARETXABALETA

> Arantzazura joateko txartelak salgai daude

Aretxabaletarrak erromes joango dira Arantzazura hilaren 4an, eta Basotxo erretiratuaren elkarteak txartelak dauzka autobusez joateko. Erosteke azken eguna gaur, egubakoitza, duzue.

BERGARA

> Posta elektronikoz ikasteko aukera

Posta elektronikoa erabiltzen irakatsiko dute hilaren 7an, eguena, KZgunean, 09:00etatik 11:00etara bitartean.

ARRASATE

> Zebait Internet ikastaro KZgunean

Honako ikastaroak emango dituzte: *Asteburu bat euskal Herrian* izeneko (hilaren 5ean, 16:00-18:00, euskaraz), eta posta elektronikoa erabiltzen ikasteko (hilaren 7an, 09:00-11:00, espainolez). Horrez gain, Informazioaren Teknologien erabiltzaile txartela ateratzeko azterketa egingo dute hilaren 6an, 16:00-18:00.

BERGARA

> Aroztegin erakusteko eskaria egiteko aukera

Datorren urtean Aroztegi aretoan erakusteko ipini nahi duten artistek zabalik dute, urriaren 16ra arte, eskariak egiteko epea. Hain zuzen, horretarako prestatu duten eskaera orria (www.bergara.net webgunean dago) bete eta Bergarako Udala Erregistrotara jo behar dute.

BERGARA, OÑATI

> Bergarako eta Oñatiko helduen heziketa ikastetxeek matrikula epea zabaldu dute

Bergarako eta Oñatiko HHietan izena eman daiteke hilaren 13ra arte. Berritasun moduan, frantses eta informatika ikastaroak emango dituzte; horiez gain, alfabetizazioa, kultura orokorra, ingelesa, euskara, atzerritarrendako ikastaroak... Argibideak: 943 76 44 52 (Bergara) eta 943 78 35 77 (Oñati).

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

TENPERATURAK

MINIMOA
Egubakoitza, 25 **14 °C**MAXIMOA
Domeka, 27 **27 °C**ASTEKO
EURIA (l/m²) **20,9 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 23	24 °C	18 °C	0,4 l/m ²
Eguena, 24	20 °C	16 °C	1,9 l/m ²
Egubakoitza, 25	20 °C	14 °C	9,4 l/m ²
Zapatua, 26	24 °C	16 °C	0,5 l/m ²
Domeka, 27	27 °C	14 °C	0,2 l/m ²
Astelehena, 28	24 °C	18 °C	0,1 l/m ²
Martitzena, 29	24 °C	15 °C	8,1 l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA IRAILEAN

Ilbehera 14	Ilberri 22	Ilgora 30	Ilbete 7

dutenek horretarako aukera dute irailaren 8ra bitartean, euren idazkaritza bulegoan, honako ordutegian: 18:00-20:00. Argibideak, 943 78 31 74 telefonon.

BERGARA

> Musika eskolan izena eman daiteke

Gaur, egubakoitza, ireki dute 5, 6 eta 7 urteko umeendako matrikulazio epea musika eskolan. Datorren ikasturtean musika-tresna ikasi behar duten guztiek irailaren 5ean, 16:30ean, izango dute ordutegia adosteko aukera.

BERGARA

> Gazta-dastatze ikastaroa antolatu dute

Gazta-dastatze ikastaroa irailaren 7an, egunean, hasiko da, eta izenemate epea irailaren 5era arte izango da zabalik. Argibide gehiagorako edo izena emateko, jo kultura etxera (943 77 91 59 da telefonoa).

DEBAGOIENA

> Internet ikastaroak Bazkudearen eskutik

Enpresa arloko Interneteko 27 ikastaro antolatu ditu Gipuzkoako Bazkudeak. Nazioarteko komertzioa, giza baliabideak eta informazio eta finantza teknologiak dira gaiak. Argibide gehiagorako, jo honako webgunera: www.geodice.com.

kale inkesta

Izan duzu arazorik oporretan bidaiari joan zarenean?



Maite Muñoz
Etxekoandrea
Bergara



Amparo Losada
Etxekoandrea
Bergara



Luis Mari Gallastegi
Langilea
Bergara



Arantza Olamusu
Ikaslea
Bergara



Juan Manzano
Langilea
Bergara

Behin baino ez naiz joan oporretara kanpora, eta familia guztia mugitzea ez da erraza. Ez zen esperientzia ona izan. Hala ere, ardurarik ez duenak aprobetxa ditzala oporrak, horretarako dira eta.

Ez, sekula ez zait ezer gertatu. Sarritan bidaiatzen dut hegazkinean, trenean, autobusean zein autoan, eta ez dut arazorik izan. Egondia ere beti ongi atera izan zait, baita aurtengo udako oporretan ere.

Ez, beti gertura joaten gara eta. Errioxara gure autoan joaten gara; beraz, ez da dago *overbooking* eta antzerako arazorik. Entzun ere inguruan ez dut entzun bidaietan inork izan dituenik.

Ez, senideak ikustera joan gara, autoz. Beraz, alojamendu arazorik ez dugu izan eta garraio kontuan arazo bakarra trafikoa. Hegazkinean ez naiz askorik ibili eta oraingoz ez dut arazorik izan bidaietan.

Bai, aurten ez, baina hegazkineko bidaiari izan dut arazorik: maleta pitzatuta azaldu zen aireportuan; baina gero, maleta berria eta barruan falta zenaren ordaina eman zizkidaten.

txaloak eta txistuak



Lurreko seinaleak garbi ikusten dira



Bergara herri erdialdeko seinale eta lurreko zirkulazio-markak txukundu egin dituzte. Adibide bat Domingo Irala kaleko bidea emateko seinalea da. Orain argi ikusten da zelan eman bidea eta nork duen lehentasuna, lehen ez zen-eta nahikoa ikusten.

asteko datua

100

zuhaitzetik gora bota dituzte Arrasateko Santa Barbara parkean baso-garbiketa egiteko. Zuhaitzak kopuruz eta garaieraz larregi hazi eta elkarri traba egiten zebiltzan. Hori dela-eta, zuhaitzak kentzea erabaki zuen Udalak.

5 galdera...

Sara Vitoria

Psikologoa
Arrasate

1. Opor osteko sindrome-rik badago edo aitzakia izaten da?

Existitu, existitzen da, baina ez da akaso baja hartzeko moduko nahikoa, orokorrean astebetean igarotzen da-eta. Baja hartzen duen jendeak aurretik beste zerbait pilatu zaiolako egin ohi du.

2. Oporretan gure arazoei ere etena ematen diegula uste duzu?

Pentsa genezake oporretan arazoak joan egiten direla, baina itzultzerakoan bertan daude: familiarrak, norberarenak, laneakoak...

3. Kontsultetan igartzen duzue opor ostean aldatuak?

Bai, antsietate handia egoten da eta batez ere bikote harremanetan aldaketak egoten dira oporrak direla-eta. Sarri oporretan bikotekidearekin normalean baino ordu gehiago eginda, konturatu zara gauza asko ez zaizkizula gustatzen; edo alderantziz, opor idilikoak izan eta egunerokotasunera itzulera gogorregia egin daiteke. Egoten dira *desajusteak* bikotetan oporretan.

4. Beraz, oporrak norberaren arazoei aurre egiteko aprobetxatu beharokoa deskonektatu beharrezko?

Sarri oporretan lasaitu beharrezko gehiago estresatzen gara, agenda goraino bete gura izaten dugu-eta, hara eta hona. Eguneroko estres batetik oporren estresera egiten dugu jauzi.

5. Eguneroko martxara itzultzea hain gogorra ez izateko aholkurik?

Esaten dute onena 48 ordu lehenago itzultzea izaten dela, egunerokotasunera berriro egokitze. Normalean, baina, bezperan bueltatu ohi gara. Etxeko garbiketak, erosketak egin, umen eskolarako kontuak... Bat-batean dena pilotzen zaigu eta estresatzen hasten gara. Sintomak astelehen normal batekoak izan ohi dira, baina zertxobait sakonagoak: suminkortasuna, kontzentrazio falta, gogorik eza...



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

DEBA IBAIA > SANEAMENDU SAREA OSATZEN DABILTZA

Kolektorea prest eta aurrera doa Aramaio erreka-aren bistaratzea

Bistaratzeko lanetarako Uarkapen kendutako aparkalekua bere horretara itzuliko da

Epeleko araztegiarekin udazken honetan dira lanean hastekoak, 2010ean amaitzeko

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Aurrera jarraitzen dute herri erdialdean Aramaio erreka bistara uzteko lanek. Otalora kalean dabilta lanak egiten eta oraindik ere luze joko dutela diote Udaleko arduradunek. Erreka saneatzeko neurrietako bat da ibaia bistaratzea, kolektoreko lanekin batera. 2004. urtean hasi ziren lanean eta dagoeneko amaituta dago Arrasateko kolektorea.

Lanak direla-eta abuztu erdialdea ezker hainbat aparkaleku kendu zituzten Uarkapen eta horrela jarraituko dute lanek iraun bitartean. Hala ere, aparkalekuak bere horretan jarraituko du behin bistaratze lanekin amaitzen dutenean, nahiz eta epe zehatzik ez dagoen.

ERREKA GARBIAGO

800 metro izan ditu gaur arte Aramaio erreka lur azpian, Zaru-galde kaletik Maalaraino, eta orain Uarkapeko tartea bistartu dute, Otalora kalean, saneamendu lanak egiteko. Errekaren alde bietan ur zikinak eramango dituzten hodiak ipiniko dituzte, Epelen Deba ibaiko araztegia dagoen lekuraino.



APARKALEKUAK Ezingo dira aparkalekuak erabili Uarkapen lanek iraun bitartean.

J. B.

Kolektorearen lanekin amaitu eta araztegiarekin hastear daude

Deba ibai osoko tarterik kutsatuenetakoa da Arrasateko eta Epeleko biltegiaren jasoko dira Leintz aldeko eta Oñatiko ur zikin guztiak, aurretik kolektoreetatik igarotakoak. Lanek aurrera jarraitzen badute ere, sare osoa -Deba herriraino iritsiko da- 2010. urterako egongo da prest. Ibarreko bigarren gune nagusia Bergarako Mekolalde auzoan egongo da. Hango araztegiak 40.000 erabiltzailearen ur zikinak jasoko ditu, pertsona eta enpresak barne.

Epeleko araztegia eraikitzen udazken honetan dira hastekoak, beste atzerapenik ez badago. Lehenik Arrasateko kolektorearekin amaitu dute, Muxibar jatetxe parean eraikitzen egon direna. Dagoeneko zabalik dago bertako biribilgunea eta kolektorea martxan da. Epeleko araztegiako lanei dagokienez, lau urte iraungo dutela aurreikusten da eta Dragados y Construcciones enpresak egingo ditu lanok. Lan horiek Madrilgo gobernuak ordainduko ditu.

> LAN PUBLIKOAK

Arkitekto teknikoak behar du Udalak, behin-behinerako

1ºBehin-behineko arkitekto tekniko lanpostua eskaintzen du Udalak. Astelehenean hasiko dira probak, hilaren 4an, 10:30ean, udaletxean. Aurkezteko baldintzak izango dira Arkitektura Tekniko tituluduna izatea eta euskarazko 3 PLA izatea. Lanpostua ordezkapenak iraun bitartekoak izango dira. Lanaren betebeharrak honako hauek izango dira: proiektu teknikoak idaztea tokian datuak hartuta, plano eta aurrekontuak egitea, pleguak idaztea, segurtasun ikerketak egin, memoriak egitea, lanen segurtasuna eta osasun laborala aztertzea, egindako lanak koordinatu eta gainbegiratzeko, besteak beste.

> BIDAIA

Bartzelonara joango dira Abaroakoak irail erdialdetik

Bartzelonako Calellera joateko txangoa antolatzen dabilta Abaroa erretiratu etxekoak, irailaren 16tik 30era bitartean. Eta dagoeneko zabalik dago izenematea.

335 euro da bidaiaren prezioa eta joateko eta etortzeko autobusaz gain, hiru izarreko hotel batean egingo dute lo eta aisialdi jarduerak egongo dira bai egunez zein gauez, dantzaldiak barne. Bidaiaren prezioan sartuko da agintziak eskaintutako aseguruia.

Izenematea dagoeneko zabalik dago eta plaza guztiak bete artean egongo da izena emateko aukera. Hala, autobuseko lekuak izena emandako ordenaren arabera emango dira. Interesa edo informazio gehiago nahi dutenek erretiratuen etxera bertara jo beharko dute.

SANTA BARBARA PARKEA > ORAINDIK EZ DITUZTE LANAK AMAITU

Ehun zuhaitzetik gora bota dituzte garbiketara egiteko

Zuhaitzak, bai kopuruz zein garaieraz, larregi hazi eta arriskutsu bihurtzea ekidin gura da, Monterronen gertatu bezala

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Dagoeneko ehun zuhaitzetik gora bota dituzte Cespakoek Santa

Barbara parkean, garbiketara lanak egiteko. Hainbat txandatan egin dituzte mozketak eta oraindik ere saio batzuk falta direla argitu dute teknikariek. Joan den egunean egin zituzten mozketak azkeneko aldiz eta oraindik ere Otalora kalera ematen duen maldakoak falta dira. Bukatzeko geratzen direnak kendutakoan, txosten bat idatziko dute teknikariek, egindako lanaren berri jaso eta botatutako kopuru zehatza kalkulatu ahal izateko.

ZUHAITZ LARREGI

Udal teknikariek azaldu moduan, Monterronen gertatutakoa ekidin gura da Santa Barbara parkean. Zuhaitzak kopuruz eta garaieraz larregi hazi eta arriskutsu bihurtzea saihestu gura da. Era berean, enbor eta adarrak oraindik kentzeko daude. Monterron parkeko arbolei dagokienez datorren neguan berriak ipiniko dituzte, parkeko beheko aldean landatutakoak aurtengo udan lehortu egin dira-eta.



SEGURTASUNA Segurtasun neurri moduan botatzen dabilta zuhaitzak.

U.M.

ZERBITZUAK > GARIBAICO GUNEAN ATONTZE LANAK FALTA DIRA

Kultur etxeko eta Garibaiko lanak urrirako amaitu gura dituzte

Kultur etxeko eraikina prest badago ere, barneko instalazioak falta dira. Liburutegia, berriz, urritik aurrera aldatuko dute kultur etxe berrira



MARKESINA Azoka hartuko duen markesinari azken ukituak falta zaizkio. J. B.

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Abuztuan lanetan hainbat gora-behera izan eta gero, irail amaiera aurreikusten da Garibai inguru eta kultur etxe berriko lanak amaitzeko epe moduan. Bi gune-etatik, Garibaiko lanek daukate oraindik egiteko gehien. Irail amaierarako gura dute inguru guztia amaitu, eta, hain zuzen, azoka hartuko duen markesinari azken ukituak falta zaizkio. Azoka inguruak urbanizatu eta berdeguneak eta haurrentzako jolasparkea hastear daude oraindik. Bertarako sargunea San Juanetarako zabaldu bazuten ere,

osorik irail eta urri bitartean egongo da obra guztia amaituta.

KULTUR ETXEA ERE AURRERA

Seber Altuben, Frantziskotarren komentuan egiten dabilzan kultur etxeko eraikina amaituta

dago, baina oraindik barneko atontzeak falta dira (argindarra, igogailuak...), baimenen zain daude-eta. Liburutegiari dagokionez, urrira arte ez da leku aldaketa egingo, altzariak eta instalazioak ipintzeke daude-eta.

San Andres auzoko Etxaluzer baserria, botata

Abuztuko bigarren astean bota zuten Etxaluzer baserria, San Andres auzoan bertan Abaroa egoitza berria eta auzoaren elkartea eraikitzeko. Proiektua oraindik adjudikatzeko badago ere, hainbat eskaintza aztertzen dabilza Udalean. Hala ere, oso goiz jota urte bukaerarako hasiko dira egoitza eraikitzen.



HILERRIA > NITXOETAKO GORPUZKIAK

1996ko lehen seihilekoan lurperatuak hezurtegiira eramango dituzte

Gorpuzkiei beste irteera bat eman gura izanez gero, Udalean jakinarazi beharko da irailaren 30erako

lehenengo seihilekoan lurperatuak izan ziren hildakoen gorpuzkiak aterako" dituztela.

Era berean, jakinarazi dute gorpuzki horiei beste irteera bat eman gura bazaie, irailaren 30erako abisatu beharko dutela interesa dutenek udaletxean.

Hala, esandako epea baino lehen ez bada ezer zehazten adierazi dute San Kristobalگو hilerrian dagoen hezurtegi komunera eramango dituztela aipatutako gorpuzki horiek. Nitxoetan 1996ko lehen seihilekoan lurperatutako gorpuzkiek bakarrik eragingo die ohar horrek.

J.B. > ARRASATE

Urriaren lehenetik aurrera San Kristobalگو hilerriko nitxoetako gorpuzkiak aterako dituztela jakinarazi du Udalak. Ohar batekin zera adierazi dute udaletxetik: "San Kristobalگو hilerriko nitxoetan 1996. urteko

LUR JAUSIA > GERUZA ARTEKO TALKAK ERAGIN DU

Dagoeneko zabalik dago Ikastaundiko tunela

Astean tuneleko errefortzu lanak amaitu eta bidea ireki zuten eguaztenean

harra gertatu eta berehala hasi ziren domekan bertan bidetik lurra kentzen. Konponketa lanei dagokionez, eguaztenera arte 24 orduz ibili dira langilean errefortzua egiten. Horretarako, hormigoia bota eta metalzko sare-begia kokatu dute kaltetutako gunean

J.B. > ARRASATE

Ikastaundiko tuneleko alde bat domekan erori eta gero, astebururako garbi eta zabalik utzi dute bidea. Bidera eroritako lurra domekan bertan kendu zuten, baina konponketa lanekin aste osoan ibili dira. Hori dela-eta, Arrasateko noranzkoan tarteka eten dute zirkulazioa tunelean. Kaltea konpontzeko errefortzuak ipini dituzte eroritako aldean. Zehazki ez bada kite ere, Aldundiak egindako lehen azterketek diote aurka egiten duten bi geruzek talka egin eta sortutako ertz baten eragin duela erorketa. Hala ere ikerketa "sakonik" egin ez dutela ere adierazi zuten astelehenean igorritako prentsa oharrean. Bidera materiala erori bazen ere ez zen zauriturik egon ezta auto kalteturik ere. Ezbe-

Eguazten gauean amaitu zituzten garbiketa lan guztiak eta ordutik irekita dago erabat bidea, lau egunez itxita egon eta gero. Arrasaterako tunela egon zen itxita lanegatik eta Eibarrrerako noranzkoan *by-pass* bat ipini zuten, zirkulazioa antolatzeko.

"EZ DA LEHEN EZBEHARRA"

Partidu Popularrak salatu zuten "domekakoa ez da izan AP-lean gertatutako lehen ezbeharra" eta "jarraian gertatutako akatsengatik ardura" adierazi zuten Iñigo Manrique popularrak martitzenean, 2003an tunela eraikitzen zebiltzala gertatutako erorketa gogorra ekarritik. Aldundiari azalpenak eskatuko dizkiotela gehitu zuten Manriquek.



Zenbaki
Aholkulariak



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 / Faxa: 943 71 22 68

www.zenbaki.es / zenbaki@zenbaki.es



ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaia eta aulkiak

MUSIKA > BIHAR, ZAPATUA, MONTERRONEN KONTZERTUA, DOAN

Doctor Deseo eta Rafa Ruedaren musikarekin hasiko dugu ikasturtea

San Juanetan egin beharrekoaren ordainean izango da zapatuko emanaldia

Doctor Deseok eta Rafa Ruedak, biek hala biek, diskoak aurkeztuko dituzte

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Arrasateko San Juan jaiek badute zelanbaiteko zorte txarra. Monterron parke zoragarriaz baliatuta, bertan hainbat emanaldi antolatzen dituzte, baina azken urteotan eguraldiaren erruz horietako batzuk bertan behera utzi behar izan dituzte. Horieta-ko bat Doctor Deseo eta Rafa Rueda musikariek egin beharrekoa izan zen. Hala ere, Udalak iragarri zuen beste data bat jarriko zutela, eta hala egin dute.

Bihar, zapatua, izango da hitzordua, 22:30ean. Monterronen egingo dute eta doan izango da. Ikasturtea hasteko modu polita, bai horixe.

JAKIN-MIN HANDIA PIZTEN DU

Bilboko Doctor Deseo taldeak ibilbide luzea darama. Euskal Herrian talde gehienek punka



ESPEROTAKO KONTZERTUA Eguraldiak San Juanetan zapuztu zuen emanaldia emateko gogoz dator Doctor Deseo.

OIHUKA

egiten zutenean sortu zuten taldea, eta ordutik hona Bilbo hiriko *arima galduen* existentzia aldarrikatu dute, hitzak sexu, desio eta probokazioz jantzita. Musikari dagokionez, estilo asko-

tara zabalik daude, rocka, popa, tangoa, elektronikoa eta beste. Uda aurretik kaleratu zuten azkeneko lanak, *Detrás de los espejos rotos*-ek, hastapenetako ildoak berreskuratu du eta zaleek oso

ondo hartu dute. Francis Diez abeslari karismatikoak gidatutako taldeak jarraitzaile sutsuak ditu eta kontzertuek jakin-min handia pizten dute. Halakoa izango da, baita ere, zapatukoa.

Bilbotarren aurretik, Mungiako musikari bat arituko da: Rafa Rueda. Rueda ezagun egin zen Pilt metal talde indartsua gidatzeagatik. Talde horrek zeresan handia eman zuen, nahiz eta jende askok *Hil da Jainkoa* kantuegatik bakarrik ezagutu.

2000. urtearen bueltan, berriz, Rueda *Zaharregia, txikiagia* proiektuan sartu zen, Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin eta Bingen Mendizabalekin batera. Horrek beste doinu batzuetarako sena piztu zion. Metak diskoetxearekin bere bakarkako lana kaleratu zuen. Pop-rockean oinarritutako lana izan zen eta oso emaitza txukuna lortu zuen.

BAKARLARIEN SALTSAN

Pilt taldea alde batera utzi eta aipatutako musikari eta poeta hirukotearekin ibiltzeaz gain, Txuma Murugarren musikarierekin elkarlanean ere hainbat lan egin ditu.

Horrez gain, *Ehungarrenean hamaika* proiektu interesgarria gidatu zuen: Euskal Herriko hamaika musikari esanguratsuk omenaldi berezia egin zioten Lauaxetari, Rueda bera barne.

Une honetan, berriz, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratu duen *Saredun eskua* bigarren bakarkako lana aurkeztu dihardu. Monterronen eskainiko ditu bere kantu sentikor eta barnerakoiak.



IKER BARANDIARAN

Liburu eta disko denda zabaldu dute erdialdean

Aspaldi iragarri genizuen Arrasaten liburu denda bat zabalduko zutela. Hala jakinarazi ziguten Hire itxi zutenean denda horretako ugazabek, eta abuztuaren 10a ezker dago denda berri bat zabalik. Eroski merkataritza-etxean eta herriko beste dendaren baten liburuak saltzen dituzten arren, Hire itxi zutenean herrian ez zen halakorik gelditu eta herritar

askok igarri zuten halako zerbitzu baten hutsunea. Horrez gain, Discopolis itxi zutenetik ez zegoen herrian berezko disko dendarik.

Hori guztia jakinda, Elkar argitaletxeak liburu eta disko denda zabaldu du Erdiko kaleko 14. zenbakian. Liburu eta diskoek gain, aldizkariak eta bestelakoak saltzen dituzte saltoki horretan.

> KULTURA

Filmak barra-barra eta Kepa Junkera izango dira irailean

Irailekin batera, Udalak kultura programazioa abiarazi du. Hain zuzen ere, abuztuaren 10an Monterronen egin dituzten film emanaldiei jarraipena emango die.

Gaur, egubakoitza, *Los managers* komedia emango dute. Fernando Guillen Cuervo da lan horren zuzendaria. Gazte batzuek musika talde batekin aberastea erabakiko dute, eta hainbat pasarte bizi izango dituzte hori lortzeko. Filmak 103 minutuko iraupena dauka.

Datozen eguenetan eta asteburuetan film gehiago emango dituzte: *Piratas del Caribe*, *Kutsidazu bidea Ixabel*, *La sombra de la sospecha*, *Devuelveme mi suerte*, *Mala-bar princess* eta *Txorixak gal-duta egozian*.

Horrez gain, irailaren 16an Kepa Junkerak emanaldia egingo du Amaia Udal Antzokian.

Hizkuntza gehiago denontzat haur, gazte, helduentzat

txinera - frantsesa - alemana - ingelesa - italiera

Beste zerbitzu batzuk

- itzulpengintza eta interpretaritza
- ikastaro trinkoak
- murgiltze ikastaroak
- atzerriko ikastaroak
- ikastetxeko irakasgaietarako laguntza-eskolak

matrikula epea zabalik

Klaseak:

Aramaion, Aretxabaletan, Arrasaten, Eskoriatzan, Oñatin



Arrasate

Araba Etorbidea 4 ■ Tel.: 943 71 20 55
mlarrasate@mondragonlingua.com
www.mondragonlingua.com

Oñati

Olakua 14 ■ Tel.: 943 71 60 00
mloinati@mondragonlingua.com
www.mondragonlingua.com



Stepa

Aerobica



Fitnessa

Sasoi fisikoa hobetzeko programa pertsonalizatuak



Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71
943 76 30 05

GIARTZU
GIMNASIOA



Galileo

Ariketa eta terapia Galileo makinarekin • Indarra eta erresistentzia (handitu) • Tonu muskularra handitu • Fisikoa modelatu eta definitu • Odol-zirkulazioa aktibatu • Hezurak errekaltzifikatu

Gorka Zurututza > Mugarri Alkesa saskibaloitako entrenatzailea

"Hutsetik hasi behar dugu, ezin gara egon joan den urtean egindakoari begira"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Gorka Zurututzak (Oñati, 1978) lau garren denboraldia egingo du Arrasateko saskibaloitako taldea entrenatzen. Joan den urteko emaitza ona ikusita, aurten ere goiz hasi dira lanean. 17 lan saio egin eta gero hasiko dute Liga, iraileko azken aste-buruan.

Aurten ere goiz hasi zarete.

Bai, orain dela hiru urte kon-turatu ginen aurre-denboraldian lan handiagoa egin behar genuela, Gabonak arte makal ibili ginen-eta. Joan den urtean abuztuaren 20an hasi ginen lanean, eta denboraldian zehar igarri egin zen hori. Aurten errepikatu egin dugu, eta Liga hasten denerako 17 entrenamendu saio eta lagunarteko 3 norgehiagoka jokatu ditugu.

Zein berritasun dago taldean?

Lizarrako Anderrek, Mikel Biainek, Iban Herzogek eta Jago-ba Domingok taldea utzi dute, baina hainbat jokalaritoki etorri dira euren hutsunea betetzera. Aurreko urteotan EBA Ligan izan den Iker Liza zarautzarrak gurekin jokatu du, eta baita Gorka Eraña bergararrak ere. Horrekin batera, gazte mailako talde-tik igo ditugu Beñat Barberena, Antxon Hernandez, Imanol Zeziaga eta Aitor Zeziaga.

Aurtengo helburuen gainean galdetuta, baliteke taldeak



Zurututza pozik dago, taldea gidatzeko laguntzailea izango duelako aurten.

GOIENKARIA

joan den urtean egindako lan ona errepikatzeke presioa izate-ala?

Hori da neuk gura ez dudana, eta behin eta berriro errepikatzen nabilena. Hutsetik hasi behar dugula uste dut, ezin gara egon

joan den urtean egin genuenari begira. Partiduz partidu joan gura dut, umiltasunez, eta aparteko erronka berezirik izan barik. Hasteko, igoera faserara sailkatzea izan behar dugu buruan, lasaia-ngo ibiltzeko. Hori bai, urteak

aurrera egin ahala ez dizkiegu erronka berriei atea itxiko.

Aurten kontrarioek ez zaituztete berdintzen hartuko.

Argi dago hori, orain guri irabazteko motibazioa izango

dute-eta. Orain kontrarioek ondo dakite zelan jokatu dugun, eta joan den urtekoa eta gero, gu mendean hartzeko gogoz egongo dira. Kontuan hartu aurreko denboraldian bi partidu baino ez genituela etxetik kanpora galdu, eta hori errepikatzea oso gaitza da. Gure asmoa, baina, etxean indartsuak izatea da.

Entrenatzaile lanetan laguntzailea izango duzu aurten, hori da beste berritasun bat.

Bai, kostata baina lortu dut laguntzailea! Xabier Igartua oñatiarra izango dut ondoan. Gaztetan berarekin jokatu nuen Oñatin, baina belaunean min hartu zuen gero. Alohako maila txikitant ibili da entrenatzen, eta Arrasaten izango da aurten. Nik errebuka egiten dut lan, eta arratsaldean nabilenean Xabierrek gidatuko ditu entrenamenduak. Laguntza handikoa izango dela uste dut.

Noiz hasiko duzue Liga Txapelketa, eta non?

Irailaren 30ean jokatu dugu, Urdanetaren kantxan, Loiu. Normalean baino astebe-te geroago hasiko da aurten Liga, eta ondo datorke hori. Ea zelan hasten garen, eta aurten ere zor-te aldeko dugun, azken minutuetan, batez ere. Dena dela, orduan ere esan nuen taldeko giro ona izan zela joan den urteko arrakastaren gakoetako bat.

MENDIKO BIZIKLETA > EUSKADIKO OPENA

Jose Angel Lopez beteranoetan nagusi

Domekan egingo dute Euskadiko mendiko bizikletako openeko azken lasterketa Berrizen; Arrasatekoa lider da beteranotan

X.U. > ARRASATE

Jose Angel Lopez (Biciobsesion) da, beterano mailan, Euskadiko Openeko lider. Domekan egingo dute Berrizen Euskadiko Openeko azkeneko proba. Arrasatekoak, baina, ez du inongo estuasunik igaroko; hau da, lasterketan punturik eskuratzen ez badu ere, matematikoki dagoeneko Euskadiko txapeladuna da. Jose Angelek 52 puntu ditu sailkapenean,

eta atzetik datorren lasterkariarekin alderatuta, Arrasatekoak 18 puntuko alde du. Hala, Jose Lorenzo Esteban da bigarrena, 34 punturekin.

EDERRAKO SEI LAGUN

Jose Angelekin batera, Ederra taldeko sei ziklista dabilta Euskadiko Openean. Azken lasterketa aurretik, elite mailan, 12. postuan dago Iñigo Roldan aretxabaletarra, 14.a da Igor Baz arrasatearra eta 26. postuan dago sailkatuta Oscar Oncala arrasatearra.

Master 30 kategorian, berriz, 6. postuan dago sailkatuta Zigor Urain; 15.a da Igor Lazkano eta atzetik dator Felix Zugasti, 16. postuan sailkatuta. Hurrengo hitzordua irailaren 16an Gorlizen egingo duten proba izango da.



ARANTZAZU

Oñatiko beteranoek alde hartu dute

Joan den uztailaren 22an lagunarteko norgehiagoka jokatu zuten Oñatiko eta Arrasateko eskubaloitako jokalaritako beteranoek. Lanean batera dabilta hainbat lagunek antolatu omen zuten norgehiagoka hori, Angel Moralejaren esanetan, maiatzean hasi ziren saltsa-maltsan. Norghegiagokan oñatiarrak aurreratu ziren 23-20, eta aurreratu diogu, Gabonetarako itzuliko derbia antolatu gura dutelako, Iturripen. Orduan izango dute arrasatearrek errebantzarako aukera.

bote prontuen

Aitor Linazisoro > Goiko Leniz

"Furgonetiek aukera mordue emuten dau"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Aitorrek oin dala hiru urte zabaldu euen Goiko Leniz taillerra, eta Mercedes etxeko zerbitzu ofiziala ofreziduten daue bertan. Oin, gaiñera, furgonetak kanpiñerako prepartetako zerbitzue jarri daue martxan, eta bigarren eskuko auto eta furgonetak be badaukie saltzeko. Erretratue Aitorrei atara badutzou be, Haritzekin egin dou berba, harek erueten dau-eta furgonetan asuntue.

Mercedes marka eskusibue da. Ze moduz zabitzte?

Gama haundiko kotxiek bere bidetik jarraiketana daue, poliki-poliki, baiñe Mercedes etxie gama erdiko berlinak ataraten hasi da, eta jentie badabil holakuek eroatera animetan.

Horrekin batera, ondo ikusi dozue Vito modeluak ze joku emun ahal dauen.

Egixe da hamen furgoneta asko ikusten diela, eta erosketa logikue pentsetan jaku. Azken baten, gaur egun edozein automobillek balixo dau 18.000 euro, eta apur bat gehitxuau-gatik ixte barrixek dien furgonetak daukou; auto batek baiño aukera gehixau emuten daue.



Azaldu hori.

Furgoneta barrixekin batera bigarren eskuko furgonetak be daukou saltzeko. Holako furgonetek kotxien zerbitzue emuten daue eta, gaiñera, ohe bat ipinitte hara eta hona ibiltteko aukerie emuten daue. Hamengo gaztie hondartzara edo mendire jueten die asko, eta horregaittik ikusten die horrenbeste furgoneta. Gaiñera, kotxiek ez moduen, bigarren eskuko furgonetak ondo saltzen die, jentie eskatu eta eskatu dabil-eta.

Ikustekue da furgoneta batzuk zelan dauzen goitzik behera prepartaue.

Horreik be badaukou, gure dauenandako, baiñe garestixauek die. Furgonetiekin disfrutetako, baiñe, ez dau zertan 40.000 euro gastau. Horreik oso konpleto datoz, baiñe posible da furgonetie erosi eta gauzak poliki-poliki jarten juetie. Hona etorri besterik ez dau, eta ze gure dan ikusi: ohie, mueblik... Neurrire egitten dou dana, klientiek elegidu dauen materixala eta koloriek erabilite.

bere ustez



Ander Etxebarria

Bilbo, Gasteiz, Debagoiena, Donostia

Opor aurreko *Asteleheneko Goienkaria*-ren titular nagusiak zioenez, Debagoiena EAeko laugarren hiriburua izango da. Oporretan nengoela, loak hartu ezin nuen gau bero batean, ardiak beharrea ideia hori etorri zitzaidan burura. Hiriburua bada, EAeko hiriburuek daukaten jokamoldearen arabera, Debagoienak eskatuko luke bere aireportua, unibertsitate publikoaren beste kanpus bat, arte modernoko museo bat... Zeren eta konfederazio perspektibaz baino hurbileko

"Hiriburuek askotan ahazten dute beraietaz aparte ere bizia dagoela"

ikuspegiaz jokatzen dute behin baino gehiagotan.

Lurralde barrura begiratu, berriz, hiriburuek askotan ahazten dute beraietaz aparte ere bizia dagoela. Ekipamenduren baten inaugurazioan esan ohi dute, adibidez, "Gipuzkoak behar zuen". Izaera hori ez da erakundeetara mugatzen. Domeka pare bat dela, esaterako, ondokoa zekarren Gipuzkoan oso ezaguna den egunkari batek: *Los turistas inundan Gipuzkoa*. Eta hemengo kaleetan igarri ez!

Etxera bueltan, berriro heldu diot aldizkariari eta informazioa irakurritz ulertu dut hiriburu barik laugarren hiria izango dela Debagoiena. Beraz, ez dago "kapitalismoan" erortzerik, baina bai egoera hobetzerik.

hau be badaukogu



JONE BERGARETXE

Uribarriko bizilagunek ezin izan dituzte jaiak gura moduan ospatu

Garaia obrak hasi zituztenean bolatoki barik geratu ziren Uribarriko bizilagunak, eta Jone Bergaretxek esan digunez, "bolatoki barik ez dago Uribarriko jairik". Alde horretatik, leku faltan egon direlako ezin izan dituzte lehen egiten zituzten hainbat ekitaldi antolatu: "Umeen jola-

setan gazte asko izan ziren, baina mus txapelketa galdu dugu, bolo txapelketa...". Alde horretatik, datorren urterako jaiak ondo antolatzeko plaza bat gurako lukete. 92 urteko Luisa Kortabarria, baina, ez zen omenaldi barik geratu. Erretratuan, Udalan egindako bazkaria.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

BASATI TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

943 711768

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

INDUSTRIA-GUNEA > 2007AN JOANGO DIRA LEHEN ENPRESAK

Narbaiza botatzen hasi dira Mekolaldeko industria-gune berria eraikitzen hasteko

Tornilleria Deba enpresa hara joango da hurrengo urte bukaeran

Mekolaldetik Murinondorainoko industria-gune berria egingo dute

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Hasi dira Mekolaldeko Narbaiza ehungintzako enpresa zena botatzen industria-gune berria egiteko. "Asmoa da hortik Murinondoraino, Lazpiur enpresaraino, industria gune berria egitea, San Juan auzoan dagoen modukoa, eta lanak hasi dituzte dagoeneko", dio Josean Etxeberriak, Hirigintza zinegotziak. Usabiaga enpresako langileak ari dira eraikina eraisten, eta, bertako teknikari baten esanetan, astebetean botako dute eraikin osoa.



LEHENAK Tornilleria Deba Mekolaldera joandakoan, etxebizitzak egiten hasiko dira orain dagoen tokian, San Lorentzon. O.E.

TORNILLERIA DEBA

Narbaiza enpresa egon den tokian industria pabilioi bat baino gehiago egingo dituzte. Horietako baten, orain San Lorentzon dago-

en Tornilleria Deba enpresa kokatuko da. "Gu izango gara hara joaten lehenak. 8.000 metro koadro inguru izango ditu gure lantegi berriak eta hantxe egongo gara

lanean 65 langileok 2007aren bukaeran. Hemen baino zutabe eta oztopo gutxiago izango ditugu han", dio Pedro Muñozek, Tornilleria Debako gerenteak".

Jaietarako bukatu nahi dituzte frontoiko lanak

Datozen San Martin jaietarako bukatu nahi dituzte udal frontoia berriztatzeko lanak. Teiltatua konpondu dute dagoeneko, aldageletako berrikuntzak ere bukatzeaz dituzte eta datozen egunetan eserleku berriak jarriko dituzte; 688 eserleku berri guztira, egurrezkoak eta automatikoki batzen direnak.

Bestalde, Angiozarko frontoiko harmailetan sare bat jarriko dute pilotak kanpora ihes ez egiteko.



O.E.

> DIRULAGUNTZAK Euskara ikasteko dirulaguntzak eska daitezke

Begarako Udal Euskaltegi-tik kanpo euskara ikasten dutenendako eta UEUko ikastaroetan parte hartu dutenendako dirulaguntzak emango ditu Udalak. Irailaren 15a baino lehen eskatu behar dira dirulaguntzak azken ikasturtean edota aurtengo udan egindako ikastaroengatik. Horretarako inprimaki batzuk bete behar dira. Inprimaki horiek eta bestelako zehaztasunak eta informazioa, Udaleko Euskara Zerbitzuan dituzte.

> ISUNAK

20tik 301 euro arteko zirkulazio isunak jarriko dituzte gaurtik

Zirkulazio ordenantza berriak gaurtik, irailak 1, aurrera aplikatuko dituzte udaltzainek eta 20 eta 301 euro bitarteko isunak jarriko dituzte zirkulazio arau-hausteengatik. Gaizki aparkatzeagatik, kaskorik ez eramateagatik eta semaforoa ez errespetatzeagatik, adibidez, 100 euroko isunak jarriko dituzte. Isunaren jakinarazpena egin eta hurrengo 30 egunen barruan ordainduz gero, %30eko beherapena izango du zigorrak.

> HEZKUNTZA

Gaur zortzi hasiko dute ikasturtea Miguel Altunan

Gaur zortzi, hurrengo egubakoitzean, hasiko dute 2006-2007 ikasturtea Miguel Altuna Institutuan.

Ikasturte berriaren hasiera irailaren 8an izango da Heziketa Zikloetako ikasleendako. Areto nagusian dute hitzordua, 10:00etan, lehen mailako ikasleek eta 11:00etan bigarren mailakoek. Eskaintza Partzialeko ikasleek, berriz, hilaren 11n hasiko dute ikasturtea areto nagusian, 18:00etan.



Ile - apaindegia
Styloak

Monikaren izenean kofraixa jai zoriontsuak guztioi!

Osintxu 13 behea. Tel.: 943 77 70 57

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



SHOTOKAN KARATE-DO

11 urte karatea irakasten



KARATE , KIROLA ETA ZERBAIT GEHIAGO

Karatea kirolik berebiziko eta osoenetarikoa da, beste kirol asko baino onuragarriagoa baita alde fisiologikotik begiratuta .

HELBURUAK

Klubak epe luzera begira egiten du . Gure iritzi,funtsekoa da gure ikasleak kirolaren garrantziaz ohartzea (karateaz, kasu honetan) eta kirola egitearen onura guztiez kontzientzia hartzea .Horrez gain , kirola egiteko ohiturak sortarazten ditugu. Karatea kirol lehiakorra dela onarturik , geure ikasleak lehiatze-
ra ere bultzatzen ditugu pixkanaka , betiere era positiboan eta motibazioa handitzeko asmotan. Gure filosofian eta lan metodologikoan berebiziko garrantzia dute ez etsitzeak eta une oro hobetzen ahalegintzeak. Kirolariek , banaka edo taldean , erabat kontziente izan behar dute euren lorpenez eta euren helburuez , lagunartekotasuna , adeitasuna eta sexuen arteko berdintasunean erreparatuz .

AURTENGO BERRIKUNTZA: IKASLEEN GARAPENA NEURTZEKO PROGRAMA BERRI BAT JARRIKO DUGU ABIAN

Programa berri honekin ikasle bakoitzaren egoera fisikoa eta garapena neurtuko dugu. Bakoitzak ikusi dezan ze aukera dituen. Hiru hilabetetik behin txosten bat bidaliko diegu gurasoei, bertan ikasle bakoitzaren informazioa eta talde osoarena agertuko dira.

SHOTOKAN KARATE-DO KLUBA

Hamaika urte karatea irakasten . Kluba sortu genuenetik eguneroko lana eta irmotasuna izan dira geure lehenetsiak , eta hori dela eta zorionez urtero-urte-
ro lortzen ari gara kirol emaitza on mordoa. Hala ere, kirol arrakasta ez da garrantzitsuena , ez lehen ez orain . Ahalik eta ume gehienek lehia dezaten nahi dugu , baina emaitzei erreparatu barik.

Parte-hartzaileak garaile dira parte-hartze soilagatik.

IRAKASLEAK

Irakasle aditu eta gaituak ditugu edozein talderekin jarduteko . Guztiak tituludunak.

KARATEA : HAURTZARORAKO HEZIKETA OSAGARRIA

Karateak beste hainbat kirolek baino gehiago laguntzen du umeen heziketa-prozesua garatzen eta azkartzen . Osasun fisikoa eta psikologikoa hobetzen dituen gero , umeek atarramentu handiagoa lor dezakete ikasketetan eta gizarte harremanetan . Gure gizartearen geroari begira , beraz , karatearen ekarpenik onena kirolarien heziketaren garapen osoa izango da .

Karatean, Kontzentrazioa lantzen da, Errespetua eta gizatasuna bultzatzen dira, Konfiantza eta segurtasuna hartzen dira eta osasuna eta sasoi ona

Karate eskolak IRAILAREN 6an hasiko dira:

Umeak: 1. txanda, 17:30etik 18:30era
2. txanda, 18:30etik 19:30era

Nagusiak: 19:30etik 20:30era

Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora edo zatoz Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasia orduetan.



DANBORRADA San Martinak ere gainean ditugu eta danborradako entseguak datorren astean hasiko dira.

GOIENKARIA

JAIK > SAN MARTINEN ATARIAN

Kofraixak asteburuan Osintxun eta ospakizunak San Lorentzon

Rock kontzertua zapatu gauean Osintxun: Señor No, Fly Shit, Des-Kontrol eta Azkaiter Pelox

EDU MENDIBIL > BERGARA

Osintxun Kofraixak ospatuko dituzte oraingo aste bukaeran. Gaur arratsalderako paella lehiaketa deitu dute, 19:30ean, eta, era berean, Marokoko tea eta *krepak* dastatzeko aukera izango da. Gauean, Kupela taldearekin erromeria izango da, 23:30ean hasita. Bihar, zapatua, umeendako jolasak izango dira goizean eta 15.00etan herri bazkaria Osintxuko pilotalekuan, trikitalarien eta bertsolarien laguntzarekin. Gauean rock kontzertua izango da, Señor No, Fly Shit, Des-Kon-

trol eta Azkaiter Pelox-ekin. Azkenik, domekan, aizkolarien eta harri jasotzaileen saioa izango da, 12:30ean, jarraian dantza erakustaldia eta arratsaldean, pilota partiduak, 17:30ean.

San Lorentzon ere ekitaldiak iragarri dituzte zaturako: goizean hainbat txapelketa jokatu dira eta arratsaldean, 17:00etatik aurrera, kukainak, txokolate jana eta buru handiak. Ohikoa den moduan, iluntze alderako sardina jana antolatu dute eta ondoren Kintanillak alaitutako dantzaldia izango da.

DANBORRADA KO ENTSEGUAK

San Martin jaietako danborradak gertatzeko entsegu egunak honako hauek dira: 4 urtetik gorako gaztetxoendako irailaren 4an, 5ean, 6an, 7an, 11n, 12an, 13an eta 14an, Seminarioan, 19:00etatik 20:00etara (gerrikoa eramatea eskatzen dute). Nagusien entseguak egun eta toki berean egingo dituzte, 20:00etatik 21:00etara.

Era berean, gazta dastatze ikastaroa izango da irailaren 7an, kultura etxean, 19:00etan. Izenez 943 77 91 59 telefonoan. Bezeran, eguaztenean, *Euskadi Rural. Siglo XXI. Ezagutu eta eskertu* argazki erakusketa inauguratuko dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 12:00etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK > LEHIAKETA

Film laburren lehiaketa parte hartzeko epea irailaren 15era arte zabalik

Debagoienean bizi den edozeinek aurkez ditzake lanak, bakarka zein taldeka; 300 euroko saria irabazleentzat

E.M. > BERGARA

Film laburren lehiaketa parte hartzeko epea irailaren 15era arte izango da zabalik. Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuak deitu du lehiaketa eta Debagoienean bizi den edozeinek aurkez ditzake lanak, bakarka zein taldeka. Gaia librea da: film laburra, abesti baten bideo-klipa, iragarkia, irudi muntaia, esketza, dokumentala...

Lanak (VHS edo DVD formatuan) edozein hizkuntzatan

aurkeztu ahal izango dira Bergarako kultura etxean, Errotalde jauregian. Esan bezala, irailaren 15a izango lanak aurkezteko azken eguna. Gaztelania edo euskara ez den hizkuntza batean eginga badago, azpitu-luak izan beharko ditu. Bestela, bi hizkuntza horietako batean idatzita azaldu beharko da paperean.

ERABAKIA, IRAILAREN 29AN

Irabazleak 300 euroko saria jasoko du eta bigarren saria 250 eurokoa da. Lehenengo bi sarietan bergararrik egon ezan, bergarar onenari 100 euroko saria emango zaio. Epaimahaiaren erabakia irailaren 29an emango da aditzera, egun horretan egingo den sari banaketa ekitaldian. Argibide gehiago 943 77 91 60 telefonoan.

> ERAKUSKETA

Sahararen gaineko erakusketa zabalduko dute gaur Aroztegin, Bubisher elkartearen eskutik

Sahara. Herri bat; bi errealitate izenburuko argazki eta bideo erakusketa zabalduko dute gaur, egubakoitzea, Aroztegi aretoan, 19:00etan. Irailaren 17ra arte Saharako argazkiak eta Manu Izagirreraren bideoa izango dira ikusgai.

Aroztegi aretoaren ordu-egubakoitzea honako hau da: martitzetik egubakoitzera 18:30etik 21:00etara; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara. Domeketan, 12:00etatik 14:00etara.



Tea izenburuko argazkia.

Eurovisioneko irabazleak, Jamera urrian

Aurten Eurovision jaialdia irabazi duen Lordi talde finlandiarrak kontzertua eskainiko du urriaren 20an Bergarako Jam aretoan. Rock gogorra egiten du Lordik eta *The arockalypse* lan berria aurkeztuko dute Bergaran. Aipatutako diskoko *Hard rock hallelujah* abestiarekin irabazi zuten, hain zuzen ere, Eurovision jaialdia, joan den maiatzean. Madrilen eta Bartzelonan emango dituzte kontzertuak, eta, esan bezala, Jam aretoan urriaren 20an joko dute.



ASTELEHENEN GOIENKARIA



Infantil mailako karate eskola



Helduendako karatea



Boni Laskurain 3
BERGARA
943 76 35 71
943 76 30 05

GIARTZU GIMNASIOA



EASY LINE ZIRKUITUA
Lan zirkuituak: 30 minutukoa eta 45 minutukoa



Gosariak • Garagardo karta



Kana zuk zeuk atera!

Kartan:
berezitasun alemanak
(ukondoa, haragi-pastela,
saltxitxak,...), ensaladak,
arrazioak eta plater
konbinatuak.



PAULANER

Iparragirre 2
Bergara

Tel.: 943 53 43 68

Bierhaus



Terraza

Egunero irekita
Aste barruan 9etatik aurrera
Asteburuetan 11etatik aurrera



Pintxo hotz eta beroak

Amaia Zabaleta > Agorrosingo gerentea

"Gauza txiki asko eskainita, zerbitzu ona eman gura dugu"

XABIER URTZELAI > BERGARA

Kirol teknikari lanetan ibili den Amaia Zabaleta izango da Agorrosingo gerentea. Buru-belarri dabil egunotan, irailaren 16an inauguratuko dutelako Agorrosingo ekintza gune berria. Berritasun guztiengainean berba egiteko egongara berarekin.

Irailaren 16an inauguratuko duzue kiroldegia, baina lehenago baduzue zeregina.

Badago zer egin, bai. Gaur bertan ireki dugu Agorrosin ber-tan dagoen kirol arreta bulego berria, eta horrekin batera, gaur hasi da ikastaroendako izenemate epea.

Eta, zeintzuk dira kirol arreta bulegoaren berritasunak?

Batetik, lekuz aldatu dugula, Agorrosingo harrera aretoan egongo delako. Eta bestetik, ordutegia ere aldatu egin dugula. Hala, astelehenetik egubakoitzera arte 07:00etatik 22:00etara emango dugu zerbitzu hori, eta zapatu, domeka eta jai egunetan 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara egongo da zabalik.

Hori, baina, irailaren 18tik aurrera izango da.

Hori da bai. Hamabost egun hauetan ordutegi berezia izango dugu: 09:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:30era.

Zer egin ahal izango da kirol arreta bulegoan?

Beste gauza batzuen artean, ikastaroen gaineko informazioa jaso eta ikastaroetan izena eman

ahal izango da bertan. Bazkide egiteko tramiteak ere bulego horretan egingo dira, eta baita kantxak alokatu ere.

Dagoeneko hasi zarete ikastaroak antolatzen.

Lehen esandako moduan, gaur bertan hasten da ikastaroetan izena emateko epea, hilaren 14ra arte. Irailaren 15ean zozketa egingo dugu, eta hilaren 18an hasiko gara ikastaroekin.

Zozketaren kontua da beste berritasunetako bat.

Hala da bai. Lehen goiztiarren zebilenak ematen zuen izena ikastaroetan, eta batzuk kanpoan geratzen ziren. Gertatzen zen, baita ere, batzuek bi edo hiru ikastarotan ematen zutela izena, eta beste batzuek ezin zutela ikastaro bakarra ere egin. Orain, ordenagailu bidez egingo ditugu zozketak, eta erabiltzaile bakoitzak bi aukera egin ahal izango ditu.

Bazkideek abantaila izango dute zozketetan.

"Lehen goiztiarren zebilenak ematen zuen izena ikastaroan; zozketa egingo da orain"

"Kirola, kultura eta aisialdia batuko dituen ekintza gunea izango da Agorrosin"

Hala da bai. Bazkideen politika bultzatu gura dugu, eta horretarako, bazkideek hainbat abantaila izango dituzte. Zozketetan, adibidez, lehentasuna izango dute. Jakin, baina, ikastaroren baten itxaron zerrenda luzea baldin badago eskaintza handitzen ahaleginduko gara.

Agorrosin berriarekin, prezioek ere gora egingo dute.

Urtea amaitu arteko kuotan ez da igoera nabarmenik igarriko. Debagoieneko txartela dutenek ez dute ezer ordaindu behar, eta Bergarako txartela dutenek 15 egun izango dituzte doan. Orain bazkide egingo direnek izango dute igoera apur bat.

Datorren urtean izango dira igoerak. Bergara Debagoieneko txartelaren barruan egongo da?

Erabakitzeke dago hori, hemen go prezioek baldintzatuko dituzte eta gainontzekoen prezioak.

Agorrosinek autofinantziaketa du helburu. Zelan?

Besteak beste, bazkide kopurua igotzen. Horretarako jendea erakarri gura dugu hona, eta gauza txiki asko eskainita zerbitzu ona ematea da horretarako bidea. Bergarakoendako eta kanpotik datozenendako bilgune izan dadila, eta ez kirola egiteko bakarrik. Horretarako sortu dugu kirola, kultura eta aisialdia batuko dituen ekintza gune berria: taberna-jatetxearekin, ludotekarekin, ekitaldiendako aretoekin, taldeendako bilera gelek...



Amaia Zabaleta.

GOIENKARIA

SASKIBALOIA > LEHEN MAILAKO BI TALDE BERGARAN

Bruesak Ukrainako Kiev hartuko du irailaren 24an

Bergara Kirol Elkarteak lagunarteko partidu ezin erakargarriagoa antolatu dute irailaren amaierarako

X.U. > BERGARA

Saskibaloia bultzada eman guran antolatu du Bergara Kirol Elkarteak partidu hori. Hala, ACB Ligarako txartela lortu berri duen Bruesa CBG talde gipuzkoarrak eta Ukrainako Kiev talde-

ak jokatu dute hilaren 24an lagunarteko partidu, Labegaraian. Bergara Kirol Elkarte-ko Jokin Perezek eman dizkigu xehetasunak: "Bruesa mailaz igo zenean hasi ginen horrelako partidu bat antolatzeko asmoarekin. Asmoa saskibaloia bultzada ematea da, gazteen artean, batez ere. Bruesakoekin harremana dugu, eta arazorik egongo ez zela esan ziguten. Hala, Baskoniaren kontrako lagunartekoa antolatzeko hasi ginen, baina arrazoi ekonomikoak tarteko, ezin izan genuen Gasteizko taldearekin adostasunik lortu. Gero, Bilboko saskibaloia taldearekin egin



BRUES CBG Aguas de Calpe taldearen kontrako norgehiagokan.

GOIENKARIA

genuen ahalegina, baina Ligako lehenengo partidu elkarren kontra jokatu dutenez, atzera egin zuten bi taldeek. Azkenean, Bruesatik esan ziguten Kiev taldea Bartzelonan egongo dela aurre-denboraldia egiten, eta eurak ekartzeko aukera zegoela. Eta, gu oso pozik geratu gara".

BRUESA GIPUZKOAN BARRENA

Ez da talde donostiarrak Gipuzkoaren barnean jokatu duen lagunarteko partidu bakarra. Zaleak Donostiara erakartzea dute helburu; ondo dakite ibarreko saskibaloia zaleek Gasteizera joateko ohitura dutela.

Goienkaria

Egubakoitza / 2006ko irailaren 1a / GOIENKARIAren GEHIGARRIA / Arduraduna: Leire Kortabarria / Maketazioa: Oxel Arrieta, Iñaki Iturbe



Aretxabaleta

Andramaixak 2006

MIRARI ALTUBE

IOSU

harategia • taberna

Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08



ARGAZKITAN

Udazken giroa eta jende gutxi jaietan

Mexikar eta errusiarren ikuskizunak jarraitu zituzten gustura herritarrek



Aratz taldeko ordezkari Jokin Antxiak eta Lourdes Etxebarriak hasi zituzten jaiak, eta konfeti zaparrada jaso zuten herritarrek.

M.A.

MIRARI ALTUBE

Abuztu erdian ospatu zituzten Andramaixak aretxabaletarrek, baina udazken giroa izan zen nagusi lau egunetan. Herritarrek poliki-poliki hurreratu ziren jaietara, eta motel hasi ziren arren, koadrilen egunerako bete egin ziren kaleak.

Bezperan egiten duten mus txapelketan ohi baino bikote gutxiagok jardun zuen, 38k; abuztuaren 17an egiten den herri bazkarian, ostera, paella barik geratu ziren 20ren bat lagun. Hori bai, lasaitasun osoz bizi izan zituzten ekitaldi guztiak.



Meza nagusia Andramari eguneko meza nagusian izaten da udalbatzarra eta aurten Aldundiko ordezkarien bisita izan zuten. Joxe Joan Gonzalez de Txabarri diputatu nagusiak eta beste bi kidek -tartean Koldo Azkoitia aretxabaletarra- egin zieten lagun. Aralar alderdiko zinegotziek, ostera, ekitaldi ofizialetan ez zuten parte hartu gura izan; hau da, Ikurrinaren agurrean eta meza nagusian.



Omenaldia Aretxabaleta Kirol Elkarteak antolatutako omenaldi beroa jaso zuen Joxe San Migelek. 17 urte inguru herriko pilotari gazteak entrenatzen ibili da San Migel, eta UDAko presidente Jokin Antxiak urrezko intsignia ezarri zion, egindako lana eskertzeko. Herritar asko elkartu zen Iturrigorri frontoian, eta txalo zaparradarekin saritu zuten bai Joxe, bai haren emazte Maria Josefa.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448

%50_{eko}
beherapena
matrikula
berrietan.
Informa
zaitez!



Zainduz

Irailaren 4tik aurrera berrira zuekin
Matrikula zaitez!
Tel.: 943 71 27 92
Aretxabaleta



ARGAZKITAN



Txosna-gunea bete egin zen Des-Kontrol ikusteko.



M.A. Herritarrek ere hartu zuten parte *Tetrap* antzerkian.



M.A. Mexikarren doinu eta dantzak gustura entzun zituzten.



Errusiatik zuzenean Stavropol Cossacks Errusiako folk baletak artisau produktuak saltzeko postuak jarri zituen ikuskizunaren aurretik, eta euri zaparrada atertu zenean ekin zion dantza ekitaldiari. Abesti berezi eta dantza ikusgarriekin gozatu zuten Herriko Plazara hurreratutako herritarrek. Bien bitartean, Bengoetxea VI.a eta Begino bikotearen eta Retegi II.a eta Belokiren arteko pilota partidua ikusten zeuden beste batzuk frontoian.



Zezentxoak umeentzat Sokamuturra egun bakarrean jarri zutelako haserre ziren batzuk, baina umeak gustura, eurentzat moduko entzierroa izan zutelako. Lehenengo kalean bueltatxo eta gero errekortadoreen lana ere egin behar. Herri bazkaria, bestalde, arkupeetan egin zuten lehenengo aldiz, eta jende asko edo gose handia, ez dakigu zein izan zen, baina paella barik geratu ziren koadrila batzuk. Bazkalostean giro bikaina sortu zen jaiei agur esateko.



GUREA TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64

INGELES FRANTSESA

2006 - 07 IKASTURTEA

MAILA ETA ADIN GUZTIAK



b **berbetan**
HIZKUNTZ ESKOLA

MATRIKULA EPEA IRAILAREN 4TIK 22RA

BULEGO ORDUTEGIA 16:30ETIK 19:00ETARA

BERBETAN HIZKUNTZ ESKOLA
BELORRIETA, 4
20550 ARETXABAETA
TEL./FAXA: 943 79 0069



AZKARATE
aroztegia



Arotz lanetan behar duzun guztia




- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak



Goienkaria

Egubakoitza / 2006ko irailaren 1a / GOIENKARIAren GEHIGARRIA / Arduraduna: Leire Kortabarria / Maketazioa: Oxel Arrieta, Iñaki Iturbe



Gatzaga

Andramaixak 2006



alkatearen agurra

Joxerra Perez

Hemen dira Andramaixak

Berriz ere Andramaixak ospatuko ditugu, puzgarri, musika, adardunak eta abarrekin.

Jai giroan murgildu gaitezen ongi pasatzeko asmoz.

Aldez aurretik eskerrak eman antolatzaile eta laguntzaileei, animatuz beste guztiok jaietan parte hartzen eta korporazioaren aldetik

Ondo pasau Andramaixak!

JAIETAKO EGITARRAUA

Eguena, 7

18:00 JAIEN HASIERA. Raflen ezkil emanaldia, etxafleroak eta bonba japoniarrak.

19:00 NOBENA Dorletako Santutegian, Eskoriatzako Abesbatzarekin.

Nobena eta gero, gazta eta ogi-jana izango dira joan direnendako.

Egubak., 8

11:30 OTXANDIARRAK iritsiko dira Gatzagara, eta herritarrek ongietorria egingo diete.

12:30 MEZA NAGUSIA entzungo dute Dorletako Santutegian. Eskoriatzako Abesbatzak kantatu egingo du.

Segidan, herriko TRIKITALARIEK emanaldia egingo dute.



Mus txapelketa, zapatuan.

17:30 OTXANDIARREN ETA GATZAGARREN arteko lehia izango da, txikien zein helduen artekoa: pilota partiduak eta beste txapelketa batzuk jokatuko dituzte.

23:00 ROCK KONTZERTUAK, honako taldeekin:

- 23F
- Arian Rock
- Recinto 19
- Enboskada

Goizaldera arte izango dira kontzertuak.

Zapatua, 9

05:00 ADARDUNAK ETA PONIAK izango dira goiztiarrendako, gau-pasa egin dutenendako eta zaleendako.

10:00 HERRI KIROL erakustaldia egingo dute, honako kirolekin:

- Trontza
- Txinga-erutea
- Artaburuak
- Zaku lasterketa
- Junkura jokoa
- Lasto altzaria
- Soka-tira
- Orga jokoa
- Fardo jaurtiketa

11:30 ZEZEN TXIKIAK ETA PONIAK.

12:30 TRIALSIN erakustaldia egingo dute.

Horrez gain, Arrasateko gaitariekin POTEOA egiteko aukera izango da.

16:00 MUS TXAPELKETA jokatuco dute zaleek.

Horrez gain, ordu berean, UMEENDAKO



Pilota partiduak, hilaren 10ean.

JOLASPARKEA zabalduko dute, honako jolasekin: bi puzgarri, ohe elastikoak eta quads-ak.

21:00 HERRI AFARIA.

23:30 DRINDOTS taldearekin dantzaldia eta jaialdia.

Domeka, 10

09:30 IV. MENDIKO BIZIKLETA zeharkaldia, umeen eta helduen kategorietan.

13:30 HERRI POTEOA trikitilariekin.

17:30 PILOTA PARTIDUAK.

Segidan, DANTZALDIA Gora taldearekin.

Domeka, 17

14:30 ERRETIRATUEK batera bazkaltzeko aukera izango dute.



Gozatu
Andramaixak!



LABIDEA



San Miguel plaza 1, 3

20530 Leintz Gatzaga

Tel.: 943 71 47 92

AIPAGARRI

Trial erakustaldia egongo da jaietan

Bestalde, domekan, IV. mendi bizikleta zeharkaldia izango da

ARANTZAZU EZKIBEL

Aurtengo Andramari jaietan bizikletaz gozatzeko aukera zabala egongo da. Munduko junior txapeldunaren trial erakustaldia eta mendi bizikleta zeharkaldia izango dira aukeran.

Jaietako berrikuntzetako bat trial erakustaldia izango da. Hitzordua zapaturako da, Malkorre plazan.

Diego Barrio, munduko junior txapelduna, izango da erakustaldian. Gasteiztarrak bizikletaren gainean duen abilezia erakusteko aukera izango du. Laguntzaile lanetan, Aretxabaletako Markel Uriarte izango du.

MENDI BIZIKLETA ZEHARKALDIA

Domekan, 40 kilometroko mendi bizikleta zeharkaldia izango da. Parte hartu nahi duenak frontoian eman beharko du izena egunean bertan. Izena ematean kamiseta bana jasoko dute parte hartzaileek eta probaren bukaeran hainbat produkturen zozketan parte hartzeko aukera izango dute.



Aretxabaletarrek ere parte hartuko dute erakustaldian.

GOIENKARIA

Mendi bizikleta zeharkaldia herriko pilotalekuan hasiko da goizeko 9etan, eta inguruko mendietan zehar 40 kilometroko ibilaldia egingo dute



Antolatzaileek espero dute afarira 200 pertsona inguru joango direla.

GOIENKARIA

Andramari egunean herri afaria egingo da

lazko arrakasta ikusita, aurten ere herri afaria egitea erabaki dute jaietako antolatzaileek

ARANTZAZU EZKIBEL

Herriko jaietz guztiek gozatzeko, hilaren 9an II. Herri Afaria egongo da herriko pilotalekuan.

Andramarietako egun nagusia borobiltzeko herri afaria egingo dute, zapatuan bertan, Gatzaga-ko Udal Pilotalekuan.

Bertaratu nahi dutenek Labidea, Ostatu eta Arrate taberne-

tan izango dituzte txartelak salgai 10 euroren truke. Gaztetxoek 6 euro ordaindu beharko dute.

DRINDOTS TALDEAREKIN MUSIKA

Orain arte bazkaria egiteko ohitura zegoen, baina oso jende gutxi animatzen zenez, iaz afaria egitea erabaki zuten. Eta afariak izan zuen arrakasta ikusirik, aurten ere errepikatzea erabaki dute.

Afalostean, Drindots taldearen eskutik musika jaialdia egongo da. Antolatzaileek jendea afarira joatera animatu nahi dute.



Debagoienako baserriko barazki eta fruta kontserbak

ONDO PASA JAIXAK!


JAKION S.L. • San Migel plaza 4 etxabea. • 20530 Leintz Gatzaga
Tel.: 943 71 46 86 • Faxe: 943 71 30 22 • E-posta: jakion@euskalnet.net





sormen o d d
i n d u s t r i a l d e s i g n

Andramari jai zoriontsuak!!



*"Leintz Gatzagako Udalak
Andramaixa zoriontsuak
opa dizkizue gatzagar guztioi"*

argazki zaharra

Debako hondartzan eguzkitan

Udako oporrak amaitu dira askorendako, baina udako paisaia tipiko bat ekarri dugu erretratu zaharraren tartera: hondartza, hain zuzen ere.

Debako hondartzan orain dela 35-40 urte inguru ateratako argazkia da. Garai hartan trenez joaten ziren gehienak hondartzara; goiko geltokitik irtetzen ziren tren hartuz gero, Maltzagan aldaketa egin behar izaten zuten, eta behekoan hartuta zuzenean Debara. Udarako autobusak ere ipintzen omen zituzten. Gaur egun ere gazte koadri-la bat baino gehiago ibiliko da argazkikoak bezala inguruko hondartzetan..

Erretratuan, ezkerretik eskumara: Iñaki Lazpiur, Felix Idigoras eta Jose Ignacio Pombar.

Argazkia: Arantxa Elortza.
Testua: Irati Agirreazaldegia.
Urtea: 60ko hamarkada.



ELIZA

Juan Kruz Mendizabal, apaiz berria

Gazteekin lan egin eta eliza suspertu nahi du

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Irailaren 30ean egingo du sarrera-meza Santa Marina-ko elizan Juan Kruz Mendizabal abade berriak. Ormaiztegi-ko abade izatez, eta, 1992an abadetu zenetik, Tolosan eta Donostian jardun du abade lanetan, baita Gipuzkoako gazte pastoraltzako ardura ere. Hain zuzen, elizako giroa suspertu eta kalean presentzia izan nahi ditu, baita gazteekin lan egin ere.



Juan Kruz Mendizabal.

I.A.



Erresistentzia kirola eta kaloriak erretzea (hainbat maila)

Giartzu, spinning-eko zentro ofiziala



Zirkuitu kardiobaskularra eta aerobikoa



Boni Laskurain 3

BERGARA

943 76 35 71

943 76 30 05

GIARTZU
GIMNASIOA

HIRIGINTZA > BIDEGORRIAREN LANAK

Trenbidearen ibilbidea errespetatuta egingo dute bidegorria herri barruan

Lanak egiteko deialdia egin zuen joan zen astean Udalak, eta hiru hilabeteren buruan egin gura du 192 mila euroko aurrekontua duen bidegorria

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Uztailaren 10ean egindako osoko bilkuran onartu zuen udalbatzarrek bidegorriarekin aurrera egitea, eta dagoeneko jarri du prozesua martxan.

HERRI BARRUKO TARTEA

Aretxabaletako bidegorria zatika egiten dabilta. Zatitxo bat eginda dago dagoeneko, CVL lantegi parean, eta beste zati bat egiten Aldundia dabil, Arrasate eta Aretxabaleta arteko pasabidea hain zuzen. Pasabidetik CVLrainokoa ere Aldundiak egingo du, eta datorren astean dauka alka-



BIDEGORRIA Copreci pareko tarteari oinarritzko egokitzapenak egingo dizkiote, San Martingo garapenaren zain.

M.A.

teak batzarra Errepide sailekoekin zehaztasunak aztertzeke.

CVL lantegi paretik Eskoriatzara bidean dagoen tuneleraino-

ko tartea, hau da, herri barrutik pasatuko dena, Udalak egingo du. 192.486 euroko aurrekontua aurreikusi dute, eta hiru hilabe-

tean egin gura dituzte lanak, ahal balitz negua baino lehen. Lehen-go trenbidea aprobetxatuko dute ahal den tarte guztietan bidego-

rria egiteko. Bestalde, Copreci lantegi parean dagoen San Martin zonaldearen garapena aurreikusita dago, hortaz, tarte horretan oinarritzko egokitzapenak besterik ez dituzte egingo. Hori horrela, argiteria eta ura eramateko sistema berririk ez dute jarriko urte batzuk barru apurtu egin beharko dutelako. Gainera, Coprecik argituta izaten du trenbidea eta ura eramateko bidea badago.

BIZIKLETENTZAT

Bizikletentzat egitea bidegorria da helburua Aretxabaletan. Eskoriatzako tarte batzuetan bide bat dute oinezkoentzat eta beste bat bizikletentzat, baina gurean ezin da halakorik egin tokirik ez dagoelako. Tuneletik Eskoriatzara ino dagoen tartearen ardura Bidegik hartu zuen bere garaian, autobidearen ordain gisa, eta aurten egiteko konpromisoa dauka. Tarte horretatik hain zuzen, tranbia pasatuko da urte batzuk barru, eta ez da egongo bi bide egiteko tokirik.

URKULU

FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK



hurbila eta profesionala

Torrebaso Pasealekua, 16 • 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tel. 943 71 30 30 • Fax 943 71 25 55 • urkulu@cadena88.com
www.urkulu.com

ANDRAMAIXETAN,

GATZAGAR GUZTIEI

ETA KANPOTIK BISITAN DATOZENEI

ZORIONAK!



HIRIGINTZA > PROIEKTUAK IDAZTEKO DEIALDIAK

Herriko Plaza eta arkupeak egokitze proiektua egingo dute

Hornikuntza eta saneamendu lanak egitea da helburua eta herritarren bilgune bihurtzea plaza

Udalerria antolatzeko proiektua ere egingo dute, herriak izango duen garapena zehazteko

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Herriko Plaza eta bertako arkupeak birmoldatu gura ditu Udalak. Helburua da hornikuntza eta saneamendu lanak egitea, eta hori aprobetxatuta moldatu egingo dute. Izan ere, arkupeen egoera ez da batere ona: hainbat lekutan zorua jasota dago eta bustitakoan benetan arriskutsu bihurtzen da. Gainera, erabilera eskasa du plazak.

HERRITARREN BILGUNE

Saneamendu lanen proiektua aurkezteko egin du deialdia Udalak, eta 36 mila euro aurrekusi ditu horretarako. Ur hodiak aldatu ostean zer-nolako bukaera eman plazari zehaztu barik daukate Hirigintza Sailean. Hala ere,

badakite herritarrek elkartzeko gune aproposa izango litzatekeela, gaur egun Durana kaleak betetzen duen funtzioa.

Bestalde, Mitarte kaleko hornikuntza eta saneamendu plan berezia ere egin barik dago. Horregatik, proiektua idazteko laguntza teknikorako deialdia egin du Udalak. Proiektua idatzi oraindik ez dakite datorren urteko aurrekontuan sartuko duten edo ez, hainbat kontu aztertu beharko dituztelako: lanen aurrekontua eta Otalora kaleko lanak zela dauden, esaterako.

ARAU SUBSIDIARIOAK BERRIKUSI

Beste ohar bat ere argitaratu du Udalak GAOn: udalerria antola-



PLAZA Arkupeak arriskutsuak dira bustitakoan eta erabilera eskasa du plazak. M.A.

tzeko plan orokorra idazteko aholkularitza eta asistentzia teknikorako deialdia. Arau subsidiarioen berrikuspena da, plan orokor berria egiteko helburuarekin,

eta 141 mila euro jasoko ditu hautatuak. Aretxabaleta etorkizuneko zela garatzea komeni den edo zelakoa izan behar duen zehaztuko du plan orokorrak.

> UDALA

Lanpostu bi betetzeko azterketak irailean dira

Lanpostu birako deialdia egin zuen Udalak orain hilabete batzuk. Diru-bilketa eta idazkaritzako administrari plaza betetzeko izan zen deialdi bat, eta onartutako zerrenda ikusgai dago abuztuaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. 52 dira guztira, eta dagoeneko azterketa data zehaztuta daukate: irailaren 6an, eguaztena, izango da lehenengo proba kirol etxean.

Beste deialdia euskara teknikari plaza betetzeko izan zen, hala, bigarrena izango du Aretxabaletako udaletxeak. 51 lagun onartu dituzte eta zerrenda ikusgai dago abuztuaren 21eko GAOn. Deialdi bietako azterketak zuzenduko dituen epaimahaiak, bestalde, osatuta dago, eta Arri txu Oliden alkatea izango da bietan lehendakaria. Berarekin egongo dira idazkaria, Udaleko langileen ordezkari Martin Garai, HAEEko ordezkariak eta Udaleko kontu-hartzailea eta Euskara teknikaria. Bigarren lanposturako azterketa data oraindik ez du zehaztu epaimahaiak.

> HIRIGINTZA

Saioa Llodio da Hirigintzako erdi mailako teknikaria

Saioa Llodio Urribetxebarria arrasatearra da Udaleko Hirigintza Saileko teknikari berria. Bederatzi lagun aurkeztu ziren lanpostua eskuratzeko azterketak egitera apirilean eta bigarren postuan geratu zen Saioa. Lehenengoak, baina, ezetza eman zuen eta Saioa izendatu du oraintsu Gobernu batzordeak Hirigintzako langile.

Dagoeneko hasi da lanean Saioa, Jose Mari Segovia Hirigintza teknikariaren alboan hain zuzen, eta hainbat betebeharrak izango ditu, tartean ingurumenarekin zerikusia duten proiektu eta egitarauak aurrera eramatea, zaraten kontrola eta neurketa, eta lan txiki zein handien berri ematea.

Abuztu hasieran bota zuten Lausitta kaleko CVLren egoitza

Urte askoan Cerrajera Valle Leniz lantegiko egoitza izandako eraikina abuztu hasieran bota zuten. Aretxabaletako iparraldeko sarreran dauka egoitza orain lantegiak, eta Lausitta kaleko eraikina hutsik zegoen.

Etxebizitzak egingo dituzte lantegia egondako lekuan, 121 inguru. Hala, kirol etxetik Lausittaraino etxeak izango dira errekaren beste aldean, eta bertatik pasatuko da tranbia.



M.A.

ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Obra eta proiektuen kudeaketa integrala



Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

Basabe poligonoa 4, EQ-11 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 51 / 608 77 28 67 / 679 45 57 64
construlan@euskalnet.net www.construlansl.com

> GAZTEAK

Gazte elkartegintza bultzatzeko laguntza emango du Udalak

Gazte elkartegintza eta elkar-teen arteko proiektuak bultzatzeko dirulaguntza deialdia argitaratu du Udalak. 5 eta 30 urte arteko herriko gazteei bideratutako proiektuak dituztenentzat izango dira laguntzok, eta baldintza bi bete beharko dituzte eskaeraz: irabazi asmorik gabeko elkar-teen izatea, nortasun juridiko eta guzti, eta Aretxabaletan helbideratuta egoteaz gain Jaurlaritzako elkar-teen erregistroan inskribatuta egotea.

Laguntzak Gazteria Zerbitzuak emango ditu, eta 4.000 euro bideratu dituzte hautatutako proiektuen artean banatzeko. Eskaerak urtea bukatu aurretik aurkeztu behar dira udaletxean. Argibide guztiak abuztuaren 3ko GAOn azaltzen dira.

> GAZTEAK

Gaztelekuan zerbitzua emateko dei egin du Udalak

Atxagazte gaztelekuan ematen duten zerbitzua kontratatzeke dei egin du Udalak. Iaz jarri zuten abian gaztelekua eta 12 eta 16 urte arteko gazteentzat zabaltzen dute asteburu eta jaiegunetan. 42.000 euro bideratu ditu Udalak zerbitzua kontratatzeke eta eskaerak udaletxean jasoko dituzte. Argibide gehiago gura dituenak abuztuaren 29ko GAOn dauzka.

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ERROMESALDIA > ARETXABALETARRAK ARANTZAZURA

Astelehenean, bai udalbatza, bai herritarrek Arantzazura erromes

Garai bateko ohiturari eutsiz, iraileko lehenengo astelehenean joaten dira aretxabaletarrak

Aralar alderdikoak joango dira, baina ez dute hartuko parte ekitaldi ofizialean

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Astelehenean, irailak 4, herritar ugari hurreratuko da Arantzazura. Batzuk oinez, eta beste batzuk autobusean udalbatzarreko kideak eta herritarrek elkarren ondoan izango dira.

ARALAR BERE ALDETIK

Amabirjinaren bederatziruena ospatzera joango dira, eta aretxabaletarrek iraileko lehen astelehenean joateko ohorea daukate. Udalbatzarreko kideak, alkatea buru dela, joan ohi dira herritarren ordezkari.

Aralar alderdiko zinegotziak aurten ere joango dira –eguraldia lagun badute oinez– baina ez dute parte hartuko ekitaldi ofizialean. Pasatu berri diren

Andramaixetako ekitaldietan ere hala egin zuten –ikurrinari agurra eta meza nagusia–, eta orain ere ekitaldi ofizialek kanpo geratu gura dute. Aralarko zinegotzien esanetan, oso larria izan zen Sarasua gobernu batzordetik botatzea alkateak, eta halako ekitaldietan ezer gertatu ez balitz bezala jokatzek ez dauka inolako zentzurik.

ERRETIRATUAK NAGUSI

Erretiratuak izango dira nagusi Arantzazun Basotxo elkar-teen autobusa antolatu duelako urtero moduan. Meza ostean bazkaltzen geratuko dira gehienak, baita udalbatzarreko kideak ere. Azken hauek Zelai Zabal jatetxean egitea bazkari pasada da ohi-



UDALBATZARRA Aralarko zinegotziak ez dira egongo ekitaldi ofizialean.

A.L.

tura, eta alkate eta zinegotziekin batera Udaleko teknikari batzuk, idazkaria eta udaltzain burua tar-tean, eta herriko parrokoa egon izan dira. Arantzazuko aba-

de nagusia izaten dute lagun guztiek. Aurten, baina, zinegotzi gutxi izango dira bazkarian eta oraindik ez dakite urtero moduan egingo duten edo ez.

Aozaratzako eliza-aurrea konpondu eta berrituko dute

Konpontzeke eskaera Aozaratzako auzo alkateak egin zuen iaz, eta Udalak onartu egin dio. Ura jasotzeko modurik ez daukate eta putzu asko sortzen dira bai eliza aurrean, bai hilerrirako bidean euria egiten duenean. Horrekin batera argiteria publikoa ere sartuko dute auzoan. Lan horiek guztiak egiteko 97.474 euro aurreikusi ditu Udalak, eta behin hasita hilabete eta erdian bukatzea gurako luke.



M.A.

L. GONZALEZ

M A R G O A K**Pintura orokorra
eta papereztatua**

Basabe poligonoa F6 ARETXABALETA Tel.: 686 113 581

Goio Eskibel > San Biatorren erlijiosoen bikario nagusia

"Erretiroa hartu beharrean bikario nagusi izendatu naute, biatoristen artean bigarrena"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Uztailean hautatu zuten biatoristen bikario nagusi, eta domekan izendatuko dute Frantziako Vourles herrian karguari zin eginda. 64 urte ditu Goio Eskibelek, eta hurrengo sei urteak Erroman pasatuko ditu.

Zer da bikario nagusi izatea?

Biatoristen artean munduko bigarrena izatea. Jeneral nagusia da lehena, estatubatuarra da bera, eta ondorengoa naiz ni. Bost laguneko taldetxo bateko buru gara biok.

Ardura gehiago eta handiagoak esan gura du horrek?

Domekan joango naiz Erromara eta orduan hasiko gara lana antolatzen. Munduko biatoristen ardura izango dugu, eta Aita Santuarekin hartu-emanak ere geuk izango ditugu.

Asko zarete biatoristak?

800-900 inguru, euren artean 300 laikoak, hau da, erlijiosoak ez direnak. Ozeanian izan ezik gainerako kontinenteetan gaude, hortaz, bidaia asko egin beharok ditut seguru asko.

Eta ulertzeko arazorik ez duzu izango?

Bai, 64 urterekin hizkuntzak ikasten hasi beharko naiz; erronka bat da eta ez naiz baldertzen. Euskara, espainola eta frantsesa ondo dakizkit, baina italiara beharko dut Erromako batzararak jarraitzeko eta ingelesa munduan ibiltzeko.

Baina aurretik ere izan duzu arduraren bat, ez da?

Bai, zortzi urtean Espainiako arduraduna izan nintzen Madrilen. Azken bi urteotan, baina, irakasle izan naiz Gasteizen daukagun ikastetxean.

Eskoriatza, Aretxabaleta eta Arrasateri lotuta egon zara.

Bai, oso lotua. Arrasateko parrokiako abesbatzaren zuzendari izan naiz orain arte. Madri-

lera joan aurretik Eskoriatzako Gorosarri abesbatzako ere izan nintzen. Gainera, Arrasateko kabalgatan urtero parte hartu izan dut, Madrilen egonda ere bai, eta Erromatik ere etorri gurako nuke.

Eta biatoristek ere indar handia izan zenuten Leintz bailaran.

Bai, Eskoriatza eta Arrasaten batez ere. Orain bik bakarrik egiten dute lan bailaran Angel Ipiñak Eskoriatza eta Aretxabale-

tako parrokiatan eta Urrutiak Eskoriatzako hainbat auzoetan mezak ematen.

Izendapena garrantzitsua da eta herritarrek ulertzen dute?

Jakin badakite prentsan agertu delako. Ulertu? Kargu garrantzitsua dela dakite, "Erroman gainera, Aita Santuaren alboan" esaten dute, eta nik uste harro sentitzen direla herriko lagun bat hara iritsi delako.

Kristau erlijioa ez dago baterre indartsu. Elizak aldatu beharra dauka?

Erabat, 180 graduko buelta eman beharra dauka. Baina Erroman daudenak oso nagusiak dira, hortaz, urteak pasatu beharko dira aldaketak ikusteko. Atzetik gatozen batzuk oso kritikoa gara, baina halakooi sarritan ez digute entzun gura. Urteak ez, mendeak pasatu beharko dira eliza aldatzeko eta guk ez dugu ikusiko; ondorengoez, ordea, bai.

"800-900 biatorista daude munduan eta guztien ardura izango dugu"

"Elizak 180 graduko buelta eman beharra dauka, mendeak pasatuko dira ikusteko"



Amaren etxean egin ditu egun batzuk Eskibelek, eta joan berri da Erromara. M.A.

MUSIKA > AKORDEOI ORKESTRA

Udazkenerako kalean du diskoa Akordeoi Orkestrak

Sei abesti izango ditu diskoak eta aurkezpen ekitaldia herrian bertan egingo dute

gogorra ere bai, ordu asko sartu genituelako bi egunetan", argitu digu orkestrako zuzendari Juanjo Orobengoak. Datoren astean nahasketak egiteko joan beharko dira estudio-ora, eta ondoren itxaron egin behar diskoa kalean ikusteko: "Trail bukaerarako izan daiteke, baina auskalo ez dago gure eskuetan eta".

M.A. > ARETXABALETA

Uztaileko azken egunetan grabatu zuen diskoa Akordeoi Orkestrak Elgetako Espaloia kafe antzokian. 21 lagun elkar-tu ziren, 17 akordeoilari eta 4 perkusio-jole eta zortzi ordu grabatu zituzten. "Esperientzia berria izan zen guztiontzat eta

Sei abesti izango dituen diskoa izango da, era askotako abestiak. Aurkezpen ekitaldia, bestalde, Aretxabaletan bertan egingo dute diskoa eskuartean dutenean.



DISKOA Parrokian egingo dute diskoaren aurkezpen ekitaldia.

GOIENKARIA

> ZERBITZUAK

Kirol etxea dagoeneko zabalik dago eta KZgunea goizez zabalduko dute asteleheneetik aurrera

Aretxabaleako kirol etxeak ohiko ordutegia dauka dagoeneko, hau da, asteleheneetik egubakoitzera 08:30etik 21:30era; zapatuetan, 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 20:00etara eta domeketan 09:00etatik 13:15era. Ikastaroak hilaren 11n hasiko dituzte.

KZgunea, ostera, astelehenean zabalduko dute, eta goizeko ordutegia izango du, 09:00etatik 13:00etara.

> DANTZA

Helduentzat antolatu duten euskal dantza ikastaroan oraindik eman daiteke izena

Euskal dantza ikastaroa antolatu du Leizarra musika eskolak helduentzat. Hil honetan bertan hasiko dituzte eskolak, baina oraindik badago izena emateko aukera, irailaren 15ean bukatuko da. Horretarako musika eskolara edo kultura etxera hurreratu behar dira interesatuak. Talde bi egiteko asmoa daukate antolatzaileek bat egunetan jarduteko eta bestea egubakoitzetan.


TABERNA
ARLUTZ
 MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

ARTZUBI
ELEKTRAGAILUAK
 ARTZUBI ETXETRESNA
 ELEKTRIKOAK 
 Iparragirre kalea 4
 ARETXABALETA
 Tel.: 943 53 31 86



HEZKUNTZA > 0 ETA 2 URTE ARTEKOENDAKO HAURRESKOLA

Astelehenean hasiko dira partzuergoko haurreskola berrian hezitzaileak lanean

Udalak eta Jaurlaritzak zabaldu duten haurreskolan hamar bat ume daude apuntatuta; astelehenetik aurrera hezitzaileak gurasoekin harremanetan jarriko dira, eguaztenean zerbitzuarekin hasteko

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Bukatu dituzte partzuergoko haurreskolaren lanak, eta datorren astean zerbitzua ematen hasiko dira. Luis Ezeiza eskolaren alboan dauden oktogonoetan jarri dute zerbitzu hori.

Jaurlaritzak eta Udalak elkarlanean partzuergoko haurreskola sortu eta bien artean finantzatu dute. Udalak bere gain hartu ditu eraikinean egin beharreko lanak eta garbiketak; partzuergoak, berriz, hezitzaileak kontratatu ditu eta ekipamendua eskuratu du, besteak beste.

UMEAK EGUAZTENEAN HASIKO DIRA
Gaur, egubakoitza, hezitzaileak Eskoriatzara joango dira egoitza ikustera eta lehenengo prestaketak egitera. Jarraian gurasoekin



OKTOGONOETAN Lehen musika eskola zegoen lekuan, Luis Ezeiza ondoko oktogonoetan, jarri dute haurreskola.

I.B.

harremanetan jarriko dira, eta eguaztenean, hilaren 6an, zerbitzua abian jarriko dute.

Dagoeneko hamar bat ume daude apuntatuta, eta bi taldetan banatuko dituzte. 0 eta 1 urte

arteakoak, alde batetik; eta 1etik 2ra, bestetik.

Hasieran bi hezitzaile arituko dira, baina baliteke aurrerantzean gehiago eramatea. Haurreskola 42 umerendako zerbi-

tzua emateko prestatuta dago. Hortaz, interesa duenak haurreskolara jo dezake izena ematera. Zerbitzua %60an edo erabiltzaile gehiagorekin balego, izena emateko epeak honako hauek

lirateke: iraileko azken hamabostaldia, urtarrila eta maiatza.

07:30etik 18:30era bitartean emango dute zerbitzua, baina ume bakoitza ezingo da 8 ordu baino gehiago haurreskolan egon.

APURKETAK > AINGERU GUARDA ERMITAN

Aingeru Guarda ermita barrura harriak bota eta apurketak egin dituzte ezezagunek

Egun baten pintadak egin zituzten eta beste baten harri ugari bota zituzten barrura; zutargi eta irudiak kaltetu dituzte

I.B. > ESKORIATZA

Lan handia hartu zuen herriko erretiratu talde batek Aingeru Guardako ermita konpontzen. Are gehiago, Udalarri, Aldundiari eta herritarrei laguntza eskatuta, txukun jarri zuten guztiz utzita zegoen ermita San Isidro egunerako.

Eskoriatzarrek eta inguruetako lagun askok pozik ikusi zuten ermita konponduta, eta Udalak ingurune guztia atontzeko asmoa jakinarazi zuen. Horretan dihardute aspaldian.



KONPONDUTA Aingeru Guarda ermita maiatzerako konpondu zuten.

I.B.

HORMA ETA IRUDIEI KALTEAK

Tamalez, uztailaren bukaeran ezezagun batzuek ermitaren horma baten pintada batzuk egin zituzten. Udalak garbitu egin zituen haiek, eta horretan gelditu zen guztia.

Zoritxarrez, abuztuaren 9ko gauean ezezagun batzuek ermita barrura harri ugari bota zituzten. Horren ondorioz, zutargi guztiak bota eta horma eta hainbat irudi kaltetu zituzten, baita argia apurtu ere.

> LANAK

Santa Ana auzoa berriro urbanizatzeko lan erraldoiak datorren astean bukatuko dituzte

Azterapen handia izan dute Santa Ana auzoa berriro urbanizatzeko lanek. 2005eko irailean hasi zituzten eta lan horiekin auzo guztia hankaz gora jarri dute. Udalak eta enpresak adostutakoaren arabera urtarrilean ziren bukatzeko lanok. Arrazoi horregatik, hainbat auzotar eta merkatarikexatu egin ziren eta zelanbaiteko tirabirak izan ziren Gabon partean.

Dagoeneko lan ia guztia bukatuta dago. Auzoa oso txukun utzi dute: espaloiak zabaldu dituzte eta zeharo jantzi dituzte kaleok. Falta den gauza bakarra da argiteria elektrikoaren panelak bukatzea, baldosa batzuk konpontzea eta azken ukituak ematea. Udalako ordezkariak jakinarazi digutenez, datorren astean bukatuko dituzte aipatutako lan horiek.

> JAIK

Irailaren 9an San Juan kaleko jaiak ospatzeko dagoeneko zabaldu dute izenematea auzotarrek

Azkeneko urteotako ildoari jarraituta, San Juan kaleko auzotarrek jaiak ospatzeko dute datorren asteburuan, hilaren 9an, hain justu. Interesatuak izena eman beharko dute lehenbailehen eta Euskadiko Kutxan 20 euro sartu beharko dituzte (3035 0044 80 044100737 kontu korrontean).

Irailaren 9rako egitaraua dagoeneko zehaztuta daukate: 11:00etan etxafuegoak jaurtiko dituzte eta txistulariekin lagunduta kalejira egingo dute. Horren ostean, 12:30erako, Egokiena elkartearen ondoko plazatxoan hitzordua egin dute, eta handik elizara joko dute soinuaren laguntzarekin. 13:00etan meza entzungo dute San Pedro elizan, eta txikiteoa egin ostean, Egokiena elkartean herri bazkaria egingo dute, dantzaldi eta guzti.

ZERBITZUAK > LUR AZPIKO EDUKIONTZIAK

San Juan kalean eta Santa Anan lur azpiko edukiontzia jarri dituzte

Eskoriatza izan zen lur azpiko edukiontzia jarri zituen Debagoieneko lehenengo herria

Udalaren asmoa da ohiko edukiontzia lur azpikoekin ordezkatzea eta tamainaz handitzea

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udala jo eta ke dabil lur azpiko edukiontzia jartzen. Joan den agintaldian helburu hori zehaztu zuen, eta horretan dihardu. Egunotan San Juan kale inguruko edukiontzia jarri dituzte erabilgarri, eta Santa Ana auzokoak ere berehala egongo dira erabiltzeko moduan.

Eskoriatzako Udala joan den ikasturtean hasi zen lur azpiko edukiontzia jartzen bere kontu, Debagoieneko Mankomunitateak erabaki hori hartu aurretik. Hortaz, Debagoieneko lehenengo herria izan zen zerbitzu hori ematen. Eskoriatzarrek proposamena egin zuten aurretik, baina Mankomunitateak oraindik ez zuen hori argi eta Udalak bere kargu hartu zuen.

Horren ostean, berriz, Mankomunitateak edukiontzia horien alde egitea erabaki zuen, eta legegaldi honetan Biurrarena enpresa kontratatu zuen lan hori egiteko. Akordioaren arabera, 5 urtez, Biurrarena enpresa arduratzen dihardu Debagoieneko herrietan lur azpiko edukiontzia egin eta jartzeaz. Eskoriatza ere barne sartu zuten.

OHIKO EDUKIONTZIAK ORDEZKATU
Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen buru eta Eskoriatzako Udaleko alkate Juan Car-

los Bengoak jakinarazi zigun euren asmoa dela Eskoriatzan behintzat ohiko edukiontzia lur azpikoekin ordezkatzea. "Ohiko edukiontzia askotan bidegurutzetan egoten dira eta auto gidari zein oinezkoendako oztopo garrantzitsuak izaten dira, ikusmena oztopatzen dutelako. Horrez gain, zaborra eta bestelako hondakinak lur azpian kokaetzea askoz garbiagoa eta egokiagoa dela uste dugu".

Lur azpiko edukiontzia lau mota desberdinetan banatzen dituzte: zaborrerako, paper eta kartoarako, beirarendako eta ontzietarako, hain zuzen ere. Berez, ohiko edukiontzien bana-keta bera dute.

LUR AZPIKOAK HANDITU

Edukiontzia ordezkatzearaz gain, Udalaren asmoa da lur azpikoak handitzea; hau da, bakoitzak hondakin kopuru gehiago jasotzeko aukera izatea. Horren aurretik, baina, hainbat proba egingo dituzte. Eta, bitxikeri moduan, aipa dezakegu Eskoriatzan lur azpiko lehenengoak jarri zituzten unean, jendearendako berrikuntza zelakoan-edo auzotarrek goraino bete zituztela.

San Juan kalekoak erabilgarri daude, baina Santa Anakoak oraindik ez. Biurrarena enpresak bukatu du bere lana, baina auzo-



GARBIAGOAK Lur azpiko edukiontzia garbiagoak dira eta ez diete oinezko ez gidariei oztoporik egiten.

I.B.

ko argindarraren panelak noiz bukatu zain daude, auzoko lan guztiak bukatutzat eman eta edukiontzia ere prest uzteko.

Horren ostean, Udalaren asmoa da Dorleta auzoan eta San Viator inguruan halako edukiontzia gehiago jartzea, baita Olazarren hasieran ere. Bestalde,

Intxaurtxuetan laster zuloak edo kutxatila (arketa) egingo dituzte, etorkizunean han ere edukiontzia jartzeko.

"Edukiontzia sorta bakoitza oso garestia da eta zoritxarrez ezin ditugu orain behar ditugun guztiak egin eta jarri. Horretarako, urte batzuetako epea erabili-

ko dugu. Hala ere, komenigarria da horiendako zuloak lehenbailen egitea eta lur azpiko kable-atze guztia ez ukitzea. Hala, datozen urteetan beste lanik egin behar badugu, ez daukagu kable-atzerik eta antzekorik ukitu beharrik. Hori traba handia izan ohi da", azaldu ziguten.

Martitzenean zabalduko dituzte kulunkak Dorletan

Martitzenerako, hilaren 5erako, bukatuko dituzte Dorletako kulunkak berritzeko lanak. Uztailaren bukaera eta abuztua baliatu dituzte horretarako, auzoko umeak kanpoan egon diren bitartean.

Kulunkak konpondu eta berritu dituzte, eta jolasgune osoan gomazko lurra jarri dute, lehen baino eremu handiagoan gainera. Fonorte enpresak egin ditu lanak.



IKER BARANDIARAN

> ERRETIRATUAK

Torrebasoko ortuetan izena emateko aukera

Udalak erretiratuendako abiarazitako ortuetan izena emateko epea zabalik dago oraindik. Guztira hamar ortu egingo dituzte eta lanak bukatzeaz daude.

Dagoeneko bost bat lagun eman dute izena, eta guztira hamar partzela egin dituzte. Horrekin batera, txabola bat eta ur biltegia egokitu dituzte. Interesatuak udal-txeko harrerara jo beharko dute apuntatzera.

Izena emango duten erretiratu eta pentsionista guztien artean zozketa egingo dute, ortuak esleitzeko. Irailaren 14an izango da hori, 10:00etan, udaletxean.

KIROLA > FUTBOLA

Hiru futbol talderekin hasiko du denboraldi berria Antzuola Kirol Elkarteak

Aurrekontua txikiagoa izango den arren, bazkideen kuotak 23 eurora igo dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Antzuola Kirol Elkarteak hiru talderekin hasiko du denboraldia: erregional, gazte eta infantil mailakoak. Kadeteena osatzekoak ziren, baina zaila izango da, presidentearen esanetan.

Entrenatzaileak ere aldatu egin dituzte: Andoni Azkargortak hartu du talde nagusiaren ardura; Carlos Azkarateaskasak gazte mailako taldearena; eta Gaizka Asensiok jardungo du infantil mailako taldearekin.

KUOTA IGOERA

Bestalde, batzar orokorrean adostu zuten elkartearen aurtengo aurrekontua: 20.060 euro, aurrekoa baino 3.000 euro inguru gutxiago. Horretarako zenbait gastu murriztu dituzte, besteak beste garraioarena; beraz, autoz joango dira partiduetara.

Kuotak, aldiz, igo egin dituzte. Bazkide bakoitzak 23 euro

ordaindu beharko ditu, baita jokalariek ere. Irailaren hasieran hasiko dira kobratzen.

Zuzendaritza batzordetik esan digute bazkide gehiago behar dituztela eta herritarrek euren gana jo dezaketela bazkide egiteko. Gaur egun 150 bazkide inguru ditu Antzuola Kirol Elkarteak; jokalaria, berriz, 55 dira guztira.

bere ustez



Ainhoa Ugarteburu

Irlandarrak eta ingelesak desberdinak?

Ez dago desberdintasun handirik hegoaldeko irlandar baten eta ingeles baten artean. Iparraldean daukaten gerra eta irlandarrek printzipioz dieten simpatia eskasetik aparte, ez da erraza ingeles bat eta irlandar bat lehen begiratuan bereiztea.

Jatorrak eta eskuzabakak dira irlandarrak, harrokoak eta ipurtestuak, ingelesak.

Herri berdina direla esatea, hala ere, gehiegitxo dela uste dut...

"Hizkuntzak, gaelikoak, bereizten ditu, eta hor erronka gogorra dute irlandarrek"

Ez da justua izango irlandarrak ingeles txikiak direla esatea hainbeste urtetako zapalkuntza eta borroken ondoren. Eta oraindik britainiarrek txistetzat hartzen dituzte, gainera: *paddy*, baseritar atzeratu eta astakilo, mozkor...

Hizkuntzak, gaelikoak, bereizten ditu eta hor erronka gogorra daukate irlandarrek.

Gaelikoak badauzka ofizialtasuna, telebista, irratiak, liburuak... baina gutxi errespetatu eta maitatzen dute. Zertarako ikasi, ingelesa badugu, munduko hizkuntza nagusia baldin badakigu, gaelikoa zaila da, ez dugu hitz egiten... galduko da.

Ez al zaie / zaigu (ups, subkontzientea) gertatuko?



Plaza obrak hasi aurretik.



Abuztuan hasi dira obrak.

PELLO LETE/IRATI AGIRREAZALDEGI

Herriko plaza zulatuta

Oporretatik bueltan herritar askok itxura aldatuta ikusi du herriko plaza. Izan ere, abuztuaren 7an hasi ziren zulatzen erreka obrak egiteko eta orain makinek lanean

dihardute, eta apirilean amaitzea aurrekusi dute. Bitartean plazan ezin da aparkatu eta goranzko noranzkoan bakarrik joan daitezke autoak.

HEZKUNTZA > MUSIKA ESKOLA

Hezkuntza musikaleko bost kurtsoak herrian ikasi ahal izango dituzte ikasturte berrian

Olaranen ipiniko dituzte hezkuntza musikaleko, koraleko eta ahots teknikako ordutegiak

I.A. > ANTZUOLA

Musika eskolan aurki hasiko da ikasturtea. Hezkuntza musikaleko bost kurtsoak, korala eta ahots teknikak ikasi ahal izango dituz-

te herrian bertan; baita soinu txikia eta panderoa ere.

ORDUTEGIAK

Hezkuntza musikaleko lehen kur-

tsokoen martitzenetan eta eguenean izango dituzte eskolak, eguerdian. Gainontzekoek astelehen eta eguazten arratsaldetan. 17:30ean hasita ordu erdiko eskolak izango dira mailaz maila. Ahots teknika eta korala eguenean izango dira, 14:00etan eta 20:00etan hurrenez hurren.

IKASTAROA

Sendabelarren gaineko ikastaroa iraileko eguenean

Idolaz elkarteak antolatuta, irailean, eguenero, sendabelarren gaineko ikastaroa egongo da, 18:00etatik 20:00etara bitartean, eskolan. Alberto Altube izango da irakaslea. Izena emateko azken eguna irailaren 4a da. Nerearen dendara edo liburu dendara jo behar dute interesatuek, eta 20 euro ordaindu.

Tomas Gezalaza

Zoruen kutxilatuta eta bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

ANTZUOLA

Apainketak eta isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

GAILUR

taberna eta gozotegia



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaza

Apainketarako eta industriarako pinturak

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

MOTORRA > IRAILAREN 24AN ELKARTUKO DIRA LAMBRETTA ETA VESPA MOTORZALEAK

Motorren kontzentrazioa antolatu dute hilaren 24rako

Besteak beste, motor gainean ibilbidea egingo dute Elgeta eta inguruan

Herrian giroa sortzea eta ibilgailuak ezagutzera ematea da antolatzaileen asmoa

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Irailaren 24an, domekan, egingo dute Lambretta eta Vespa motorren lehenengo kontzentrazioa Elgetan. Goizean, 11:00etatik 12:00etara bitartean hainbat txokotatik etorritako motorzaleak plazan elkartuko dira. Horrela, herritarrek motorrak ikusi ahal izango dituzte.

Ondoren, 13:15ean motorrean Elgeta, Ubera, Bergara, Angiozar, Asentzio eta Elgeta arteko ibilbidea egingo dute.

14:30ean denak batera bazkaltzera joango dira Espaloia Kafe Antzokira.

Arratsaldean, berriz, motorrekin erakustaldia egitekoak dira. Plaza inguruan zirkuitua ipiniko dute hainbat konorekin eta motorzaleek horiek gainditu beharko dituzte.

17:00ak inguruan hasiko dira bueltatzen motor gidariak euren herrietara.



BI MOTOR MOTA Fermin Iribar (ezkerrean) Lambretta gainean eta Sebastian Arantzabal (eskuman) Vespa motorrekin. GOIENKARIA

Bazkaritarako izena emateko epea zabalik egongo da irailaren 20ra bitartean. Interesatuak udallexera fax bat (943 76 82 89) edo e-posta (kultura@elgeta.net) bidaliz, zein telefonoz bertara deituta (943 76 80 22-Enrike Gorrotxategi) eman dezakete izena. Ordainketa, berriz, bazkalostean egingo da, bertan.

GIROA SORTZEKO

Aintzinako autoen pare bat erakustaldi egin dituzte herrian eta Udalean pentsatu zuten "herrian giroa sortzeko eta, bide batez, ezagutzera emateko antzerko zerbait egin zitekeela motorrekin", esan digu alkateak.

Eibarko Lambretta klubeko kideek laguntza teknikoa eman-

go diete kontzentrazioan elgetarre; besteak beste, izenemateekin. Eibarren badira urte batzuk Lambretta motorren kontzentrazioa egiten dutela eta han ehunik gora motorzale elkartzeko dira. "Hemen lehen aldia izanik gutxiago etorriko dira, baina Euskal Herritik zein kanpotik jendea etortzea espero dugu".

> INGURUMENA

Olio bilketa datorren irailaren 8an egingo dute, arratsaldean

Abuztuan ez du etenik izan olio bilketa zerbitzuak eta irailaren ere bere horretan jarraituko du. Hilaren 8an izango da erabilitako olio jasotzeko hurrengo hitzordua. Puntu Berde Mugikorra Mendizaleen plazan, udallexe parean, egongo da arratsaldean 16:00etatik 20:00etara bitartean. Sukaldeko olio erabilia beirazko, plastikozko edo brik erako ontzi batean eraman behar da. Nahi izanez gero, arduradunek ontzia garbituko dute eta bestela, bertan laga daiteke. Etxeko traste handien bilketa orain artean bezala eguenero egingo dute. Etxetako zaborra martitzen, eguen eta domeketan jasoko dute.

> KULTURA

Yllanaren antzerkia eta Aukeraren dantza Espaloian

Irailaren barrena bi ikuskitzuna izango dira Espaloian. Irailaren 22an, egubakoitza, Yllana taldearen *Star Trip* antzezlan, 22:30ean; eta hurrengo egubakoitzean, irailaren 29an 22:30ean Aukeraren taldearen *Bideak* ikuskitzuna. Debagoiengan obra honen estreinaldia egingo dute gainera Espaloian. Bi emanaldiotarako sarrerak salgai daude jadanik Espaloian. Sarrerek 12 euro balio dute eta hamar euro bazkideendako. Espaloira bertara deituta ere egin daiteke sarreraren erreserba.

ETXEBIZITZA > URUBURUKO TASATUAK

Uruburun eraikitzen hastear dauden etxe tasatuak, hemezortzi elgetarrendako

Zirriborroaren arabera 2008ko maiatzerako amaituta behar dute etxebizitzek; behin betiko proiektua aurki onartu nahi dute

I.A. > ELGETA

Uruburun etxebizitza tasatuak egingo dituzte eta jadanik izendatuta daude zein izango diren jabeak eta baita bakoitzari zein etxebizitza dagokion ere. Zozketarako onartuta zeuden 24 lagunetik 18 dira zortedunak.

Guztira 18 etxebizitza izango dira, 64 eta 75 metro koadro artekoak; gehienak bi logelakoak, batzuk duplexak, eta hiru loge-

lako bi etxebizitza ere egongo dira. Etxebizitza guztiek, gainera, garajea eta trasteleku itxia izango dituzte.

Proiektuaren zirriborroaren arabera, irailaren amaieran edo urrian hasiko dira eraikitzen eta gehienez 18 hilabeteko epea izango dute lanak amaitzeko; beraz, 2008ko maiatzerako eginda behar lukete.

BEHIN BETIKO PROIEKTUA AURKI

Proiektua behin-behinekoa da eta behin betikoa irailaren amaieran edo urrian onartu nahi du Udalak.

Aralar alderdiak zozketa egin aurretik proposamena aurkeztu zuen 19 etxebizitza egiteko, horrela elgetar guztiek aukera izan zezaten, baina euren esanetan, "ez dugu EAJ-EAren erantzunik jaso eta zozketa egina dago".

Etxebizitza tasatuen jabeak

- Itziar Zabala Arbulu
- Oskar Askasibar Zubizarreta
- Idoia Errasti Ojanguren
- Eneko Arantzeta Gutierrez
- Unai Garro Arrazola
- Jon Ormaetxea Saiz
- Manuel Montiel Gonzalez
- Enrike Elkoro Sarasua
- Joseba Julen Barrutia Ule
- Rakel Urien Eguren
- Iñigo Ibaibarriaga Gorospe
- Etor Sarasua Mendizabal
- Estibaliz Askasibar Ardantza
- Jone Muxika Sarasketa
- Txomin De Vega Izagirre
- Igor Arizmendiarrrieta Barrero
- Iban Arantzabal Arrieta
- Mikel Juaristi Alonso



OXEL EROSTARBE

Joseba Pierrugues, derbiko saritua

Athleticen eta Realaren arteko derbia zela-eta kiniela antolatu zuen Elgetako Futbol Taldeak. Joseba Pierrugues izan da irabazlea eta bi txuleta eta taldeko kamiseta jaso ditu. Emaitza beste sei lagunek ere asmatu dute, baina Joseba izan da atsedendiko emaitza asmatu duen bakarra. Taldeak lehen partidua irailaren 16an jokatu du.

KULTURA > ALEMANIAKO ABESBATZA BAT ETORRIKO DA

Arabako Nazioarteko Abesbatzen Jaialdiko emanaldia eguaztenean

Elizan izango da saioa, 20:30ean, eta Alemaniako abesbatza bat etorriko da

Jaialdiak aurten 25 urte beteko ditu eta saio nagusia egubakoitzean izango da, Gasteizen

JON BEREZIBAR > ARAMAIO

25 urte beteko ditu Arabako Nazioarteko Abesbatzen Jaialdiak eta aurten ere Aramaio izango da emanaldietako guneetako bat. Hain zuzen ere, eguaztenean Alemaniatik etorritako abesbatza batek saioa egingo du herriko elizan, 20:00etan.

Eusko Jaurilaritzako Kultur Sailak antolatuta, 25. urteurrena ospatuko dute aurten, eta horretarako, Kubatik, Poloniatik, Filipinetatik, Mexikotik, Txekiar Errepublikatik eta Errusiatik etorriko dira abesbatzak, gaur hasi eta egubakoitzera bitartean. Aramaioaren txanda datorren eguaztenean izango da eta Alemaniatik etorriko dira kideak.

Mertxe Mondragon alkateak berak azaldu duen moduan, "egun

oso polita izaten da jaialdiko eta urteetan esperientzia bikaina" izan dute, bai herrian zein partaideekin ere. Izan ere, Kultur Sailari Udalak eta Bixente Goikoe txea abesbatzako kideek laguntzen diote antolakuntzan eta urteekin hitzordu garrantzitsua bihurtu da nazioarteko abesbatzen jaialdia herrian.

Harremanak estutu egin ohi dituzte, gainera, saioen ostean. Izan ere, urtero egiten duten moduan, behin emanaldia amaituta, elkarrekin afaltzeko ohitura dute eta aurten ere ez diote horri hutsik egingo.

SAIO NAGUSIA EGUBAKOITZEAN

Herrietako bira egindakoa, jaialdiko saio nagusia datorren egubakoitzean egingo dute, Gasteizen, Principal antzokian. Eki-



EMANALDIA Bixente Goikoe txea abesbatzakoak Gabon saioan.

GOIENKARIA

taldi nagusian etorriko diren zortzi abesbatzek hartuko dute parte. 25. urteurrenako ekitaldi berezi horretan, Urrezko Zeledon ikurra emango zaie parte-hartzaileei.

20:00etan izango da egubakoitzeko hitzordua, Principal antzokian esan bezala, eta abesbatza guztiek elkarrekin abestuko dute jaialdia ixteko.

> HEZKUNTZA

Martxa onean jarraitzen dute haur eskolako lanek

Aurreikusitako moduan, haur eskola berria eraikitzeke lanek aurrera jarraituko dute eta epeak betetzen dabil-tza.

Hala, abuztuko lehen astea ezker lanari utzita, irailean ekingo diote berriz ere haur eskola eraikitzeari; 0 eta 2 urte bitarteko haurrendako prestatuko dituzte instalazioak. Bi gela izango ditu eta Partzuergoak kudeatuko du haur eskola, behin lanak amaitzen dituztenean.

Maiatzaren 29an hasi zirenetik, hasieratik izan dute erritmo ona San Martin eskolaren albo baten egiten dabil-tzan eraikinaren lanek eta ekainean erritmoa bizitu ahal izan zuten. Dagoeneko, gainera, oso aurreratuta daude lanak eta poliki-poliki eraikina badoa itxura hartzen, zimendatzea eta egitura nagusia eginda dago-eta. Hain zuzen ere, Mauricio Arregi enpresa dabil eraikuntza lanekin; udaletxea berri-tzen enpresa bera da hori.

Lanak ondo jarraitzeko-tan abendurako izan gura dituzte prest instalazioak, Gabon ingururako-edo. Hala ere, ikasturtea normaltasun osoz hasiko da.

MARIXEKA EGUNA > SALDA ETA TXORIZOA EGONGO DA

Marixekan urteroko hitzordua oraingo domekan

Mezarekin hasi eta iluntzean erromeriarekin amaituko dute

J.B. > ARAMAIO

Etzi iraileko lehen domeka izanda, eta Marixeka eguna ospatuko dute hango elkartekoe-k. Egitaraua urteroko antzekoa izan-

go da eta giroa ere urtero bezain ona izatea espero dute.

Eguerdian, 12:00an meza esango dute bertako ermita txikian eta aurten, herriko dantzariak behar-rean, erromeria izango da Gardoki ahizpekin. Beti bezala, taberna ipiniko dute elkartekoe-k kanpoan salda eta txorizoarekin. Ostean bazkaria egingo dute elkartekoe-k eta arratsaldean berriro ere ekingo diete Gardoki ahizpek erromeriari.



GIROA Aparta izan ohi da Marixeka egunean.

GOIENKARIA

OMENALDIA > 50. URTEURRENA OSPATUKO DUTE

Herrikoen eta Udalaren omenaldia jasoko du Lagun Artea dantza taldeak aurten

Kide ohien bila dabilta ospakizunerako, eta antolaketarako lehen bilera martitzenean egingo dute

J.B. > ARAMAIO

Mende erdia beteko du aurten Lagun Artea herriko dantza taldeak eta omenaldi berezia gertatzekotan da Aramaio-ko Udal-a. Jaietan Gasteizko Oldarki taldea -herriko dantza taldea sortzen lagundu zuena, hain zuzen ere- omendu ostean, oraingoan Lagun Artea taldearen txanda izango da. Omenaldirako, Udala dantza talde-tik igarotako kide ohien bila dabil, belaunaldi guztietakoak.

Hori dela-eta, Udalak herri-tarren laguntza eskatzeko deialdia egiten du antolakuntzan lagundu eta azken 50 urteetan dantzari izandakoen zerrenda osatu ahal izateko. Hain zuzen ere, Udalak dagoeneko bidaliak ditu hainbat gutun kide ohiei



LAGUN ARTEA Aurtengo San Martinetan egindako saioa.

GOIENKARIA

kolaborazioa eskatzeko, baina oraindik ere jende bila dabil-tza. Udalak gura duena da aztarna galdu zaien taldekide ohiekin harremanetan jartzea, belaunaldi guztietako dantzariak nahi dituzte-eta omenaldi egunean parte hartzeko.

BATZARRA

Omenaldia gertatzen hasteko lehen bilera datorren astean izango da. Martitzenerako egin dute deia, arratsaldeko seietan udaletxean. Interesa dutenek bertara gerturatzeko deia egiten du Udalak.

LANAK > AZPIEGITURAK BERRITZEN

Negurako gasa izango dute hainbat herritarrek

Herriaren ezkerreko aldean gas hodiak jartzeko lanak bukatu dituzte, eta hil honetan bertan etxeetan sartzten hasiko direla uste du Udalak

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Ur eta saneamendu hodiak berri-
tu eta gasa sartzeko lanak aurre-
ra doaz Gatzagan. Lehenengo
faseko lanak bukatu dituzte, hau
da, herriaren ezkerreko aldeko
lanak, eta gasari dagokionean
orain etxeetan sartzten hasiko
dira. Ur-andelaren alboan jarri

ditu bi erregai-tanga Repsol
enpresak eta bertatik banatuko
du gasa etxeetara. Antza lehen-
ago egin gura zituzten etxeetako
lanak, baina arazoak izan dituz-
te tangekin eta atzeratuta dabil-
tza. Hala ere, alkateak uste du
irailean hasiko direla etxeetan
sartzten eta aurtengo negurako

gasa izango dutela herritar
horiek.


BASERRIETARA GASA

Bestalde, bigarren eta hirugarren
faseetako lanen proiektuak abuz-
tuan onartu dituzte. Dirua behar
du Udalak orain, lanok egiteko,
eta Jaurlearitzako berrien zain
dago. Lortuz gero datorren urte-
an egingo lituzke lanok, eta herri-
tar gehienek izango lukete gasa.
Gainera, baserrietaraino gasa era-
mateak daukan kostua aztertzen
dabil Udala.



LEHEN FASEA Herriko ezkerreko aldeko azpiegiturak berri-
tu dituzte; eta diruaren zain daude lanekin jarraitzeko.

GOIENKARIA



M.A.

Irlandik postala argibide eske

Postal bitxia jaso zuten joan zen astean denda eta turismo bulegoa den Labidean, Irlandik bidalitako postala. Iranera oporrak pasatzera joandako herritar edo lagun bategi batek bidalitakoa da, eta hala izan. Teheranen bizi den emakume batek bidalitakoa da, eta Gatzagaren eta orokorrean Euskal Herriaren gaineko argibideak jaso gura ditu. Informazioa bidaltzeko eskatzen du: mapak, tokirik ikusgarrien berri eta beste hainbat kontu, eta Labideako kideak erantzutekotan geratu dira.

> ONGIZATEA

Etkez etxeko zerbitzuaren araudia onartu du Udalak, mankomunitatea martxan jarri zain

Antzuola, Elgeta eta Gatzagak mankomunitatea osatzea erabaki zuten Ongizate Saileko gaiak bideratzeko. Orain hilabete batzuk izan zen hori, eta, Aldundira paper kontu guztiak bidali ostean, irailean martxan jarriko dutelakoan dago alkatea. Gizarte laguntzaile bakarraren eskuetan daude Antzuolako eta Elgetako ongizate sailak orain, baina mankomunitatea osatzerakoan bigarren langilea hartuko dute.

Hori gertatu bitartean, Gatzagan ez daude geldi eta abuztuan bertan onartu dute behin betiko etkez etxeko zerbitzuaren araudia. Helburua da herriko adinekoei eta ezinduei zerbitzu hobea ematea, eta Udalak gizarte zerbitzuetan dituen eskumenen eta Foru Aldundiarekin izenpetutako akordioen barruan dago araudia. Norbaitek interesa izango balu abuztuaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dauzka argibide guztiak.

GARCIA ENBALATZEAK

- ENBALATZE TOLESTAGARRIAK
- PALETAK
- EGUR KUTXA ETA KAIOLAK
- MOTA GUZTIETAKO TAULAK
- AGLOMERATUAK, TABLEXA, DM, ETAB.
- ENKOFRATZEKO TAULA



Etxabari Auzoa 9 - 193 P-K.
Tel.: 943 79 81 36 Fax:a: 943 79 82 38
20550 ARETXABALETA GIPUZKOA

Subinoa 10 - Gojain industrialdea
Tel.: 945 46 62 09 Faxes: 945 46 56 33
01171 LEGUTIANO ARABA

www.embalajesgarcia.com
e-posta: garcia@embalajesgarcia.com



HARRERA BEROA Oinarrizko kanpamenduan, Silbarrekin batera gainontzeko mendizaleek ere harrera beroa egin zieten tontorrera iritsitakoek. Argazkian, Iban, Mikel eta Josu Juan.

JOSU JUAN LLODIO

MENDIA > GASHERBRUM II MENDIAREN TONTORREAN

"Jendearekin izandako harremana izan da espedizioko gauza onena"

Hiru debagoiendarrez osatutako espedizioa uztailaren 22an iritsi zen G2ko tontorrera

Mikel Sasiainek eta Josu Juan Llodio arazoak izan zituzten behatz puntetan, hotzagatik

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Uztailaren 22ko eguerdian iritsi zen Josu Juan Llodio arrasatearra G2ko tontorrera (8.036 metro): "Egarri galantarekin, 07:00etarako ur gabe geratu nintzen-eta". Laugarren kanpamenduan (7.500 metro) gaua igaro gura ez eta hirugarren kanpamendutik egin zioten tontorrari eraso: "Gauerdian atera ginen, eta gau osoa egin genuen igotzen. Bakoitzak bere erritmoan egin zuen aurrera, bakoitza bere borrokan. Goizera-ko leher eginda nengoen, baina ondoan nuen holandarra okerra-ko zegoela ikusteak gora egitera bultzatzen ninduen".

Hori da debagoiendarren artean lehenengo iritsi zenak egin digun kontakizuna. Tontorra egin zuten, baita ere, Mikel Sasiain aretxabaletarrak eta ibarrekoekin joandako Andoni Ormazabalak eta Oier Plazaolak. Eta eurekin batera beste espedi-

zio batzuetako hainbat lagunek ere. Eguraldi aparta tontorrean, besarkadak, erretratuak, eta behera. Bitartean, oinarrizko kanpamenduan zegoen hirugarren debagoiendarra, Iban Silbar, gorputzari buelta eman ezinda.

ALTUERAKO GAITZAK JOTA

Tamalez, Arrasatekoak ezin izan zuen bigarren kanpamendutik aurrera egin: "Pena da, baina ez diot buelta larregi ematen. Egia esan, zorte txarra izan nuen han, denetik gertatu zitzaizdan-eta: mendiko gaitza, erorketa batengatik bizkarreko mina...". Izan ere, ahalegin bat baino gehiago egin arren, Ibanek ezin izan zuen bigarren kanpamendutik aurrera egin: "Gainontzekoen moduan egin nuen dena, baina gora igotzearekin batera, ezin lo ondo egin, botaka...". Gauzak horrela, lagunak gora iritsi zirenean biziki poztu zen Iban; momentuan,

goian zeudenak baino gehiago: "Goian ez da aparteko ezer sentitzen!", bota du Josu Juanek: "Jende askok galdetu digu ea tontorrean zer sentitzen den. Eta egia esan... nahikoa izaten da behera egin behar dela pentsatzen, oraindik bide luzea geratzen zen-eta. Gero bai, beheko kanpamendura jaisterakoan jendearen harrera ederra izan zen, hori izan zen momentu onena".

BEHATZ PUNTAZ IZOZTUTA

"Helikopteroan ibiltzeagatik..."

Behatz puntak ubelduta zituztela ikusita, Mikel Sasiain eta Josu Juan Llodio helikopteroz eraman zituzten oinarrizko kanpamendutik: "Sasi-k esan zidan helikopteroan ibiltzeagatik merezi duela azken 100 metroak oinutsik egitea", esan digu barrez Josu Juanek. Lau egun geroago Zaragozako ospitalean zeuden bi lagunak. Aretxabaletakoak egun bakarra egin zuen han, baina Josu Juanek zortzi egun egin zituen bertan, behatz puntak izoztuta zituen-eta: "Okela bakarrik izoztu zen, hezurra ez. Ez dago ezer moztu beharrik. Eskerrak".

BUELTA MORDOA

Hain zuzen ere, momentu gozoenetik hasi dugu kontakizuna, tontorrera iritsi zirenetik. Lehenago, baina, espedizioko lagunak ondo ikasi zuten oinarrizko kanpamendutik hirugarrenera arteko bidea: "Egia esateko, mendia ez da behin igotzen, askotan igotzen da. Oinarrizko kanpamendutik hainbat joan-etorri egin genituen gora, beste kanpamenduetara jana eta materiala eramatera. Bide txarrena oinarrizko kanpamendutik lehenengo kanpamendura zegoen. Glaziarra ez zegoen egoera onean, pitzadura mordoa zituen-eta".

Eta, horrenbeste ahalegin egin eta gero, astebetean egindako elurrak pikutara bidali zuen lan ia dena: "Lehenengo kanpamenduan jarritako lau dendetik hiru haizeak eraman zituen. Zulo batean topatu genuen denda bat, eta zelanbait konpondu genuen; beste biak desagertu egin ziren. Horrelako ustekabeei talde lanarekin egiten zaie aurre: hori izan da espedizioko onena, gure artean egon den giroa. Han erraza da jendea haserre ikustea, baina hemendik joandako bostak ederto konpondu gara. Han, gainera, hamabi laguneko espedi-

zioa osatu genuen, jende gehiagorekin elkartu ginelako, eta ederto moldatu gara denak".

BERRIRO

Lehenengo zortzimilakoa eginda, buruan besterik ba ote duten galdetuta, Ibanek, momentuz, beste gauza batzuk egin gura ditu. "Baina egia da zortzimilakoek harrapatu egiten zaituztetela", esan digu Josu Juanek.

ESANAK

"Tontorrean ez da aparteko ezer sentitzen: poztasuna eta nekea"

Josu Juan Llodio

"Lehenengo saiakeran igo ez ginenok beste saiakera bat egin genuen; baina ezin"

Iban Silbar

MENDIA > EVERESTERA IGOERA

Everest alpino eran igotzen ahaleginduko da Alberto Iñurrategi, Iparreko bidetik

Aretxabaletakoak tontorrari beharrezko moduari eman gura dio garrantzia, tontorrerako bideari

jo eta Ferran Latorre Katmandu aldera. Dagoeneko oinarritzko kanpamenduan egongo dira, eta irailaren erdi inguruan ahaleginduko dira Everestera igotzen.

ERRONKA GOGORRA

Esperientzia handiko hiru mendizale horiek ez dute zeregin makala. Alpino eran egin gura dute igoera, modu klasikoan igotzeak dituen erraztasunak alde batera utzita: oxigenorik barik, kanpaleku barik, eta soka finko barik. Baldintza horiek asko zail-

tzen dute munduko tontor garaierera igotzea, baina erronka ez da hor amaitzen.

IPARREKO BIDETIK

Izan ere, hiru lagun horiek Iparreko bidetik egingo dute ahalegina, Hornbein-en korridoretik. Bide erabat ezohikoa da hori, zazpi lagunek baino ez dute-eta lortu Everestera bertatik igotzea. Eta, urteak igaro dira arrakasta izan zuen azken ahalegina egin zutenetik. Gauzak horrela, Juan Vallejo gasteiztarrak aitortu du inoiz izan duen erronka gogorrenaren aurrean dagoela. Jon Belokik espedizioari ezetz esan izanak ere asko dio, ez zuen-eta bere burua ahalegin horretarako gertu ikusten.

Kontuak kontu, ezinbestekoa izango da igoera noiz egin ondo erabakitzea, hortxe egongo da-eta arrakastaren gakoa. Horrekin batera, igorak zailtasun handia du: "Bai fisikoa eta baita psikologikoa ere. 8.000 metrora arte igorako maldan ez dago-eta inongo erreferentziarik har-tzerik", azaldu zuen, joan aurretik, Albertok.

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA
Andramari jaiak amaitutakoan, abuztuaren 18an, abiatu ziren Alberto Iñurrategi, Juan Valle-



HIRU EGUN Tarte horretan gura du Everestera igo Iñurrategik.

GOIENKARIA



LANERA Taldeko liderrei laguntzeko dago Markel Vueltan.

GOIENKARIA

TXIRRINDULARITZA > MARKEL IRIZAR VUELTAN

"Akaso, taldearen estrategia aldatu egin beharko dugu"

Eguaztenean izan ginen Markelekin, taldeko liderrek kale egin zuten egunean

ta irabazteko moduko taldea dugula uste dut, eta ondo dakit lan egitera etorri naizela".

SEMEA AITA BAINO EZAGUNAGO

Anekdotendako tartea ere uzten dute horrelako itzuli luzeek, eta Markelek izan du berea. Umetxo baten zain daude Markel eta Alaitz, eta bizikleta gainean enteratu zen Markel semea izango dela: "Jaio barik, dagoeneko aita baino ezagunago da Xabat. Anekdotak oihartzuna izan zuen, eta ez genuen asmo horrekin egin, baina polita izan da". Zorionak!

X.U. > ARRASATE

Euskaltel taldearendako bosgarren etapa batere ona izan ez dela jakinda deitu genion Vueltan dabilen Markel Irizarri: "Aurrean egon behar zutenek kale egin dute, eta orain, akaso, estrategia aldatu egin beharko dugu. Vuel-

Ikus itzazu argazkiak, astero, Astelehenero Goienkarian!

UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEN GOIENKARIA II. LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak



Har ezazu parte!

Baldintzak

- Udako argazkiak izan beharko dute: aurtengoak edo beste uda batekoak.
- Inoiz argitaragabeak.
- Koloreetan zein zuri-beltzean.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Argazkiak jasotzeko epea zabalik dago 2006ko irailaren 18ra (astelehena) arte.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin).
- Argazkiak bidali ahal izango dira e postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri.
- Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate.
- Arrasate: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate.
- Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara.
- Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan gutun-azal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta jpg formatuan.
- Parte-hartzaile bakoitzak bidali ahal izango ditu, gehienez ere, 5 argazki.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen-abizenak eta nondarra den, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, eta abar).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero; azken sorta, irailaren 25eko ASTELEHENEN GOIENKARIAN.
- Urriaren 2ko ASTELEHENEN GOIENKARIAN aditzera emango dira irabazleen izenak.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko. Baina lehiaketarako argazki guztiak hartuko dira aintzat.
- Epaimahaiak baloratuko ditu: gaia, kalitatea, originaltasuna, momentua, bizitasuna..., besteak beste.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEN GOIENKARIAREN artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, betiere egilea aipatuta.

Sariak

1. saria: Olympus E-500 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik. 8 milioi pixel. / Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-45 mm eta 40-150 mm. / Flash eta guzti. / 2,5 pulgadako HyperCrystal LCD pantaila.



- **2. saria:** Hoteletan gaua pasatzeko Talon Plan Card txartela.
- **3. saria:** bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:



Laguntzaileak:



FUTBOLA > AURRE-DENBORALDIA

Bergara Hiria jokatuko dute gaur eta bihar; domekan, berriz, Arrasate Hiria

Gaur, 18:00etan, jokatuko dute UDAK eta Mondrak Bergara Hiriko bigarren jardunaldia

Bihar, zapatua, izango da finala; domekan, berriz, hiruko tornea jokatuko dute Atxabalpen

XABIER URTZELAI > BERGARA

Irailaren 9an, datorren asteburuan, hasiko du Preferenteak denboraldi berria, eta ibarreko taldeak buru-belarri dabilta prestaketa lanetan. Etxeko lanak behar bezala egiten ez dituenak garesti ordainduko du hori. Eta, asteburuan izango dute zaleek talde bakoitzak zer nolako itxura eman dezakeen ikusteko lehenengo aukera.

ATZO HASI ZEN BERGARA HIRIA

Hori da aurre-denboraldiko lehenengo tornea, eta Bergarak eta Antzuolak atzo egin zuten estreinaldia. Gaur, berriz, Mondrak eta UDAK neurtuko dituzte indarrak (18:00, Agorrosin). Eta bihar bi norgehiagoka horietako irabazleek jokatuko dute finala, hori ere 18:00etan. Berez, aurren Preferentean lehiatuko diren bi talde-



DERBIA Mondrak eta UDAK Ligako bigarren jardunaldian jokatuko dute lehenengo derbia; egunotan neurria hartuko diote elkarri.

GOIENKARIA

ek abantaila izan beharko luke te torneo horretan. Horrelako partiduetan, baina, edozer gerta daiteke; gainera, entrenatzaileek probak egiteko erabiltzen dituzte norgehiagoka horiek.

ARRASATE HIRIA, DOMEKAN

Eta atsedenerako asti barik etorriko da Arrasate Hiria txapelketa. Domeka arratsaldean (16:30,

Atxabalpe) hasiko dute hiruko txapelketa. Hala, ordu horretan jokatuko dute Aloñak eta UDAK lehenengo zeingehiagoka. 17:30ean etorriko da Mondraren eta oñatiarren arteko partidua, eta ordubete geroago, 18:30ean, jokatuko dute Arrasatekoek eta Aretxabaletakoek. Hala, gainganean dagoen denboraldi berriari begira, ikusi egin behar-

ko da zeinek ematen duen talde itxura txukunena.

UDAK ETA ALOÑAK, ETXEAN

Joan den urtean horren denboraldi txukuna egin zuten Aloña Mendik eta Aretxabaletak etxean hasiko dute Liga. Oruetaren mutilek Berio hartuko dute Azkoagainen, eta Felix Recioeren mutilek Pasaiaiko taldea izango dute

bisitari. Mondra izango da kanpoan jokatu duena; Gordobilen mutilek Txintxerperen zelaian hasiko dute aurtengo denboraldia.

Eta, ibarreko lehenengo derbirako ez da asko itxaron behar, bigarren jardunaldian jokatu dute eta Mondrak eta UDAK Atxabalpen. Asteburuan dute elkarri neurria hartzeko aukera.

TRIATLOIA > EMBRUN ETA NIZAKO IRON MAN-AK

Antxintxikakoak buru-belarri ibili dira udan

Taldekieak Embrungo eta Nizako Iron Man-etan izan dira, eta baita XTerra Euskadi proban ere

X.U. > BERGARA

Triatloien denboraldia amaitze ar, Antxintxika Debagoiena Triatloi taldekoek ondo erre dituzte azken kartutxoak. Hala, taldekieak hara eta hona ibili dira, oporrak aprobetxatuta.

Asier Ormazabal eta Xabi Lekue, adibidez, Frantziako Alpetan izan dira, Embrungo maratoi gogorrean: "Igeri 3.800 metro egin eta gero, Tourrean igotzen dituzten portu gogorretan egin zuten bizikletako 180 kilometroko ibilbidea, eta korrika egin

beharreko maratonia ere oso aldapatsua zen", esan digu Aitor Rementeriak: "Sekulako meritua dute, Xabi 17. sailkatu zen (11 ordu eta 2 minutu), eta Asier 45.a (11 ordu eta 58 minutu)". Horrekin batera, hainbat taldekide Nizako Iron Man-ean ere izan ziren, eta baita Bakion egin zuten XTerra Euskadi proban ere.

'APERRI' ETA LEKUE SAILKATUTA

Bakioko lasterketa Hawaiin egingo duten Munduko Txapelketa-ko XTerra proba sailkatzeko



AMAITZEAR Triatloi denboraldiari agur esanda, Antxintxikakoek hilabete dute Soralue-Bergara krosa gertatzeko. ANTIXINTXIKA

baliagarria zen, eta Jon Aperri-baik eta Xabi Lekuek lortu zuten txartela. Sailkapen orokorrean 14. sailkatu zen Lekue, eta 16.a izan zen Aperri. Euren kategorian, baina, lehengo eta bigarren

sailkatu ziren. Eurekin batera lehiatu ziren Antxintxikako beste hamaika atleta ere. Triatloi horretan lasterkariak errepideko bizikleta mendikoagatik aldatu behar izan zuten.

KROSA, URRIAREN 8AN

Egun horretan antolatuko dute Antxintxikakoek Soralue-Bergara krosa (10 km). Eta, jakin, aurren gaztetoendako lasterketa ere egingo dutela.

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **DANNI LEIGH**
Danni Leigh eta Trapu Zaharra aste bukaeran Oñatin > 45



> **GOIATZ ARANA**
GOITBko albistegietako aurkezleari elkarrizketa > 52

> **MANEX AGIRRE**

Bi urte eman ditu Granadan. Euskal Filologia eta Literatura ikasi du eta bertsolaritzan eta hainbat aldizkaritan ere buru-belarri ibili da gazte aramaioarra > 50



LAU KONTINENTE Goian, aretxabaletarrak Indiako egunkari bateko azalean; eskuman, Aritz Unamuno eta Unai Lazkano Rancid taldeko Lars Frederiksen gitarra jolearekin; behean, ezkerrean, antzuolarrak Tanzanian; eskumaldean Galiziaraino Vespa motorretan joandako bergarar koadrila.

Udako postalak: oporretako oroitzapenak etxera bueltan

Gehienondako bukatu dira oporrak; han eta hemen ibilitakoen esperientziak

Indian bizikletan, Galiziara motorrean, Estatu Batuak, Afrika gertutik ezagutzera...

EDU MENDIBIL > BERGARA

Oraindik izango dira opor egunak aurrean dituztenak baina gehienondako bukatu dira udako oporrak. Atzean geratu dira hondartzan, mendian, atzerrian, irla xarmangarri batean edo gertuko herri txiki batean igarotako atsedean egunak, zenbaitetan deskantsua baino nekea eta estresa ekartzen dutenak. Oporrak ez dira hain idilikoak izaten batzutan. Hala ere, oporrekin erabat gozatu duten zenbait jendearengan jo dugu, euren berri izateko, udako postaltxo batzuk zuengantzeko asmoz.

Aitor Bengoa
ARETXABALETA

"Normalean turistak ibiltzen ez diren lekuetatik ibili gara Indian, bizikletan"

Asier Atxa, Alberto Asensio, Asier Bengoa, Aitor Garro eta Aitor Bengoa aretxabaletarrak Indian ibili dira abuztuan. 26 egun egin dituzte han. Delhitik Katmandura, Nepalera joan ziren eta tarte gehiena bizikletan egin dute. "Guztira 2.000 kilometro

inguru izango dira eta 1.200 bat bizikletan egingo genituen. Beste 400 bat autobusean; Khajurahotik Benaresera 14 ordu behar izan genituen, sekula ahaztuko ez dugun bidaia. Eta gainerako kilometroak *auto-stop* eginez, kamioak geldituz. Egunak joan eta egunak etorri hango jendearekin kontaktu zuzenean egon gara, normalean turistak ibiltzen ez diren lekuetatik igaroz. Jendeak eta umeek bereziki primeran hartu gaituzte eta ez dugu inolako arazorik izan; goizetik gauera bidean topatzen genuen jendea agurtzen pasatzen

genuen...", diosku Aitorrek. India ikaragarri gustatu zaio: "Modu askotan definitu daiteke India: zaratsua, kontrastez beteta, behartsua, emankorra, fededuna, jendetsua, handia... Zenbaitetan nekagarria gertatu arren etxeratzean faltan botatzen duzu eta berriz hara joateko gogoia pizten zaizu". Nepal, berriz, *okzidentalagoa* iruditu zitzaion Aitorri: "Trekingerako eta raftingerako aukera zabala dago han eta zentzu askotan aurreratuagoa dago Nepal, onerako eta txarrerako. Motorrak errentan hartu eta Baujhlura joan ginen eta Trisu-

Udako postalak: oporretako oroitzapenak

(43. orrialdeetik dator)

li ibaian rafting egiten ibili ginen han. Bestalde, Katmanduko Budanath Stupa tenplu budista aipatzeko moduko lekua da, dagoen giro erlijiosoarengatik. Benaresen eta Ganges ibai sakratuaren inguruan sortzen den giroa ere erakargarria da eta hango erritoak zirraragarriak dira". GOIENKARIAN baino lehen, Agrako egunkari bateko azalean azaldu ziren aretxabaletarrak; euren bidaiaren berri jaso zuten indiarrek lehenbizi.

Patxi Azkarate

ANTZUOLA

"Tanzaniarren bizimodua bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dugu"

Kilimanjarotik gertu egon da Antzuolako koadrila bat: Asun Narbaiza eta Juan Tomas Zabalo senar-emazteak, Miguel Angel Lizarralde, Juan Jose Jauregi eta Patxi Azkarate. Aspalditik ezagutzen du Patxi Tanzanian dabilen Pepe Aguilar misiolari andaluziarra: "Mangola Chinin dabil lanean eta orain dela 11 urte ere emaztea eta biok joan ginen bisitan. Izugarri hazi da hura: 1.000 biztanle izatetik 10.000 izatera igaro dira azken hamarkadan. Kipula landaketatik bizi dira nagusiki eta esportatu egiten dute kipula beste herrialde batzuetara, Kenyara tartean. Eta han egon gara, gustura asko. Goizetan ahal genuen neurrian laguntzen genuen, bertako eskola eta ospitalea txukuntzen, pintatzen eta bestelako lan batzuk egiten. Oso harrera ona egin digute eta aukera izan dugu baita euren etxetara sartu eta euren bizimodua bertatik bertara ezagutzeko. Ondo etortzen da hori hemen daukaguna behar bezala baloratzeko...". Turismo pixka bat egiteko ere aprobetxatu dute



TANZANIAN Juan Jose Jauregi, Asun Narbaiza, Miguel Angel Lizarralde, Patxi Azkarate eta Juan Tomas Zabalo, tanzaniar lagun batekin, Mangola Chini inguruan.

eta, besteak beste, Ngorongoro-ko kraterra ikustera joan ziren. "Gu ginen herrira ere etortzen ziren turista batzuk, arratsalde partean, hango ilunabar ederrak ikustera". Gauza batekin harrituta geratu da Patxi: "Txokantea zera da: pobrezia da nagusi Tanzanian baina guztiek, txikiek eta nagusiek, telefono mugikorra erabiltzen dute".

Pedro Manso

BERGARA

"Izugarri gozatu dugu motorrarekin Santiagorainoko bidaia egiten"

Erdabide Vespa taldea eratu zuten iaz Bergaran. Vespa moto-

rren zaleak dira Jaime, Martin, Joseba eta Javier Erdabide anaiak, haien lehengusu Inazio Narbaiza, Joseba Etxaniz eta Pedro Manso. 25 urte inguruko Vespa motorrak dituzte guztiek eta erromesaldi bitxia egin dute Galiziaraino, Santiagoraino. Joan den egubakoitzean irten ziren Bergaratik eta bost egunetan 1.500 kilometro inguru egin dituzte. Martitzen arratsaldean iritsi ziren Bergarara. Pedro Mansok zera diosku: "Lehen aldian izan da horrelako bidaia luze bat egiten dugula eta asko gozatu dugu. Lehen egunean, Orreaga inguruan, euri pixka bat izan genuen baina gainerakoan primerako eguraldia izan dugu. Eta motorrek ere primeran erantzun dute... Hurrengo baten Vespa motorren jaioterria, Italiara joan nahi genuke elkarrekin".

Unai Lazkano 'Moe'

ARRASATE

"Rancid taldearekin gozatzeko gain, Boston eta New York ezagutu ditugu"

Unai Lazkano Moe eta Aritz Unamuno Tedi Ameriketako Estatu Batuetan izan dira, astebete, Boston eta New York hirietan. Hara joateko aitzakia Rancid Rock talde kaliforniarra izan zen. Moe-ren hitzetan, primeran ibili dira: "Uztailan enteratu ginen taldea Estatu Batuetan biran zebilela eta plan polita iruditu zitzaigun. Bostonen eta New Yorken Ranciden bina kontzertu ikusi ditugu, Avalon eta BB King aretoetan. Kontzertu ederrak izan ziren. Horrez gain, aipatutako bi hiri horiek

ezagutzeko aukera izan dugu. Boston hiri lasaia da eta New York, berriz, beste mundu bat. Ikaragarria. Toki asko ezagunak egiten zaizkizu horien erreferentziak jaso dituzulako eta oso hiri erakargarria da. Central Park pilo bat gustatu zitzaidan. Horren hiri erraldoian horrelako leku lasai bat topatzea eta txoriak entzutea gauza handia da. Bestalde, jendearekin ere primeran moldatu gara. Oso jende jatorrarrekin egin dugu topo han emandako egunetan".

Aritz Unamunok Des-kontrol taldean jotzen du. Eta oparixoa eman zion Rancid taldeko Lars Frederiksen gitarra joleari: Des-kontrolen azken diskoa. Europara biran datozenerako Moe-k eta Tedi-k argi daukate berriro ere Rancid zuzenean ikustera joango direla.

Uztailaren 24a:
096 zozketa

ASTELEHENEN GOIENKARIA
Harpidedunen

txokoa


Sariak astero!

Astelehenean, irailaren 4a sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleak bat!

096 zozketako saridunak

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko. (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Bixenta Azkoaga Beitia (Gatzaga)
- Josune Eraña Azkarraga (Eskoriatza)



097 zozketako sariak



DONOSTIAKO
AQUARIUMA
bisitatzeko bi
gonbidapen.
(saridun bakoitzari bi
emango zaizkio)

Baldintzak

- Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidedun saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:

24 euro
2006 bukaera arte

ASTELEHENEN
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

'KALEAN' EGITARAUA > MUSIKA ETA ANTZERKIA

Trapu zaharraren antzezlan bat eta Danni Leigh country musikaria, Oñatin

Gaur egungo countryaren emakumezko ahots onena, zapatuan

Danni Leighekin batera, Bergarako 'Poti' eta Bartzelonako beste musikari batzuk datoz

IKER BARANDIARAN > OÑATI

Udaro moduan, Oñatiko Udaleko Gazteria Sailak *Kalean* programa antolatu du. Urtaro honetako eguraldia kalean ekitaldiak egiteko aproposa dela baliatuta, kultura aretoetatik ateratzen dute. Aurten ere hala egin dute.

Hain zuzen ere, bihar, zapatua, AEBetako Danni Leigh country musikariak kontzertua egingo du Atzeko kalean, 22:30ean. Leighen taldean Iñigo Gallastegi *Poti* bateria jole bergararra dabil. Danni Leigh Virginian jaio zen; gaztetxotan hainbat taldetan ibili zen rocka eta countrya egiten. Horren ostean, Nashvillera jo zuen bere ametsetakoa musika, countrya, egiteko. Diskoetxe handien aginduen kon-



TRAPU ZAHARRA Ehorztetxe batek hiltzorian daudenei bizi izateko beste ordu bat eskainiko die. Umore beltza. MIRARI ALTUBE

tra gogor borrokatu du bere independentzia aldarrikatuz, eta hainbat disko kaleratu ditu.

Texasko kapela eta botak jantzita, eta country elektrikoa eginenez, gaur egungo countryaren emakumezko ahots onena duela esan dute hainbat adituk.

DOMEKAN, TRAPU ZAHARRA

Etzi, domeka, Trapu Zaharra antzerki taldeak *Tetrarip, el ultimo envase* kale ikuskizuna egingo du Atzeko kalean, arratsaldetan. Oso argumentu bitxia dauka antzezlanak: ehorztetxe bateko langileek hiltzorian dagoen gizon

bati bizi izateko ordu bat gehiago eskainiko diote haren herentziaren truke.

Ordu horretan hiltzorian dagoen gizonak bizitzan egindako akatsak zuzendu gurako ditu, eta senitartekoak herentziaren bila joango zaizkio.

> MUSIKA

The Damned taldearen emanaldia, bertan behera

Punkaren aitzindari izan den The Damned talde ingelesak bertan behera utzi ditu irailen European egin behar zituen kontzertuak. Euskal Herriko emanaldi bakarra irailaren 8an egitekoa zen Arrasateko 3.60 aretoan hain zuzen ere.

Emanaldi horiek bertan behera uztearen arrazoia da taldeko bateria jotzaileak (AEBetako da bera), hainbat aireportutan atentatu posibileen aurrean gertatutako arazoak direla eta, hegazkinnez bidaiatzeko beldurra duela. Horregatik kontzertuak bertan behera utzi dituzte.

Horren harira, 3.60 aretoko arduradunek jakinarazi dute dagoeneko kontzerturako sarrerak erosi dituztenek berorrek erosi dituzten areto, taberna edo dena delakotetan jaso ahal izango dutela dirua bueltan.

OÑATIN, PUNKA

Oñatiko San Migel Deunaren jaietan, berriz, izango da Ingalaterrako hainbat punk talde ikusteko aukera. Hain zuzen ere, irailaren 29an, UK Subs eta 999 talde esanguratsuak arituko dira, Arrasateko Des-Kontrol eta Donostialdeko Afonia taldeekin batera. Txosnagunean izango da, 22:00ak aldera.



GOIENKARIA

Debagoieneko bi film emango dituzte Donostiako Zinemaldian

Aurten ere Donostiako Zinemaldian Debagoieneko ordezkariak izango dira: Mireia Gabilondo bergararrak zuzendutako *Kutsidazu bidea, Ixabel*; eta Elgetan errodatutako *Bosque de sombras*, hain zuzen ere. Horrez gain, Jose Mari Gonzalez Gonza oñatiarraren Txoriak

Kutsidazu bidea, Ixabel filmean, Mireia Gabilondok eta Fernando Bernuesek izen bereko umorezko eleberria moldatu dute. Koldo Serra bilbotarrak, berriz, Elgetan errodatu zuen *Bosque de sombras*, Gary

MUSIKA > DANBAKA DEBAGOIENEN II. MUSIKA LEHIAKETA

Danbakan esku hartzeko aukera, irailaren 17ra arte

Hiru abesti original, bi argazki eta taldearen biografia aurkeztu behar dira

aren grabazioa ordaindu eta kaleratzeaz arduratuko dira; ikusleek bozkaturako taldeak musika tresnak jasoko ditu; eta bakarlari onenak beste sari bat jasoko du.

POSTAZ EDO INTERNETEZ

I.B > DEBAGOIENA

Goiena multimedia enpresak eta Elgetako Espaloia kafe antzokiak Danbaca Debagoieneko II. Musika Lehiaketa antolatu dute. Hiru sari emango dituzte: talde onenaren disko-

Hiru abesti original, bi argazki eta biografia bidali beharko dituzte Arrasateko 132. posta kutxara edo danbaka@danbaka.com helbidera. Aukera izango dute, baita ere, Goienako ordezkariatzatara eramateko.



BIGARRENA Danbakaren bigarren edizioa aurkeztu zeneko irudi bat. GOIENKARIA


INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokerosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:

- Duplexa. Masterreka. 180 m².
- Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
- Sukia eraikuntza. Prezio oso ona.
- Masterreka 92 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 55 m². Berrituta.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
- Ibargarai 109 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
- Fraiskozuri 104 m². Prezio ona.
- Ortuibar 97 m². Oso ondo.
- Martoko 85 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 70 m². Ondo.

Antzuola:

- Elkarren ondoan eraikitako 8 baitan: salgai. Hiru solairu, eguzkitua, sarbide ona, garaiea, txokoa eta terrazak.
- Aukera ona.
- Sagasti 90m². Prezio ona.


DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F: 943 73 12 40

BERGARA:

- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta. 60 m². Oso ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
- Aranerrea 75 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Mabiatagi 80m². Ondo.
- Madura 51m². Berrituta.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 71 m². Erdi berrituta.
- Artelale 74 m². Ondo.
- Angioza bi solairuko etxea. Berritzea.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraiskozuri 102. Ondo.
- Arizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m². Ondo.
- San Lorenzon 18 etxebizitza berri. Garaiea eta trastelekuarekin.

ANTZUOLA:

- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarki bakarririk iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.
GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.



PIPIEN, TERMINEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

649 84 67 09 (BERGARA)
943 33 18 37 (HERNANI)

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Sagasti auzoan etxebizitza salgai. Erdi jantzia. Hiru logela. 90 m². Balkoia eta terraza. Garaie itxi handia, aukeran. 607 63 48 88.

Arrasate. Bizkaia etorbidean etxebizitza salgai. Hiru logela. 670 42 07 98.

Arrasate. Grupo San Juanen etxebizitza salgai daukat. 628 79 81 05.

Bergara. Zabalotegin. 50 metro koadro. Bi logela, egongela, jangela, despentsa eta 14 metro koadroko sotoa. Dena berriztatuta. 635 72 67 11.

Oñati. 86 m². Bidebarrieta kalean, hiru logela, sukaldaria, egongela, bi bainugela, trasteleku eta garaiea itxia. Telefonoa: 943 73 08 67.

Oñati. Euskadi etorbidean etxea salgai. Oso eguzkitua. 945 14 18 17 edo 645 72 42 42.

103. ERRENTAN EMAN

Alcoceber (Castelló). Etxebizitza errentan ematen da irailean. 620 13 32 66.

Arrasate. 3 logela. 664 56 53 01 edo 943 79 33 93.

Arrasate. Erdialdean dago eta hirur logela ditu. Egokia ikasleentzat. Deitu 19:00etatik aurrera, mesedez. Jabier. Telefonoa: 685 94 02 21.

Arrasate. Etxea alokairuan eskaintzen dut. Erdi aldean dago eta hirur logela ditu. Jabier. 685 94 02 21.

Arrasate. Etxea errentan San Andres auzoan. Ikasleentzat ere baliagarria. 943 79 54 25.

Arrasate. Etxebizitza errentan ematen da Bizkaia etorbidean, Muxibar inguruan. 635 71 79 57.

Arrasate. Hiru logelako etxea errentan. Unibertsitatetik gertu. 655 72 14 80.

Baztan. Apartamentua errentan uztailan eta abuztuan (asteka hartzeko aukera). 636 49 46 87.

Benidorm. Apartamentua. Hondartzatik gertu. 630 41 84 65.

Benidorm. Etxebizitza errentan irailean. 945 29 33 80.

Cambrils. Apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik oso gertu. 610 79 47 29.

Donostia. Antiguon hondartzatik gertu, bi logelako etxebizitza. Abuztuaren Igo hamabostaldirako. Ekonomikoa. Telefonoa: 618 01 51 44.

Donostia. Egia. Etxebizitza ematen da errentan ikasleentzako. Bi logela. Deitu 21:00 eta 23:00 artean. 943 78 04 28.

Donostia. Etxebizitza ederra Grosen. 689 21 72 08 edo 943 32 26 25.

Jaca. Apartamentua errentan uztailan eta abuztuan. Bi logela. Garaiea. Igerilekua eta tenis pistak dituen auzunea. 665 73 95 65.

ANGIOZAR

Ortzi erretegia alokatzen da.

943 78 22 80
665 72 24 46

Oñati. Etxebizitza alokatzen da Oñatik plaza gertu (Zubibari kalean). 57 m². Bilogela. 656 72 10 35.

Oñati. Etxebizitza errentan ematen da. Lau logela eta bi komun. Berrituta. 605 74 52 02.

Oñati. Olakuan, bi logelako etxebizitza ikasleentzako edo irakasleentzako. 943 78 16 33.

Salou. Apartamentua. 4 pertsonarentzako. Itsasora begira. Jaime I.a pasealekuan. 943 32 26 25 edo 689 21 72 08.

Salou. Uztailan eta irailean etxebizitza errentan ematen da. Telefonoa: 689 21 72 08 edo 943 32 26 25.

Torreveja. Etxebizitza errentan ematen da. Bi logela. Hondartzatik gertu. 660 05 20 85.

Vera (Almería). Hondartzatik urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza alokatzen da. Guz-tiz jantzia. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

Vera (Almería). Hondartzatik urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza alokatzen da. Guz-tiz jantzia. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

ARRASATE

Plazan dagoen Zuk Nahi taberna alokatzen da.

618 76 34 40
605 76 08 29

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Aretxabaletan bikote batek etxebizitza (estudio...) alokatu nahi du irailetik aurrera. 645 72 58 41.

Bikote batek etxebizitza alokatu luke Bergara edo Antzuolan. 658 74 74 54.

105. ETXEA OSATU

Bergara. Logela errentan ematen dit. Deitu arratsalde, mesedez. 670 40 74 53.

Bilbo. Logela hartuko nuke alokairuan. 665 75 10 73.

Gasteiz. Etxebizitza osatzeko laguna behar da (irailetik ekainera bitartean). 645 71 81 84.

Gasteiz. Neska bat behar da etxebizitza osatzeko. 350 euro. Gastuak barne. 652 72 18 87.

2/ GARAIEAK

201. SALDU

Antzuola Behoko auzoan garaie itxia salgai. 607 72 02 42 edo 699 79 60 38.

Arrasate. Garaie itxia salgai Zaitegi plazan. 646 45 47 59.

203. ERRENTAN EMAN

Oñati. Garaie itxia alokatzen da Oñatin. Autoa apartatzeko erabiliko dutenek soilik deitu. 615 75 35 34.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Aretxabaletan. Emakume euskalduna behar da goizez edo arratsalde, umeak zaindu eta etxeko lanetarako. 615 79 20 66.

Bergara. Emakume euskalduna behar da etxeko lanak egiteko. 943 76 82 17.

Oñati. Goizetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. 943 53 41 91 edo 655 72 68 87.

402. ESKAERA

Arrasate. Emakume euskalduna gertu umeak eta adinekoak zaintzeko. 659 82 75 18.

Debagoiena. Mutila gertu denetarik lanetarako. 647 19 36 95.

Debagoiena. Neska gertu asteleneretik egubakoitzera lan egiteko. Garbiketara, umeak zaindu... 610 82 02 17.

Debagoiena. Sukaldari laguntzaila prest lanerako. Esperientziaduna. 628 48 05 41.

Neska batek lana egingo luke

OÑATI

Etxebizitza salgai. 120 m², altua, argitsua, igogailua, ganbara eta behe-barrua. Berritzeko dago. Prezio interesgarria. 637 73 90 39

iraileko goizetan. Autoa daukat. 676 62 02 74.

Tabernari edo zerbitzari lanak egingo nituzke. Eskarmentua. Yuli. 618 04 45 18.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Ingeleseko eskolak Aretxabaletan. 943 79 03 83.

Kantu klaseak ematen ditut. 649 07 06 37.

6/ MOTORRA

601. SALDU

Opel Astra Sportbi autoa salgai. SS-B. 73.000 km. Oso ondo zaindua. Iñaki. 600 64 86 45.

Peugeot 306 HDI autoa salgai. Ondo zainduta dago. Estrak ditu. Prezio ona. 665 72 71 65.

Volkswagen Multivan furgoneta salgai. 636 49 46 87.

602. EROSI

Diesel auto txiki bat erosi nahi dit, egoera eta prezio onean. Bego. 943 76 46 54.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Autorako maletategia salgai. 100 euro. 943 76 71 21.

Eskuko ordenagailua salgai (Pentium). Osagarriak eta programak. 250 euro. 605 73 37 39.

Hektarea bateko pinudia salgai Bergaran. 678 72 75 72.

Jaka. Larruzko jaka berria salgai. Hiru kolore ditu. 75 euro. 677 83 47 29.

Kalkulagailu zientifikoa salgai. Casio Cfx 9950G Plus. Gubix erabilia. 677 84 94 22.

Karro-denda. 4 lagunendako. Muntatzeko erraza. Ekonomikoa. 646 35 86 27.

Motorrak igotzeko mahaia salgai. Katua ere bai. 606 53 53 52.

Motorrerako kasko berria salgai. Prezio onean. Osagaiak oparitutak. 661 27 63 47.

Zakutoak. Motorrerako zakutoak (alforjak) salgai. 50 euro. 677 83 47 29.

807. AURKITU

Bergara. Urrezko eskumuturrekoa aurkitu nuen uztailan, Maribel izenarekin. Telefonoa: 943 53 26 00.

BERGARA

Tabernan lan egiteko zerbitzaria eta sukaldaria behar dira.

695 78 85 55
(Ma Karmen)

BERGARA


Duplex berria eta garaje itxia salgai.

699 49 14 14

ELGETA

Sukaldaria behar da.

660 01 48 45



ARANZADI IKASTOLA

ARANZADI IKASTOLAK ondorengo profila duen pertsona behar du **2007ko KILOMETROEN KOORDINATZAILEA** aukeratzeko:

- Antolakuntzarako ahalmena duena.
- Giza harremanetarako gaitasuna duena.
- Lantaldean aritzeko eta haiek dinamizatzeko gaitasuna duena.

BIDALI CURRÍCULUMAK HELBIDE HONETARA irailaren 8a baino lehen: bergara@ikastola.net

Aranzadi Ikastola / San Martin plaza 4
20570 BERGARA Tel: 943 76 90 71

Arrasaten kokatutako komunikazio enpresa batek Diseinatzaile grafikoa behar du.

Ezagutu beharrekoak:

FreeHand.
Photoshop.
QuarkXPress.

Kontuan hartuko dira:

Webgintza, CSS edo estilo orriekin diseinatzen jakitea.


Ezinbestekoa da:

Antzeko lanetan eskarmentua izatea.
Euskaraz jakitea.

Curriculumak bidaltzeko:

132 posta-kutxa
20500 ARRASATE (Gipuzkoa)
("Diseinatzaile grafikoa" erreferentzia jarri)

Curriculumak jasotzeko azken eguna:
2006ko irailaren 13a.



Txatxilipurdi Elkarte.

Antzuolako gaztelekuan asteburuetan lan egiteko jendea behar da.

Baldintzak:

- Orduetgia: Larunbatetan, 9-11 eta 5-8 Igandeetan, 5-9
- Bi asteburu lan eta bat jai
- Lehenbailehen hasteko

Eskoriatzako gaztelekuan asteburuetan lan egiteko jendea behar da.

Baldintzak:

- Orduetgia: Ostiraletan, 5-8,30 Larunbat eta Igandeetan, 16,30-20,30

Interesatuok bidali curriculuma honako helbideetara Txatxilipurdi. Pablo Uranga 6, behe. 943 79 54 46. gazteak@txatxilipurdi.com

hildakoak

- **Oscar Ramirez Nuñez.** Arrasaten, uztailaren 28an. 77 urte.
- **Angel Aperribai Madinabeitia.** Bergaran, abuztuaren 1ean. 81 urte.
- **Maria Nieves Jauregi Zubizarreta.** Arrasaten, abuztuaren 3an. 75 urte.
- **Migel Zugasti Maskariano.** Aretxabaletan, abuztuaren 5ean. 57 urte.
- **Benita Garcia Perez.** Oñatin, abuztuaren 5ean. 92 urte.
- **Cruz Balantzategi Ugalde.** Arrasaten, abuztuaren 6an. 75 urte.
- **Alberto Velasco Perez.** Arrasaten, abuztuaren 7an. 83 urte.
- **Jose Luis Santos Lopez.** Arrasaten, abuztuaren 9an. 52 urte.
- **Jose Maria Arregi Usaola.** Arrasaten, abuztuaren 10ean. 77 urte.
- **Miren Itziar Osinaga Agirre.** Bergaran, abuztuaren 11n. 75 urte.
- **Jose Gorrotxategi Garitaonandia.** Oñatin, abuztuaren 12an. 75 urte.
- **Maria Balantzategi Uriarte.** Arrasaten, abuztuaren 12an. 85 urte.
- **Maria Amparo Galiane Pablos.** Bergaran, abuztuaren 15ean. 70 urte.
- **Hermenegilda Eguren Agirrezabal.** Bergaran, abuztuaren 15ean. 82 urte.
- **Saturnino Arregi Etxabe.** Arrasaten, abuztuaren 15ean. 76 urte.
- **Jesus Etxebarria Garai.** Aretxabaletan, abuztuaren 19an. 83 urte.
- **Vicenta Igartua Erostege.** Aretxabaletan, abuztuaren 24an. 91 urte.
- **Elena Larrañaga Urisabel.** Bergaran, abuztuaren 24an. 90 urte.
- **Marta Garai Urbistondo.** Oñatin, abuztuaren 23an. 63 urte.
- **Francisco Barquero Martín.** Bergaran, abuztuaren 27an. 66 urte.
- **Maxima Gisasola Bilbao.** Bergaran, abuztuaren 28an. 90 urte.



Daniel Lopez eta eta **Isabel Santa Maria** arrasatearrak 1966ko uztailaren 30ean ezkondu ziren Gasteizen. 40 urte ezkontuta egin dituzte eta familia artekoekin ospatu zuten uztailean. Zorionak biei Kepa eta Unaitxo biloben partetik.



Asier Mendia antzuolarra eta **Anuska Valor** arrasatearra uztailaren 29an ezkondu ziren Zumarragako Antiguako elizan. Bazkaria Etxe-Berri jate-txean egin zuten eta eztei bidaian Tailandiara joan dira. Zorionak familiako partetik.



Abel Alonso eta **Aintzira Dalmou** arrasatearrak uztailaren 29an ezkondu ziren. Lagunek opa diete aurrerantzean ere orain artean bezain zoriontsu izan daitezela elkarrekin. Zorionak bikote, eta urte askotarako, lagun partetik.

URTEURRENA

Jabi Mayor Domingo

"Jabilo"

Arrasaten hil zen 2005eko irailaren 2an,
34 urte zituela

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 3an,
12:30ean, Arrasateko San Andresko
Jasokundearen elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Edo zatoz ordezkartzat batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 71 25 11.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
Laixan euskara elkarte: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22


Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

Eskelaren prezioa: 85 euro.

Prezio berezia:
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,
bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

Goienkaria: astero, 19.500 etxetan.



ESKER ONA

Primitiva Moreno Blázquez

Primi arraindegikoa
Jose Gaunaren alarguna

Bergaran hil zen 2006ko uztailaren 29an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko irailaren 1ean.

ESKER ONA

Roman Garitano Zurutuza

Bergaran hil zen 2006eko uztailaren 19an, 68 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2006ko irailaren 1ean.

URTEURRENA

Maritxu Arantzabal Leturia

Elgetan hil zen 2005eko abuztuaren 26an,
74 urte zituela

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailaren 3an,
12:00etan, Elgetako Jasokunde
Amaren elizan.




Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

bila-bila 7



hitz gezidunak

	Mintegi, sabitegi	Pintura	Hotsik egin gabe
	Simaur	IRUDIAN	Suntsitu
	Albiste		
	Azantz, hots		
Txiroa, behartsua	Ahul, mehe		
Zelan	Azal		
		Botika kantitate	
		Errepikatuz, txori mota	
Barkatu			K birritan
Oiloak erruten du			Zuzen, tente
			Zintzo
Erdi hitz-elkartetan		Automobil	
Zapalak		Kíloa	
		Zaletasun atzizkia	

LUMA



umore giroan

Kike Amonarriz

Txirringa


Patxiku Txikiren aitak amari:
- Gure seme honi ez zaio ezer zuzenik bururatzen, eta gero eta txorakeria gehiago egiten ditu. Ez dakit zer egin eta nola kontsola!
- Eta orain konturatu al zara?
- Ez! Aspalditik erreparatu diot bere jokaera berezi horri eta gauza bat pentsatu dut, ea zuzentzen dugun.
- Eta zer bururatu zaizu? — emaztea mesfidati—
- Txirringa bat erostea!
- Eta zuk zer uste duzu, txirringa erositara txorakeria gutxiago egingo dituela?
- Gutxiago ez dakit, baina urrutiago bai behintzat!

sudokua

4	5	1	8	9	3	2	7	6
7	3	2	6	4	1	8	9	5
8	6	9	7	2	5	4	1	3
1	8	7	5	6	2	3	4	9
9	2	3	4	7	8	6	5	1
5	4	6	3	1	9	7	8	2
6	9	5	2	8	7	1	3	4
2	1	8	9	3	4	5	6	7
3	7	4	1	5	6	9	2	8

hieroglifoa

Nola zihoan jantzita Patxi?




hizki salda

Euskal Herriko bost bertsoariaren abizenak

F	E	T	U	R	J	O	A	E
M	A	Ñ	U	K	O	R	T	A
E	S	A	G	S	J	O	I	Ñ
S	T	R	A	U	Z	L	O	A
I	A	Z	K	A	O	A	N	G
O	I	B	N	A	J	U	L	E
L	M	E	D	I	L	Z	R	T
E	L	U	P	E	A	T	Z	U
A	G	A	I	R	R	U	T	I

soluzioak



N	U	I	K	V	N	V	L
O	T	A	V	T	R	E	R
V	Z	T	U	A	R	A	V
K	K	V	K	A	R	B	A
I	S	O	D	A	L	O	N
L	I	G	N	I	Z	P	
I	R	R	E	B			
S	A	T	W	V	S		
I	W	S					

bono fotoa





Super BM emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Kas limoia edo naranja
2 l-ko botila

0,89 € 148 pta.
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
AITZOL AXPERendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Gernikan.

Urku aldea ageri da argazkian. Nondik dago eginda argazkia?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta.

8	2	9	6	1	5	4	7	3
7	5	4	3	6	8	1	2	2
4	1	3	4	2	8	7	6	6
2	8	7	6	1	3	1	5	4
1	5	6	8	4	7	3	2	6
4	9	3	4	2	6	7	8	1
3	1	4	5	2	7	6	9	8
5	9	8	1	4	6	2	3	7
6	7	6	3	2	9	8	1	4

Jeroglifikoak: Dotore. Do-to-re

I	A	G	A	I	R	R	U	T	I
E	L	U	P	E	A	T	Z	U	
L	M	E	D	I	L	Z	R	T	
O	I	B	N	A	J	U	L	E	
G	I	A	Z	K	A	O	A	N	
V	S	T	R	A	U	Z	L	O	
N	E	S	A	G	S	J	O	I	
V	M	A	N	U	K	O	R	T	
E	F	E	T	U	R	J	O	A	



ZURE LURRINDEGI BERRIA BERGARAN

Kruz Gallastegi kalea, 1-3
BERGARA (Gipuzkoa)

Kosmetikako, lurringintza eta higieneko
eta zaintza pertsonaleko marka ospetsuenak

Aholkularitza profesional pertsonalizatua

Eta, gainera...

Opariak eta eskaintza bereziak.



ZATOZ GAUR gurekin inaugurazioa ospatzera
eta OPARI eder bat eramango duzu.

Begiratu WEB orri honetan:

www.infaradis.com

LOEWE

TOUS
EAU DE TOILETTE

LACOSTE

ORLANE

GIORGIO ARMANI

ROCHAS

LANCÔME

VICTORIO & LUCCHINO

RALPH LAUREN

YVES SAINT LAURENT

HERMÈS
PARIS

ADOLFO DOMINGUEZ

CLARINS
PARIS

CAROLINA HERRERA

(cacharel)

ESTÉE LAUDER

Calvin Klein

Parfums
Lolita
Lempicka
Paris

CLINIQUE

paco rabanne

BVLGARI
PARFUMS

SHISEIDO

ROGER & GALLET
PARIS

BOSS
HUGO BOSS

CHANEL


DKNY

L'OREAL

BIOThERM

KENZO

DOUCE & GABBANA



Manex Agirre > Bertsolaria

"Idaztea lana da, nahiz eta batzuek mitifikatu eta gozamina dela esan"

Manex Agirre aramaioarra oso ezaguna da ibarrean, nahiz eta azkeneko bi urteak Granadako *erbestean* eman dituen. Euskal Filologia eta Literatura ikasteaz gain, bertsolaritzan buru-belarri ibili da eta ohikotik kanpo dauden hainbat proiektu literario eta informatibotan esku hartu du, Gasteizen, Aramaion zein Arrasaten, hala nola: Hala Bedi, *Putz...*

IKER BARANDIARAN > ARAMAIO

Manex Gasteizera doa bizi izatera. Han, Granadara joan aurretik utzitakoak berreskuratuko ditu: bertso eskolak, Hala Bedi irratia... Ez du aspertzeko aukerarik izango.

Zer izan gura zenuen nagusitan?

Beti esaten nuen arotz izan gura nuela. Oso lanbide polita iruditzen zitzaidan, eskuekin lan egitea... Baina institutuan konturatu nintzen gustuko nuena letrak zirela.

Arrasatera, institutura, joan zinenean konturatu zinen Aramaio txiki gelditu zitzazula?

Ez, Aramaio ez zait sekula txiki gelditu, batzuetan handia ere egiten zait. Baina konturatu nintzen beste behar batzuk ere banituela.

Zer da, hortaz, Aramaiotik gehien lotzen zaituena?

Familia, etxea eta lagunak. Horrez gain, gazte batzarra arrazoi garrantzitsua izan da herrira sarri etortzeko. Gazte batzarra izan da azkeneko urteetan Aramaiorako egin den gauza onena.

Ikasle ona izan zarela dirudi...


Gasteizera joan arte oso txintxo izan naiz, eta gerora ere ikasketak guztiekin aurrera egin dut. Gasteizen Euskal Filologia lau urtez eta Granadan Literatura bi urtez ikasi ostean, nekatu egin naiz.

Zergatik aukeratu zenuen Gasteiz? Eta zer aurkitu zenuen han?

Euskal Filologia ikasteko bi aukera nituen: Deustua edo Gasteiz. Bilbok erakarri egiten ninduen, baina Deustuko unibertsitateak ez. Horrez gain, kanpora irteteko eta neure kasa bizi izateko gogoz nengoen. Gasteizera aurreiritzi barik joan nintzen, baina urte bizi-biziak izan ziren. Hiri horrek oso giro ona dauka, jendeak uste duen baino euskaldunagoa da...

Hala Bedi irratian ere esku hartu zenuen...

Bai, *Bertsoko* saioa egiten genuen. Hala Bedi eta horren funtzionamendua oso eredu-garriak dira eta, gainera, Araban gehien entzuten den bigarren irratia da. Granadan nengoela astero umorezko kolaborazio batzuk egiten nituen, baina aspaldian ez dut ezer egin. Orain berriro ekingo diot.



IKER BARANDIARAN

PERTSONALA

Herria: Aramaio. **Adina:** 24 urte. **Zaletasunak:** Mendira joatea, musika entzutea, irakurtzea eta *frisbee* delakoarekin jolastea. **Liburu bat?** Koldo Izagirreren *Sua nahi Mr. Churchill?* **Zer filmetako protagonista izango zinateke?** Bruno Ganz *El cielo sobre Berlin* filme-

an. **Betetzeko daukazu amets bat?** Arabako txapela janztea. **Noiz bota duzu bertso onena?** Onena ez dut gogoratuko, ziurrenik parrandaren baten botako nuelako, baina gogoan daukat Arabako final txarrean Rubenekin ofiziotan bota nuen zortziko txikia.

Noiz eta zelan hasi zinen bertsotan?

Txikitan ez neukan zaletasunik, baina 17 urterekin Oihane Pereak esan zigun Aramaion bertso eskola egin gura zutela. Horren ostean, Gasteizera jotzean, Arabako Bertso Eskola sortzen zebiltzan, Arabako Bertso Txapelketa indartzen... Olatua hartu nuen eta horren zurrunki-loan ibili naiz.

Eta azkenaldian aritzen zara bertsotan?

Oso gutxi. Granadan egon naizen bitartean alde batera utzi dut, han ez neukalako aukerarik. Eta igartzen dut asko galdu dudala: oinarrizko akatsak egiten ditut, abiadura galdu... Lehen, astero Gasteizko Bertso Eskolan, Arrasatekoan eta Aramaioan aritzen nintzen, asteburu batzuetan saioak, gazteen txapelketak...

Bi urte egin dituzu Granadan, eta maharaja baten moduan bizi izan zara koba baten...

Bai, Literaturaren Teoria ikastera jo nuen hara. Han lagun bat neukan, Iraitz Agirre, eta hark animatu ninduen Granada aukeratzera. Euskal Herritik irteteko gogoz nengoen, mundua ikusteko beste modu batzuk eza gutu gura nituelako. Sacromonte auzoan bizi izan nintzen, oso gustura eta oso lasai. Hango erritmo lasaira oso ondo egokitu naiz, eta banuen premia apur bat. Etxekobak ere izan du eragina horren gustura egoteko. Urtebete gutxi-egi litzateke, baina bi urte nahikoa izan da.

Idazteko zaletasunari eusten diozu?

Bai, baina alfer samarra naiz. Nahiz eta burura ideiak etorri, eskatzen ez badidate ez naiz idazten jartzen. Azken finean, idaztea lana da, nahiz eta batzuek gozamina dela esan. Jendeak idaztea mitifikatu egiten du, inspirazioa eta hori guztia... Zerbait gura baduzu, horretara jarri behar duzu. Sasoi baten *Putz* aldizkarian idazten aritu nintzen; *Txirritola*-n ere ibili nintzen; Granadatik Euskadi Irratiko *Ipurtargia* saiorako kolaborazioak egiten nituen; lagun batzuek Gasteizen *Mitte* izeneko fantzinea kaleratu genuen; eta Eneko Barberenarekin batera *Kulturisten kofradia* ikuskizuna egiten ibili ginen. Oso ondo pasa nuen horiek guztiak egiten, eta badut gogoia berriro ekiteko.

berriak

> BERRIAK

Goiatz Arana izango da albistegietako aurpegi berria

Ikasturte berriak aurpegi berria ekarriko du Goiena Telebistako albistegietara. Orain arte *Behazulo* saioa zuzendu duen Goiatz Aranak hartuko du beregain eguneko albistegietako bat. Julen Iriondorekin batera lankidetzan ibiliko da kazetari ormaiztegiarra.

Albistegiak irailaren 4an itzuliko dira. Eguerdiko partean izango da lehenengo tartea eta iluntzean bigarrena.

> PROGRAMAZIOA

Gaztetxoendako tarte berezia eskainiko du GOITBK

Etxeko txikienek saio propioa izango dute ikasturte berrian. Goiena Telebistak ez ditu ahaztu eta hiru tarterekin osatutako programa gertatu du. Espazio berriak marrazki bizidunak eta zorion-agurren tartea izango ditu, baita *Ikusi-makusi* izeneko txokoa ere. Azken hori berria da eta gaztetxoak izango ditu protagonista.

Tarte berria 13:15ean eta 20:30ean eskainiko dute.

> ARRASATE IRRATIA

Oporretatik bueltan 'Uda giroan' saioa abian da berriz ere

Eguenean ekin genien zuzeneko saioei. Irailaren amaiera bitartean izango dugu *Uda giroan* saioa. Ohiko lagunekin elkartzen hasi gara dagoeneko; Donostiako Aquariumeko marketin arduradun Xabier Lasagarekin, besteak beste. Lasagak irailaren ere gure entzuleendako Aquarium-erako sarrerak agindu dizkigu. Deitu, bada, 943 71 17 31 telefono zenbakira eta eskuratu sarrerak!

> SARIA

Oporretako kontuak kontatzearen truke saria irabaz dezakezu

Irailako *Uda giroan* saioa zuekin egin nahi dugu, zuek irratiko esatari edo berriemaile izatea nahi dugu.

Oporretan bazaude, bidal egiguzu postala, Otolara 31 helbidera. Dagoeneko herri-irratiko itzulita bazaude, kontatu 943 71 17 31 telefonoaren bitartez, edo bestela irratia@goiena.com helbidera idatzita, non egon zaren eta zer ikusi duzun; guk, trukean, jasotako guztien artean zozketa egingo dugu.

'HARMAILATIK' > ASTELEHENA, 22:15

G2ko tontorra zapaldu eta gero, 'Harmailatik' saioan

Hiru debagoiendarrez osatutako espedizioaren berri eskainiko du Julen Iriondok kirol saioan

GOIENKARIA > ARRASATE

Uztailaren 22an iritsi zen aurreneko debagoiendarra G2ko tontorrera. Ondoren, batek izan ezik, beste guztiek zapaldu zuten zortzimilakoaren gaina.

Bost kidek osatu zuten espedizioa. Horietako hiru debagoiendarrak: Mikel Sasiain, Llodio eta Iban Silbar arrasatearrak. Ibarrekoekin batera Andoni Ormazabal eta Oier Plazaola izan ziren G2ko tontorrean. Julen Iriondok Mikele eta Josu Juanen ahotik eskainiko du bidaiaren berri asteleheneko *Harmailatik* saioan.



GASHERBRUM II Sasiain, Llodio eta Silbar G2an izan ziren uztailaren.

'NAZIOARTEKO DANTZA JAIALDIA' > EGUBAKOITZA 21:15

Nazioarteko dantza ikuskizun koloretsua Bortzirietako Bera herritik

GOIENKARIA > ARRASATE

Irungo Eraiki elkarteak urtero egiten du nazioarteko dantza jaialdia. Bortzirietako eskualdean antolatzen dute, hango udalen laguntzarekin. Munduko dantza desberdinen erakusgarri izan ohi dira ekitaldiak.

Ttipi-ttapa telebistak Beran egindako ikuskizuna grabatu eta ekoiztu du; horri esker, Goiena Telebistako ikusleek ere aukera izango dute dantza ekitaldia ikusteko. Gaur, egubakoitza, izango da lehenengo emanaldia, 21:15ean.

Ikasturte berrian, Goiena Telebistak lankidetzan jarraituko du Euskal Herriko beste tokiko telebista batzuekin. Erautu duten Tokiko elkarteari esker, GOITBK honako bost telebistekin estutuko ditu harremanak: Zarautz Telebista, Goierri Telebista, Ttipi-ttapa, Urdabai Telebista eta Xalao.

Elkarteko telebista bakoitzak sortu eta ekoiztutako saioak eskainiko dituzte gainerako guztiek. Horri esker, GOITBK eskaintza zabalagoa izango du gaur, hilak 1, abiaraziko duen ikasturtean.

telebegi

Edorta Arana > www.goiena.net/blogak/hamaika

Dieta

Hiztegiak dio "pertsonek batek jan ohi dituen elikagai desberdinen multzoa" dela. Nik, telebistaren kasuan, behar egin dut ikus-entzun ditudan programen dosian. Udararen hala izaten da orokorrean. Telebista eguneroko ohiturekin erlazionatuta ageri zaigu eta badirudi argitasun eta bero gehiagoko egunetan ez dugula horrenbeste denbora ematen pantailaren parean. Bestelako kontsumo patrioak ditugu, itxura batean.

Orain, irailarekin batera, itzuli gara egunerokora eta hor kokatzen da sendo eta harro telebista aparailua, plasmakoa ala ipurdi handikoa, kable bidezkoa ala antena darabilena, berdin dio, hor izango dugu etxeko gelarik preziatuenaren jabe. Hori bai, jatetxeetan bezala, berehala hasiko zaizkigu telebistetako arduradunak aurtengo menuaren berrikuntzak zeintzuk diren aurkezten. Dieta berrirako elikagaiak zeintzuk izango diren esango digute. Baietz transgeniko ugari eskaini. Tira, ETB-1en kasuan, badut jakingura puntua, izan ere, aldaketak iragarri dituzte. Ikusteko jaiok ei gara!

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
G2ko mendi espedizioa berbagai, Iban Silbar eta Josu Juan Llodiorekin; AGKO argazki lehiaketaren gainean, Monika Belastegirekin...

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik ostiralera

10:00-12:00 Uda giroan!
Albistegiak.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Bainurako tokien egoera (Garaio urtegia, Musakolako igerilekua)
Zozketak (Donostiako Aquarium-erako sarrerak...)
Zorion agurrak (parte hartzeko deitu 943 71 17 31 telefonora)

12:05 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegi.
14:00 Igo autobusera! (errepikapena).

17:00,19:00,21:00,23:00 Albistegi laburra
17:15 Zorion Agurren tartea (errepikapena)

GOITBKo programazioa

Egubakoitza, 1

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Musika saioa. 14:30 MI: Eguraldia eta zerbitzuak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Iparorratza. 15:30 MI. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Berbaire. 17:30 Eltze beroa. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Erreportaia. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Jazz. 19:45 Albistek. Julen Iriondo. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Behazulo. 21:45 Albistek. Julen Iriondo. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. Goiatz Arana. 23:15 Didjeridu. 23:45 Albistek. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 2

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 10:50 Astekoak. Informazio saioa. 11:00 Jazz. 11:30 Klip. 12:00 Didjeridu. 12:30 Mkt. 14:30 Astekoak. 14:45 Erreportaia. 15:15 Marrazkiak. Snorkeldarrak. 16:00 Bihurkorak. 18:00 Teknopolis. 18:30 Berbaire. 19:30 Sustrai. 20:00 Astekoak. 20:15 MKT. 20:30 Behazulo. 21:00 Ilunpean. 21:30 Euskal Herria Oinez. 23:30 Debarri. 00:30 Emisio amaiera.

Domeka, 3

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Behazulo. 11:30 Ilunpean. 14:00 Euskal Herria oinez. 14:30 Jaiak Lesaka 2006. 15:00 Jaiak Antzuola 2006. 16:00 Marrazki bizidunak. Card Sakura/Snorkeldarrak. 17:30 Didjeridu. 17:45 Astekoak. 18:00 Iparorratza. 18:30 Jazz. 19:00 Elkartasun bideak. 19:30 Teknopolis. 24:00 Eltze beroa. Astekoak. 00:45 Emisio amaiera.

Astelehena, 4

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 08:50 Klip. 11:00 Euskal Herria Oinez. Aizkorri eta Udaltz. 11:30 Eltze beroa. 12:00 Elkartasun bideak. 12:30 Ilunpean. 13:00 Berbaire. 14:00 Debarri. 15:00 Marrazkiak. Snorkeldarrak. 16:30 Danbaka. 17:00 Didjeridu. 17:30 Jazz. 19:30 Teknopolis. 20:00 Ilunpean. 20:30 Didjeridu. 22:30 Berbaire. 00:00 MKT. 00:30 Emisio amaiera.

Martitzena, 5

07:55 Emisio hasiera. 08:00 Marrazki bizidunak bilduma. 11:00 Eltze beroa. 11:30 Danbaka. 14:30 Jaiak Lesaka 2006. 15:00 Euskal Herria Oinez. 15:30 Ilunpean. 16:00 Marrazki bizidunak. Card Sakura/Snorkeldarrak. 17:30 Debarri. 18:30 Elkartasun bideak. 19:00 Didjeridu. 19:30 Behazulo. 20:00 Berbaire. 22:00 Elkartasun bideak. 22:30 Didjeridu. 23:00 Eltze beroa. 23:30 Astekoak. 23:45 Emisio amaiera.

Eguaztena, 6

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Didjeridu. 14:30 MI. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Behazulo. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 Zera dio. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Sustrai. 18:15 Teknopolis. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Didjeridu. 19:45 Albistek. 20:15 Marrazki bizidunak eta Zorion Agurrak. 20:45 Berriak. 21:15 Sustrai. 21:45 Albistek. 22:15 Sustraiak. 22:45 Berriak. 23:45 Gaurkoak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 7

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zorion agurrak eta marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Klipak. 14:30 MI. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:00 Sustrai. 15:30 MI. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Jazz. 16:15 Klipak. 16:30 MI. 16:45 Albiste aurrerapena. 17:00 Jazz. 17:30 MKT musika. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Elkartasun bideak. 18:45 Iparorratza. 18:45 Albiste aurrerapena. 19:00 Klipak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Albistek. 20:15 Marrazkiak. 20:45 Berriak. 21:15 Elkartasun bideak. 21:45 Albistek. 22:15 Didjeridu. 22:45 Berriak. 23:15 Harmailatik. 23:45 Albistek. 23:15 Emisio amaiera.

Goiatz Arana > GOITBko aurkezlea

"Saiatuko gara gaiak sakonago lantzen eta albiste bitxiei ere tartea eskaintzen"

Aurkezle ormaiztegiarrak albistegiak aurkeztuko ditu datorren astetik aurrera GOITBn

Lau urte daroa GOITBn eta aurretik Teledonostin eta Euskadi Gaztean ibili da

ENEKO AZKARATE > ARRASATE
Goiatz Aranak (Ormaiztegi, 27 urte) aurkeztuko du GOITBko albistegietako bat datorren astetik aurrera. Julen Iriondok aurkeztuko du beste albistegia. Horixe da Goiena Telebistak ikasturte berrirako prestatu duen berritasunetako bat. Izan ere, Deiane Arrietak utzitako tokia beteko du orain arte *Behazulo*saioa aurkeztu duen Goiatz Aranak.

Goiena Telebistak ikasturte berrian izango duen albistegietako aurkezleetako bat izango zara Julen Iriondorekin batera. Zelan hartu duzu erronka berria?

Ilusioarekin. Lau urte egin ditut *Behazulo* saioarekin, eta, gustura jardun dudana arren, banuen aldatzeko gogoia.

Deiane Arrieta ordezkaturiko duzu zeregin horretan. Albistegiei zeure estilo propioa eman nahi diezu?

Egia esan, ez dut horretan pentsatu. Gustura entzuten diren aurkezle horietakoa izan gura nuke, eta saiakera horretan estilo propioa izatera iristen banaiz, ba oso ondo. Horretarako gai banaiz, berez etorriko da.

***Behazulo* aurkezten ere jardundakoa zara. Alde handia dago *Behazulo* aurkeztu edo albistegiak aurkeztu?**



Goiatz Arana GOITBko platoan. Astelehenetik aurrera albistegietako aurpegi berria izango da.

AMAGOIA LASAGABASTER

Dezentekoa. Albistegi bat *Behazulo* bezalako saio bat baino mugatuagoa da betiere.

GOITBko aurkezleak, kamera aurrean jartzeaz gain, albistek idatzi ere egiten ditu, ezta?

Telebista txikietako errealitatearen parte da hori. Pentsaezina da albistegia aurkeztu aurreko lan guztia besteek egin izatea.

"Saiatuko gara aldaketa txiki batzuk egiten: merezi duten kasuetan gaiak sakonago lantzen"

"Ez daukat batere ohiturarik etxean telebista ikusten geratzeko"

Albistegiak ezberdinak izango dira edo estilo berekoak izango dira ikasturte berrian?

Saiatuko gara aldaketa txiki batzuk egiten: merezi duten kasuetan gaiak sakonago lantzen, edota albiste bitxi nahiz arinei minutu batzuk eskaintzen.

Telebista asko ikusten duzunetakoa zara?

Ez, ez daukat batere ohiturarik etxean telebista ikusten geratzeko, nahiz eta maiz pentsatzen dudana gehiago ikusi beharko nukeela, nire ogibidea zein den kontuan izanda; beti dator ondo besteek zer eta nola egiten duten jakitea.

Zer ikusten duzu bereziki?

Telesailen bat eta albistek.

Albistegiak zein katetakoak dituzu gustukoak?

"Euskaraz lan egiteko aukera eskaintzen dit Goiena Telebistak"

Lau urte daroa Goiena Telebistan, kazetari eta aurkezle lanetan.

Aurretik Teledonostin eta Euskadi Gaztean jardundakoa da, telebista eta irrateria "biak ditualako gustuko". 2002an GOITBn hasi zen, "lan baldintzak hobetzeko eta euskara hutsean lan egiteko aukera eskaintzen zidalako". Ikusentzunezko komunikazioa ikasi zuen Nafarroako Unibertsitatean.

Egunero egiten du joan-etorria Ormaiztegitik Debagoienara eta baita gustura egin ere: "gustatzen zait gidatzea eta autoan ematen dudana denbora niretzako denbora da". Hortaz, ez dauka Debagoienara bizitzera etortzeko asmorik.

Cuatro eta La2 kateetakoak ondo daude.

Eta aurkezlea?

Lorenzo Milak badaki albistegiak erakargarri egiten, eta Iñaki Gabilondo gustatzen zait; igartzen da urteak eman dituela irraturan. Eskarmentua hartzeko leku ona da irrateria.

Gero eta telebista eskaintza handiagoa dagoen honetan, zein da GOITBko albistegien ekarpen nagusia?

Etxekoagoa da gure produktua: gertuko eta euskara hutsean egin.

Zer beste saio egingo zenuke gustura GOITBn?

Ez nuke bakar bat aukeratu. Ikusi egin behar...

Irratian ere jardundakoa zara. Non gusturago?

Biak gustatzen zaizkit asko.

Eta prentsa?

Ez hainbeste. Kontatzeko idazten dut idazten dudana.

Ormaiztegiarra izaki, nola moldatzen zara Debagoienan?

Ongi, nahiz eta batzuetan galduago ibili.

Egunero egiten duzu joan-etorria?

Bai. Gustatzen zait gidatzea eta autoan ematen dudana denbora niretzako denbora da.

Eta egunen batean Debagoienara bizi izatera etortzeko asmorik bai?

Ez da leku txarra, baina ideia hori ez dago nire asmoen artean.

Nola igarotzen du aisialdia Goiatz Aranak? Zer egiten duzu asteburuetan?

Mendira joan eta parrandan irten.

Udan nondik nora ibili zara?

Finlandia zeharkatu dut goitik behera eta Ipar Lurmuturrea ere iritsi naiz.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko [blog komertzialak](#)

- Zure negozioaren eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:
www.goiena.net/blogak ·
azabarte@goiena.com ·
943 76 92 70

www.goiena.net/blogak

/4quattro4	/BZ-sistemas	/ezkutuorly	/guztizeder	/multioplicas	/udalatz
/argi-plastik	/dragon-oriental	/gallastegi	/irudisport	/ohiak	/udalaitz
/arregi	/arregi	/ganesha	/korozabaleta	/okipark	/urdeki
/atai	/dukiena	/garaia	/maulanda	/vitoria	/markiegi
/azkarate	/ego	/gorkagarai	/mayte	/pando	/urbieta
/joseba	/elejalde	/gorkataxi	/merkeopari	/richimaier	

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com
www.ehmff.com.



Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

DANBAKA))))))

Debagoieneko II. Musika Lehiaketa

**PARTE
HARTU
NAHI?**

Izena emateko azken eguna: irailak 19

INFORMAZIO GUZTIA:

www.danbaka.com

Irailak 1-8

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

Erakusketa



BERGARA

> Sahararen inguruko argazki erakusketa zabalduko du gaur Bubisherrek

Sahara. Herri bat; bi errealitate erakusketa zabalduko dute Aroztegi aretoan gaur, egubakoitza, 19:00etan. Bubisherreko kideek ateratako argazkiek, hango jantziek eta bideo batek osatzen dute erakusketa.

Lehiaketa



DEBAGOIENA

> Goienaren II. Udako Argazki Lehiaketan parte hartzeko aukera dago

Udako argazki argitaragabeekin parte har daiteke, koloretan zein zuri-beltzean. Lanak argazkiak@goiena.com helbidera bidali behar dira, edo Goienaren egoitzaren batera. Argazkiak eta argibide gehiago: www.goiena.net/blogak/argazkiak.

Antzerkia



ELGETA

> Yllana taldearen 'Star trip' antzezlanerako sarrerak salgai daude

Ohiko umore garratzarekin eta ironiarekin, Yllana taldeak *Star trip* ikuskizuna egingo du irailaren 22an, egubakoitza, Espaloia antzokian. Sarrerak salgai daude dagoeneko antzokian bertan, ohiko salneurrian.

BERGARA

> Kiki, Koko eta Moko pailazoen emanaldia egingo dute

Kiki, Koko eta Moko pailazoen emanaldia antolatatu du Jardun euskara elkarteak irailaren 8rako, egubakoitza. Muniñe plazan izango da, 18:00etan.

Ikuskizunak

ELGETA

> 'Bideak' lana estreinatuko du Aukeran dantza taldeak

Aukeran dantza taldeak *Bideak* lana estreinatuko du. Debagoieneko estreinaldia izango da. Espaloia antzokian egingo dute emanaldia hilaren 29an, egubakoitza, 22:30ean.

Sarrerak salgai daude Espaloia antzokian bertan.

Jaiak

LEINTZ GATZAGA

> Andra Mari jaiak ospatzen hasiko dira hilaren 7an

Andra Mari jaiak, herriko jai nagusiak, ospatzen hasiko dira gatzagarrak hilaren 7an, datorren egunean. 18:00etan egingo dute hasiera ekitaldia, raflen ezkil emanaldiarekin, etxafuegoekin eta bonba japoniarrekin.

Gero, 19:00etan, Dorletako Santutegian bederatziruena entzungo dute, eta Eskoriatzako abesbatzak abestu egingo du. Segidan, ogi eta gazta-jana izango dute agertu diren guztiek.

Jaietako azken eguna irailaren 17a izango da.

ELGETA

> Lambretta eta Vespa motorren kontzentrazioa egingo dute

Lambretta eta Vespa motorren I. Kontzentrazioa egingo dute irailaren 24an, zapatua. Egitarau zabala prestatu dute. Besteak beste, bazkaria egingo dute, eta izenematea udaletxean egin behar da (943 76 80 22 da telefonoa).

Honako ekintzak izango dira: 11:00-12:00, motorren kontzentrazioa plazan; 13:15ean, Elgeta-Ubera-Bergara-Angiozar-Asentzio-Elgeta ibilbidea; 14:30ean, bazkaria; eta 17:00etan, etxera.

Bazkarirako izenematea zabalik dago irailaren 20ra bitartean.

ARAMAIO

> Marixeka eguna ospatuko dute etzi, iraileko lehen domeka

Marixeka eguna ospatuko dute. Egitaraua honakoa izango da: 12:00etan, meza esango dute Marixekako ermitan, eta erromeria izango da gero. Taberna eta bazkaria egingo dituzte segidan.

Marixekako elkarrekoek antolatu dute.

Musika

ARRASATE

> Doctor Deseo eta Rafa Rueda-ren musika emanaldia

San Juan jaietan bertan behera geratu zen kontzertua bihar, zapatua, egingo dute. Hain zuzen, Doctor Deseo taldeak eta Rafa Rueda bakar-lariak egingo dute kontzertua.

Bihar, zapatua, Monterron parkean, 22:30ean. Sarrera, doan.

OÑATI

> Randy the Band eta Rabia Positiva taldeek joko dute

Randy punk-rock estiloko talde suediarrek kontzertua egingo du irailaren 9an, zapatua. Poparen melodia eta punkaren agresibitatea bateratzen dituzte. Gau berean, Kataluniako Rabia Positiva taldeak joko du. Hardcore-punk estiloko talde bateranoa dugu hori.

Gaztelekuan, 22:30ean.

ARAMAIO

> Alemaniako abesbatza batek emanaldia egingo du

Nazioarteko Abesbatzen Topaketaren barnean, Alemaniatik etorritako abesbatza batek emanaldia egingo du hilaren 6an, eguaztena.

Elizan izango da emanaldia, 20:30ean.

ERGARA

> San Martin jaietako musika emanaldi bereziak

San Martin jaietarako, techno estiloko musika emanaldiak antolatu ditu Jam aretoak. Irailaren 16an izango dira biak. Gauekoa Technimal II jaia izango da, eta Techno aretoan eta Minimal aretoan hainbat DJ arituko dira. Bigarren jaialdia hiru DJk girotuko dute.

Horrez gain, honako kontzertuak egongo dira:

Brujeria eta Hora Zulu (irailak 22), Lacuna Coil (irailak 30), eta Lordi, Eurovision lehiaketako irabazleak (urriak 20).

Lehenengo saioa, 22:00etan; bigarrena, irailaren 17an, 10:00etan.

Lehiaketak

DEBAGOIENA

> II. Danbeka musika lehiaketan parte hartzeko epea, zabalik

Goienak antolatutako II. Danbeka musika lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago irailaren 19ra arte. Debagoieneko talde edo bakarlariek hiru jatorrizko abesti, biografia bat, bi argazki eta harremanetarako kontak-tua bidali behar dituzte Arrasateko 132 posta-kutxara edo danbeka@danbeka.com helbidera.

Argibideak: www.danbeka.com.

ARAMAIO

> Postal lehiaketa antolatu du Txirritola euskara elkarteak

Udako oportetako postalen lehiaketa deitu du Txirritola euskara elkarteak. Irailaren 15era arte parte har daiteke, postalak kultura etxera bidalita, Nardeaga kalera. Saria da nekazal turismo baten asteburua.

Irailaren 15era arte dago zabalik.

DEBAGOIENA

> 'Gomendatzen dizut...' lehiaketan parte har daiteke

Arrasateko eta Bergarako Gazte Informazio Zerbitzuek antolatutako Gomendatzen dizut... gomendio lehiaketan parte har daiteke. Oporren gaineko aholkuak eta, ahal bada, argazkiak ere eskatzen dituzte.

Mugaeguna, irailaren 28a. Argibideak: www.aizue.com.

PROPOSAMENA

OÑATI

> Danni Leigh bakarlariak country emanaldia egingo du

Danni Leigh AEBetatik dator, Virginiatik, hain zuzen, *Divide and Conquer* bere hirugarren diskoa gurean aurkeztera. Lagun moduan, besteak beste, Bergarako *Poti* (Fucking What) bateria-jolea izango du Leigh-ek.

Country giroa txikitatik bizi izan du Danni Leigh-ek. Nashvilleko Bluebird kafe famatuan hasi zen lanean, eta han iritsi zitzaion bere musika ezagutarazteko aukera handia.

Bihar, zapatua, joko du Danni Leigh-ek Atzeko kalean, 22:30ean.



Trikitia tangoaren lekuan

IRAKASLE Aritz Alustiza bergararra Argentinan izan da udako oporretan, pandero eta trikitia erakusten

NECOCHEA Euskal Etxeko gazteek 'Hator hona' proiektua daukate, euskal kulturaren transmisioari eusteko asmoz

ESKOLAK Euskal Herritik joandako gazteek euskara, dantza, txalaparta edo gastronomiako eskolak eman dituzte

EDU MENDIBIL > BERGARA

Antza denez, tangoaren herrialdean badago trikitiarendako tartea. Aritz Alustiza gazte bergararra Argentinan izan da udako oporretan, Necocheako Euskal Etxeko gazteei pandero eta trikitia erakusten. Necochea Buenos Aires estatuko kostaldean dago, Mar de Plata ondoan. Hango Euskal Etxeko gazteek *Hator hona* izeneko proiektua jarri zuten abian orain dela hiru urte, euskal kulturaren transmisioari eutsi asmoz. Proiektu horri esker eta Euskadiko Gazte Kontseilua laguntzaz, Euskal Herritik zortzi gazte joan dira Argentinara: euskara, dantza, txalaparta, txistua, pilota jokoa edo gastronomiako eskolak eman dituzte.

DANTZARI BIKAINAK

Aritz Alustiza trikiti irakaslea da Bergarako Musika Eskolan eta Jardun elkartearen trikiti eskolan. Liluratuta etorri da Argentinan bizi izandako esperientziak: "Ikaragarria da nola sentitzen duten euskal kultura euskaldun

jatorria duten argentinarek. Dantzan, esaterako, ederki asko egiten dute. Euskadiko Dantza Txapelketa han egin beharko dugu laster... Euskara, berriz, nahiko galduta dago baina oraindik ere badira euskara ikastera animatzen direnak. Gure musika ondo baino hobeto ezagutzen dute: abesti guztien hitzak dakizkete! Ikastaroetan 50 gazte inguruk hartu dute parte eta giro ezin hobea egon da. Gauza ederra da hemendik aurrera, Interneti esker, harremanetan jarraitzea hango lagunekin. Aukera izanez gero, hurrengo baten ere bueltatzea nahiko nuke".

Irakasle lanetan jarduteaz gain, Argentinan zehar bidaiatzeko aukera izan du Aritzek: Iguzuko ur jauziak, Buenos Aires hiria, La Plata... Azken hiri honetan aspaldian han bizi den bergar batekin egin zuen topo: Zaldumendi baserriko Bixente Ibarguren. "Ilusio handia egin zion Bergararen berri izateak. Eta bere jaioterrira itzultzeko itzaropena ez du galdu...".



ARGENTINAN Aritz Alustizak (erdian) pandero eta trikiti eskolak eman dizkie Necocheako Euskal Etxeko gazteei.

ahobero

"Norbera noraino hel daitekeen jakin behar da eta zer-nolako immigranteak komeni zaizkigun ere jakin behar da"

Manuel Fraga > Galiziako Xunta-ko presidente ohia

Fragaren *talantea* agerian geratu da askotan. Adierazpenak egiten jarraitzen du, noraino hel daitekeen jakin barik. Immigranteen gaiari hobe errespetu osoz heltzea.

iturri onetik

Sabin Salaberri konpositore aramaioarrarentzat Urrezko Zeledoi saria

Sabin Salaberri musika konpositore aramaioarrari Urrezko Zeledoi saria emango diote gaur, egubakoitza, Gasteizko Principal antzokian. Salaberri 1934an jaiotakoa da, eta, besteak beste, *Gabonetako hiru kantak*, *Gora Araba* eta *Oroimenez* izenburuko lanen egilea da. Esan bezala, gaur iluntzeko Nazioarteko Abesbatzen Jaialdiaren barruan Urrezko Zeledoi emango diote.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Itzulerako ajeak

Hemen zarete berriro, oporretan joandakoak bueltan. Batek ametsa bete du, ikusi du desio zuen parajea, konpainia egokian. Besteak, tramitea bete: tropelean joan, artaldean egon eta tropelean itzuli. Izango zen dezepziorik ere, itxaro zena aurkitu ez duenarengan.

Oporretan joandakoei buruz bi gauza bitxi irakurri ditut. Bat, egunerokoan pozik bizi ez dena omen oporretarako irrikan egoten dena. Honek arazo latza izan lezake itzuleran, une bateko zorionak ez baitio egunerokoa konponduko. Biziki gomendatzen diot Billy Wilderen filma bat, *Avanti!* zoragarria. Lagungarri izan dakioke. Bigarren bitxikeria: oporretan elkarrekin denbora larregi igaro eta irailean diborziatzen omen da bikote asko. Horretarako ez daukat erremediorik.

ai, ene!



Sirenadun iratzargailua laneko lehen egunerako

Oporrak bukatu eta iratzargailuak dantzan hasiko dira berriz. Etsatzeko arazoak dituztenentzat modelo hori kaleratu dute.

<http://elkantril.net/blogak/zazpi>



Kalitatea, erakargarri

Prezioa ikusita, harrigarria da hain kalitate handia edukitzea, eta alderantziz

Toyota Corolla Luna 3 ate D-4D Diesel 15.885€.

Ondorengo motorrak: azken belaunaldiko D-4D Diesel Common Rail eta VVT-i gasolina. Aire-girogailu automatikoa (aire girotua Sedan eta Wagon bertsioetan). Aire-zakuak: gidariak, gidari-lagunak eta albokoek. ABS+EBD 4 freno-diskorekin. Gurpilak 195/60 VR15"-ko aleaziozko hagunekin. Irratia CD RDS 4 bozgorailurekin. Atzerako ispiak: margotuta, elektrikoak eta berogailuarekin. Aginte-panelean aluminio/karbono itxurako txertaketa (3 ate eta 5 ate). Audio-agintea integratuta duen laruzko bolantea. Optitron instrumentazioa.

Toyota Corolla Luna 2006 gama



FINANCIAL SERVICES



Kontzesionarioa
www.euskoauto.toyota.es

EuskoAuto

Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85

BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI